



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jauriaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

Erakundeen erantzuna emakumeen aurkako etxeko
tratu txarren aurrean, EAEko abokatu-laguntzaren
alorrean eta judizialean

Baliabide Judizialei eta Abokatu-laguntzari buruzko
ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarren
alorrean

Aurkibide

0- AURKEZPENA	1
----------------------------	----------

I. ATALA- EBALUAZIOAREN HELBURUAK, EBALUAZIO-EREDUA, EBALUAZIO-METODOLOGIA ETA TERMINOLGIA	2
---	----------

I.1. EBALUAZIOAREN HELBURUAK	2
I.2. EBALUAZIO-EREDUA	3
I.3. EBALUAZIO-METODOLOGIA	4
I.4. TERMINOLOGIA	6

II. ATALA- GENERO-INDARKERIAREN ETA ETXEKO TRATU TXARREN ALORREKO JARDUERA JUDIZIALAREN TESTUINGURUA	8
---	----------

II.1.EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BALIABIDE JUDIZIALEN ETA ABOKATU-LAGUNTZAREN LEGE-EREMUA ETA ANTOLAKETA	8
II.2.EMAKUMEEN AURKAKO ETXEKO TRATU TXARRAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ETA ESTATUAN	22

III. ATALA- BALIABIDEEN AHALMENA	28
---	-----------

III.1. ERAGILE JURIDIKOAK	28
III.2. OFIZIOZKO BERARIAZKO ABOKATU LAGUNTZA	36
III.3. BALIABIDE JUDIZIALEN ETA ABOKATU-LAGUNTZAREN AHALMENARI BURUZKO BALORAZIOA	39

IV. ATALA-ERAGILE JURIDIKOEK EMANDAKO ARRETA-KALITATEAREN ANALISI KUANTITATIBOA	48
--	-----------

IV.1. ARAZOAREKIKO PERTZEPZIOA	50
IV.2. PARTE-HARTZEA	54
IV.3. BERARIAZKO PRESTAKUNTZA	58
IV.4. ESKU-HARTZEAREN PROZESUA	61
IV.5. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA	72
IV.6. ZERBITZUAREN NORAINOKOTASUNA	75

**V. ATALA- ERAGILE JURIDIKOEK EMANDAKO ERAGINKORTASUNARI BURUZKO
BALORAZIOA:ETXEKO TRATU TXARRAK JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEN
IKUSPEGIA80**

V.1. PROZESUARI BURUZKO PERTZEPZIOA _____ 82

V.2. BALIABIDEEI BURUZKO BALORAZIOA _____ 88

VI. ATALA- ONDORIOAK ETA BALORAZIOAK95

VI.1. ERAGILE JURIDIKOAK _____ 95

VI.2. OFIZIOZKO BERARIAZKO ABOKATU LAGUNTZA _____ 110

VI.3.ETXEKO TRATU TXARRAK JASATEN DITUZTEN EMAKUMEAK _____ 122

ERANSKINAK

1. Baliabideen mapa _____ 124

2. Galdetegien gidoia _____ 140

0. AURKEZPENA

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeak honako hau agintzen du 51. artikuluan: “Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak aldian-aldian ebaluatuko du zein den emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabide eta programen eraginkortasuna eta irismena Euskal Autonomia Erkidegoan”. Lege horrek xedatutakoaren ondorio da ebaluazio-txosten hau.

Legeak ezarritako konpromisoari erantzunez, arlo horretako gizarte-baliabideen funtzionamendua eta eraginkortasuna ebaluatzen hasi zen Emakunde 2006an, eta ebaluazioaren emaitzak bildu zituen txosten batean: “EAEko erakundearen erantzuna emakumeen kontrako etxeko tratu txarren aurka Gizarte Zerbitzuen alorrean (2006): sarbidea”.

2007an, berriz, emakumeek jasaten duten indarkeriari aurre egitearren EAEn jarritako **baliabide polizialen eta judizialen** ebaluazioa egin da. Aurreko lanean bezala, ebaluazio-lan horien helburua ez da soilik baliabideen egokitasuna neurtzea. Beste helburu batzuk ere funtsezkoak dira, hala nola baliabide horien funtzionamendua eta testuingurua ulertzea, eta erakunde horien eguneroko eginkizunetara hurbiltzea, gertutasun hori hausnarketa-bide izan dadin baliabideen hobekuntza-prozesuan laguntzeko. Azalpen argiagoak ematearren, bi dokumentu bereiz egitea erabaki da. **Honako honetan, baliabide judizialen ebaluazioaren emaitzak biltzen dira.**

IV. KAPITULUA- ERAGILE JURIDIKOEK EMANDAKO LAGUNTZAREN KALITATEAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA

Laguntzaren kalitatea aztertzeko kapitulu honetan, baliabide juridikoei egindako balorazioak biltzen dira; hain zuzen ere, etxeko tratu txarren biktimak diren emakumezkoen emandako laguntzari buruzko eraginkortasunaren, efizientziaren, egokitasunaren, iraunkortasunaren eta eraginaren adierazleak baloratu dituzte. Horretarako, erakundeek funtzionamendua aztertu da, horien egiturak zein erabiltzen dituzten prozesuak eta lortutako emaitzak. Horrela, bada, galdera-sorta bana bidali diegu Auzitegiako Medikuntzako Euskal Erakundeko profesionalei, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko profesionalei, Talde Psikosozial Judizialeko profesionalei eta Fiskaltzako profesionalei, etxeko tratu txarren biktimak diren emakumezkoen eskaintzen dieten laguntzaren kalitateari buruzko pertzepzioak biltzeko.

Hautatutako ebaluazio-ereduari jarraiki, laguntzaren kalitatea baloratzen laguntzen duten irizpideak hartu ditugu kontuan, ataletan antolatzeko gaia; hona hemen atalak:

- A- ARAZOAREN IKUSPEGIA
- B- PARTE-HARTZEA
- C- ESKU-HARTZEAREN PROZESUA
- D- PRESTAKUNTZA
- E- KOORDINAZIOA
- F- ZERBITZUAREN NORAINOKOTASUNA

ERAGILE JURIDIKOEK EMANDAKO LAGUNTZAREN KALITATEAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA


- A. ARAZOAREN IKUSPEGIA
- B. PARTE-HARTZEA
- C. ESKU-HARTZEAREN PROZESUA
- D. PRESTAKUNTZA
- E. KOORDINAZIOA
- F. ZERBITZUAREN NORAINOKOTASUNA

A. Arazoarekiko pertzepzioa

- A. Erakundearen konpromisoa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarren alorrean
- B. Emakumeenganako etxeko tratu txarren arazoari buruzko balorazioak
- C. Biktimak lege-prozesua uzteari buruzko pertzepzioa

A. ARAZOAREKIKO PERTZEPZIOA

Konpromisoari buruzko balorazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarren alorrean (%)



Emakumeenganako etxeko tratu txarren alorrean, Eragile Juridikoek hartzen duten konpromisoa baloratuko dute haiek berek; Justizia Administrazioaren barruan, nor bere zerbitzuak hartutako konpromisoa baloratuko du

- Eragile Juridikoen kolektiboetako kideen artean, inkestatutako pertsona gehienek balorazio positiboa egin dute emakumeenganako tratu txarren arazoarekiko beren zerbitzuak hartutako konpromisoari buruz; horrela, bada, langile horien guztien %93k uste du behar adinako ahalegina egiten dela emakumeen aurkako etxeko tratu txarren alorrean.

B- Emakumeenganako etxeko tratu txarren arazoari buruzko balorazioak (%)


Erantsi dugun taulan, emakumeenganako etxeko tratu txarren arazoari buruz Eragile Juridikoek duten ikuspegia adierazten da.

- Inkestatutako langileen %86k uste du edozein emakume izan daitekeela indarkeriaren biktima; eta %85en iritziz, nahitaezkoa da babesteko mekanismoak ezartzea sistema penaletik kanpo, ekintza penala abian jartzea ez baita gustukoa emakume askorentzat. Bestalde, inkestatutako pertsonen %73k uste du benetako aldaketa soziala aukera-berdintasuna bultzatzen duen hezkuntzarekin batera lortuko dela.
- Eragile Juridikoen %63 ez dago oso ados lagundu dituzten emakumezkoek beren erabakiak hartzeko gai ez direlako iritziarekin.
- Inkestatutako pertsonen %41ek ez du uste tratu txarren biktima direnei laguntzeak ospe profesionala ematen diela.

	Arazoari buruzko balorazioak (%)			
	Ados	Ez erabat ados	Ez ados	Ed/Ede
Edozein emakume izan daiteke indarkeriaren biktima.	86	10	0	4
Emakumeenganako indarkeria gizonetzkoen eta emakumezkoen artean berdintasuna dagoenean desagertuko da.	38	34	20	8
Biktimek ekintza judiziala abian jartzen dutenean, beren bikotekidea aldatzea nahi dute.	65	28	0	7
Ekintza penalak abian jartzea gustukoa ez denez emakumezko askorentzat, nahitaezkoa da babes-mekanismoak ezartzea, sistema penaletik kanpo.	85	4	4	7
Berdintasuna bultzatzen duen hezkuntzak eragingo du benetako aldaketa soziala.	73	7	12	8
Lagundu ditugun emakumezkoak ez dira gai beren erabakiak hartzeko.	17	63	15	5
Tratu txarren biktimei laguntzeak, egun, ospe profesionala ematen dizu.	16	20	41	23

C. Biktimak lege-prozesua uzteari buruzko pertzepzioa

Salaketa kentzearekiko sentsazioa (%)



Jarraian, biolentziaren biktima diren emakumezkoek salaketa kentzen dutenean, Eragile Juridikoei eragiten dien sentsazioa aztertuko dugu. “Salaketa kendu” termino ezagunaren bidez (babesari uko egin, atzera-egin, bikotekidearen aurka ez deklaratzeko dispentsaz baliatu...), indarkeria-egoerarekin amaitzeko prozesua abian jarri duen emakumezko batek —1/2004 Lege Organikoak horretarako eskaintzen dituen neurriak erabilita— prozesuarekin ez jarraitzea eta akusazioa kentzea erabakitzen duela esan nahi dugu, eta horretarako modu asko daude.


- Sentsazio nagusia Eragile Juridikoen artean (%29), ezina eta frustrazioa da. Ustezko biktima sistemaz abusatzen ari delako pertzepzioa eta alferrikako lana dira askotan aipatu dituzten beste pertzepzioetako batzuk (%13).
- Bestalde, uzteko erabakia hartzea eragin dioten arrazoiei dagokienez, biktimak sentitzen duen beldurra eta babesik eza aipatu dute eta, horrezaz gain, mota horretako arazoak dituzten emakumezkoen prozesuan oso ohikoa dela ere bai (erantzunen %13, biak)

B. PARTE-HARTZEA


- A. Zerbitzuen funtzionamenduaren diseinuan parte hartzea
- B. Zerbitzuen kudeaketari buruz langileek duten satisfazio-mailaren kontsulta
- C. Kexa- eta iradokizun-sistema

A. ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDUAREN DISEINUAN PARTE HARTZEA

Eskaintzen duen berariazko zerbitzuaren funtzionamendu-diseinuan parte hartzea



Zure ustez, nahitaezkoa da eskaintzen duzun berariazko zerbitzuaren funtzionamendu-diseinuan parte hartzea? (%)




Ezkerraldean dagoen grafikoan, Eragileen parte-hartzea adierazten da; hau da, Justizia Administrazioaren barruan horietako bakoitza aritzen den berariazko zerbitzuaren funtzionamendu-diseinuan izandako parte-hartzea. Funtzionamenduaren diseinuan parte hartu duten kontuan hartu gabe, diseinuan haiek parte-hartzea nahitaezkoa den galdetu diegu, eta erantzun horiek eskuinaldeko grafikoan adierazten dira.


- Inkestatutako pertsonen %48k adierazi du parte hartu duela aritzen diren berariazko zerbitzuaren funtzionamendu-diseinuan; inkestatutakoen %46k esan du, berriz, ez zaiela diseinu-lanetan parte hartzea eskatu.
- Nork bere laneko zerbitzuaren funtzionamendu-diseinuan parte hartzea nahitaezkoa iruditzen zaie inkestatutako langile gehienei (%85).

B. ZERBITZUEN KUDEAKETARI BURUZ LANGILEEK DUTEN SATISFAZIO-MAILAREN KONTSULTA

Galdetu al dizute inoiz zerbitzuaren funtzionamenduari buruz duzun satisfazioa zenbatekoa den? (%)



Galdetzea nahiko zenuke? (%)




Justizia Administrazioako zerbitzu horien berariazko funtzionamendu-diseinuan parte hartzeko beste modu bat ere bada: eskaintzen duten zerbitzuarekiko eragileek berek duten satisfazio-maila kontuan hartzea.

- Inkestatutako langileen %60k esan du ez zaiela galdetu lanean aritzen diren zerbitzuaren funtzionamenduari buruz. Inkestatutakoen %31k, ordea, esan du galdera egin zaiela.
- Lanean aritzen diren zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko satisfazioaz ez zaiela galdetu esan duten pertsona gehienek (%90) adierazi dute nahiko luketela beren iritzia kontuan hartzea.

C- KEXA- ETA IRADOKIZUN-SISTEMA

Kexak eta iradokizunak biltzeko sistema antolatua (%)



Segidan, Eragile Juridikoak lanean aritzen diren zerbitzuetan kexak eta iradokizunak biltzeko sistemaren bat baduten aztertuko dugu.

- Inkestatutako pertsonen %31k esan du lan egiten duen zerbitzuan badela kexak eta iradokizunak biltzeko sistema bat; %21ek, berriz, esan du ez dakiela baden halakorik.


C. BERARIAZKO PRESTAKUNTZA

- A. Langileen berariazko prestakuntza
- B. Hobetzeko arloak, jasotako prestakuntzan.


A. LANGILEEN BERARIAZKO PRESTAKUNTZA

Berariazko prestakuntza emakumeen aurkako tratu txarren alorrean (%)

Inoiz jaso al duzu tratu txarren alorreko berariazko prestakuntza? (%)




Zure zerbitzuko prestakuntza-jardueretako bat zen? (%)



Eragile Juridikoen kolektiboetako langileek emakumezkoenganako etxeko tratu txarren alorrean berariazko prestakuntza jaso duten aztertu dugu eta, horrezaz gain, Justizia Administrazioaren barruko zerbitzuaren prestakuntza-jardueretako bat zen ere bai.

- Inkestatutako langileen %58k jaso du etxeko tratu txarren alorreko berariazko prestakuntza; langileen %38k, ordea, ez du izan mota horretako prestakuntzarik.
- Alor horren inguruan prestakuntza jaso dutela adierazi duten pertsonen artean, erdiak baino gehiagok (%56) adierazi du Justizia Administrazioaren barruko zerbitzuaren berariazko prestakuntza-jardueretako bat zela.

B- HOBETZEKO ARLOAK, JASOTAKO PRESTAKUNTZAN



Emakumearenganako etxeko tratu txarren alorrean berariazko prestakuntzaren bat jaso duten pertsonen prestakuntzari buruzko satisfazioaz galdetu diegu; hain zuzen ere, prestakuntza-jardueren kalitatean, kopuruan eta edukian aldaketarik egungo luketen galdetu diegu.

- Mota horretako prestakuntza jaso duten Eragile Juridikoen kolektiboko langile guztien %65ek adierazi du prestakuntza-jarduera gehiago egingo lituzkeela. Langileen %35ek adierazi du gustura dagoela prestakuntza-jarduera kopuruarekin.
- Prestakuntza-kalitateari dagokionez, iritziak nahiko parekatuta daude; izan ere, %58k esan du hobetu egin beharko liritekeela, eta %42k, berriz, egokia dela esan du.
- Azkenik, edukiari dagokionez, langileen %73k esan du beharrezkoa dela zenbait eduki-aldaketa; hain zuzen, biktimaren portaerei edo jarrerari buruzkoak, horiek ulertze aldera. Inkestatutako pertsona guztien ia erdiak (%49) biolentziaren fenomenoak hobeto ezagutze aldera eskatzen dituzte eduki-aldaketak; %44k, ostera, biktimari eta horrezaz gain bestelako arazoak dituzten emakumezkoari laguntzeko trebetasun pertsonalak eskuratzeko aldera eskatzen dituzte eduki-aldaketak prestakuntzan.

D. ESKU-HARTZEAREN PROZESUA

A. Etxeko tratatu txarren biktima diren emakumezkoei laguntza

B. Lan egiteko hautemandako arazoak

a. Auzitegiko Medikuntzako Euskal erakundea

b. Talde Psikosozial Judizialak

c. Biktimari Laguntzeko Zerbitzua


d. Fiskaltza

C. Presio profesionala, etxeko indarkeriako kasuetan

D. Informazioaren kudeaketa

A. ETXEKO TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEZKOEI LAGUNTZA

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoekin harremanetan jarri bitartean pasatzen den batez besteko denbora (%)



Erantsi dugun grafiko horretan, etxeko tratu txarren biktima edo ustezko biktima den emakumea zerbitzuarekin harremanetan jarri eta bertako langile teknikariak hari laguntzen dion arte pasatzen den batez besteko denbora, gutxi gorabeherakoa, adierazten da. Fiskaltza zerbitzuari ez zaio galdera egin, prozesu guztiak iraun bitartean esku-hartzen baitu, eta, hortaz, ez du eskaintzen une jakin batean laguntza.


- Inkestatutako pertsonen %44k adierazi du egun berean hasten dela emakumearenganako laguntza; %23k esan du, batez beste, egun 1 eta 2 egunen arteko epea pasatzen dela harekin harremanetan jartzeko; eta %24k, berriz, 7 egun baino gehiago pasatzen direla emakumeari laguntzen hasterako.


Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoekin egiten diren kontsulten batez besteko iraupena (%)

Eragile Juridikoek emakumezkoarekin egiten duten kontsultak batez beste zenbat irauten duen aztertzen da atal honetan. Fiskalei ere ez zaie galdera egin, aurreko atalean emandako arrazoi beretatik.


- Langileen ia erdiak (%48) esan du kontsultak ordu erdi eta ordubete bitartean irauten duela. Inkestatutakoen %23k adierazi du kontsultak, batez beste, ordubete eta bi ordu arteko iraupena izaten duela; eta %20k, berriz, kontsultak ordu erdi baino gutxiago irauten duela esan du.

Hurrengo orrialdean, batez besteko arreta- eta kontsulta-denbora ikusten da, operadore juridikoka”.





Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoei egindako diagnosia/ebaluazioa haiei berei jakinaraztea (%)



Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoek izaten dituzten lesioei buruzko ebaluazioak egiten dituzte Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak eta Talde Psikosozial Judizialek. Grafikoan, haiei egindako diagnosiei buruzko informazioa emakumeei berei ematen zaien adierazten da.

- Bi zerbitzuetako langileen %45ek esan du beti ematen diela diagnosiari buruzko informazioa emakumezkoei; eta %50ek, ostera, adierazi du gehienetan ematen diela diagnosiari buruzko informazioa. Bestalde, langileen %5ek adierazi du inoiz ez diela informazio hori ematen emakumezkoei.

B. LAN EGITEKO HAUTEMANDAKO ARAZOAK

Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea

Auzitegiko medikuek lan egiteko hauteman dituzten arazoak (%)

Auzitegiko medikuek lan egiteko hauteman dituzte arazoak (%)		
	Bai	Ez
Mediku-azterketak eta adituen txostenak, zaintzan daudenean		
Genero-indarkeriako kasuak	9	91
Emakumeenganako tratu txarreatatik egiten ari diren mediku-azterketa bereziak		
Kasua dagokion auzitegiko medikuari ematea	5	95
Auzitegiko psikiatreek gerora mediku-azterketak egiteko bideratzea	5	95
Aurrekariet, diagnosi-orientazio nagusiet buruzko informazioa lortzea	29	71
Mediku-azterketak auzitegiko psikiatriako sailletara eta adituengana bideratzea	10	90
Talde Psikosozial Judizialarekin txosten bateratua egitea	27	73

Segidan, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko langileek lan egitean izaten dituzten arazoak aztertuko ditugu, bai eta arazo horiek eragin duen arrazoia edo arrazoiak ere. Egiten duten lanean, bi une bereizten dira. Batetik, zaintzatan egiten dituzten mediku-azterketak eta adituaren txostena; eta bestetik, mediku-azterketa bereziak.

- Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko (AMEE) medikuek ez dituzte arazoak izaten mediku-azterketak egiteko zaintzan daudenean. Arazoren bat izan duten pertsonak adierazi dute denbora falta eta aurrekari pertsonalei buruzko informazio falta direla izaten dituzten arazo nagusiak.
- Emakumeenganako tratu txarreatatik egiten diren mediku-azterketa bereziei dagokienez, ikus daiteke elkarriketatutako auzitegiko medikuek ere ez dituztela arazo gehiegi izaten. Langileen %29k esan du aurrekariet buruzko informazioa lortzea zaila izaten dela, ez baitira txostenak ematen. Kasua dagokion auzitegiko medikuari ematerakoan arazoak hauteman dituzten artean, adierazi dute arazo horren arrazoia dela epaitegiak ez duela txostenaren helburuari buruzko argibiderik ematen. Bestalde, auzitegiko psikiatreek gerora mediku-azterketa gehiago egiteko esaten dutenean, psikiatra falta izaten da arazoa. Baliabide material eta giza baliabide gutxi dituztenez —baliabide horietara bideratu behar izaten dira kasuak—, mediku-azterketak auzitegiko psikiatriako adituen sailletara bideratzea zaila izaten da. Bukatzeko, Talde Psikosozial Judizialarekin txosten bateratua egitea zaila izaten da, bi taldeen artean denboran atzerapenak izaten direlako eta bien artean komunikazio gutxi dutelako.

Talde Psikosozial Judizialak**Talde Psikosozial Judizialek lan egiteko hauteman dituzten arazoak (%)**

Talde Psikosozial Judizialek lan egiteko hauteman dituzten arazoak (%)		
	Bai	Ez
Mediku-azterketak eta adituen txostenak, zaintzan daudenean		
Genero-indarkerirako kasuak.	100	0
Emakumeenganako tratu txarreatatik egiten diren mediku-azterketa bereziak		
Kasua dagokionari ematea	50	50
AMEEtik etorritako pertsona (haiek esanda)	0	100
Aurrekariei, diagnosi-orientazio nagusiei buruzko informazioa lortzea	80	20
Adituaren txosten psikologikoak egitea	80	20
Adituaren txosten psikologikoak egitea	60	40
Testigantzen balorazioak egitea	80	20
Uko egitearen balorazioa	50	50
Txosten bateratua egitea AMEEkin batera	100	0

Atal honetan, Talde Psikosozial Judizialeko profesionalek lan egitean izaten dituzten arazoak aztertuko ditugu, bai eta arazo horiek eragin duten arrazoiak edo arrazoiak ere. Egiten duten lanean, bi une bereizten dira. Batetik, zaintzatan egiten dituzten mediku-azterketak eta adituaren txostena; eta bestetik, mediku-azterketa bereziak.

- Inkestatutako Talde Psikosozial Judizialeko (TPSJ) langileek arazoak hauteman dituzte mediku-azterketak eta aditu-txostenak egiteko zaintzan daudenean. Eragile Juridikoek, oro har, koordinazioa egokia dela esan badute ere, zerbitzu honetako langileek hauteman dute zaintzan daudenean, koordinazio ezak, barrukoa zein kanpokoak, arazoak eragiten dituela.
- Emakumeenganako tratu txarreatatik egiten diren mediku-azterketei dagokienez, TPSJek nahikoa arazo izaten dituzte. Adituen txosten psikologiko eta psikologikoei dagokienez, langileek esan dute txostenaren helburua zein den behar bezala ez zehazteak arazoak eragiten dizkiela. Lekukotzari eta salaketari buruzko balorazioak egiteko, profesionalek metodologia-arazoak izaten dituzte eta, horrezaz gain, balorazio horiek egitea nekeza egiten zaie aurretiko informazioa ez dutelako izaten.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua**BLZk lan egiteko hauteman dituen arazoak (%)**

BLZk lan egiteko hauteman dituen arazoak (%)		
	Bai	Ez
Informazioa ematean		
Lege-jarduerei buruz informatzea, erantzukizun zibila eraginkorra izan dadin.	0	100
Ofiziotzko abokatu-laguntza izateko moduaz informatzea.	25	75
Lege-prozeduren berri ematea, eskubideak erabili ahal izateko.	0	100
Polizia-jarduera motei eta beste jarduerak batzuei buruz informatzea.	29	71
Segurtasun-neurrirei eta babestekoei buruz informatzea, neurri prebentibo gisa.	18	82
Unean uneko laguntza eta zehatza ematean		
Nahitaezkoak diren izapide guztiak betetzen ari direla egiaztatzea.	23	77
Informazio eta aholku egokiak jasotzen ari dela egiaztatzea.	33	67
Haren sare sozialarekin harremanetan jartzea.	13	87
Laguntza jarraitua ematean		
Salaketaren izapidetzeari buruzko informazioa etengabe ematea.	60	40
Garapen sozio-emozionala aztertzea.	17	83
Erkidegoan eskura dauden baliabideak erabiltzea.	14	86
Segurtasunik ezaren sentimendua eta bakardade-sentimendua arintzea.	9	91
Baliabideak abian jartzean		
Baliabide indibidualak abian jartzea.	13	87
Baliabide sozialak abian jartzea.	40	60
Babesteko Aginduak koordinatzean		
Gizarte-laguntzarako eta -babeserako neurriak koordinatzea.	67	33
Biktimek dituzten beharrak hautematea.	10	90
Unean-unean biktimari dagokion baliabideetara bideratzea Babesteko Aginduak.	9	91
Epaileak ematen dituen Babesteko Aginduak idatziz jasotzea.	83	17
Prozesu-aurreko egoerei buruzko informazioa idatziz jasotzea.	67	33
Babesteko Aginduen eta ezarritako neurrien estatistika egitea.	82	18

Segidan, BLZko langileek lan egiteko izaten dituzten arazoak, unearen edo fasearen arabera, aztertuko ditugu, bai eta arazo horiek eragin duen arrazoia edo arrazoiak ere. Bost une edo fase bereizten dira: Informazioa emateko unea, unean uneko laguntza eta zehatza, laguntza jarraitua, baliabideak abian jarri eta Babesteko Aginduak koordinatu.

- Taulan ikus daitekeen bezala, informazioa emateko faseak ez die arazorik eragiten BLZko profesionalei.
- Biktimari ematen zaion laguntzari dagokionez, salaketaren tramitazioari buruzko informazio jarraitua ematen denean sortzen dira arazoak; hala dio langileen %60k. Jarraipen jarraitua egiteko denbora ez izatea da horren arrazoia.
- Baliabideak abian jartzeak, indibidualak zein sozialak, ez du arazo askorik eragiten.

Babesteko Aginduak koordinatzeko fase edo jarduerak eremuak eragiten ditu arazo gehien. BLZko langileen %67k esan du gizarte-laguntzarako eta gizarte-babeserako neurriak koordinatzeak eragiten dizkiela arazoak; arazo horien arrazoi nagusiak protokoloak ez betetzea eta laguntza soziala eta psikologikoa atzeratzea direla adierazi dute. Inkestatutako pertsonen artean, batzuek arazoak izaten dituzte epaileak emandako Babesteko Aginduak (BA) idatziz jasotzeko, eta beste batzuek prozesu-aurreko egoerei buruzko informazioa idatziz jasotzeko; %83k eta %67k, hurrenez hurren. Azkenik, %82k arazoak izaten ditu Babesteko Aginduen eta ezarritako neurrien estatistikak egiteko, behar adina datu ez dutelako izaten, batik bat.

Babesteko Aginduak koordinatzeko BLZk dituen arazoak (%)


Aurreko atalean ere esan dugu Babesteko Aginduak koordinatzea dela Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari arazo gehien eragiten dion jarduera-eremua. Jarraian, BLZko langileek eginkizun horretan izaten dituzten arazoak zehatzago aztertuko ditugu.

- BLZko profesionalen %58k adierazi du arazo handiak eragiten dituela gizarte-laguntzarako eta -babeserako neurriak koordinatzea. Bestalde, %54k esan du inputatuaren prozesu-egoerari buruzko informazioa biktimari emateak eragiten dituela arazo handiak.
- BLZko langileen %90ek adierazi du, bestalde, Babesteko Aginduen eta ezarritako neurrien estatistikak egitea arazo nahiko handiak eragiten dituela; eta %54ri, berriz, arazo nahiko handiak eragiten dizkio eskura dauden baliabideetara eta laguntzetara bideratzea eta laguntza jarraitua emateak.
- Antza denez, emakumezkoek dituzten beharrak hautemateak eragiten ditu arazo gutxien; hala adierazi du BLZko langileen %54k.

	Babesteko Aginduak koordinatzeko BLZk dituen arazoak (%)			
	Handia	Nahiko handia	Ez du arazorik eragiten	Ed/Ed e
Gizarte-laguntzarako eta -babeserako neurriak koordinatzea.	58	0	42	0
Eskura dauden baliabideetara eta laguntzetara bideratzea.	0	54	46	0
Inputatuaren prozesu-egoerari buruzko informazioa biktimari ematea.	54	23	23	0
Babesteko Aginduen eta ezarritako neurrien estatistika egitea.	0	90	0	10
Emakumezkoen beharrak hautematea.	15	31	54	0
Epaitegiak eta Fiskaltza informatzea.	15	77	8	0
Gizartea informatzea.	25	25	50	0
Laguntza jarraitua ematea.	15	54	31	0

Fiskaltza

Fiskaltzak lan egiteko hauteman dituen arazoak (%)




Fiskaltzako langileen artean, inkestatutakoek hautematen dituzten arazoak aztertuko ditugu atal honetan.

- Inkestatutako fiskalen erdiak esan du biktimak ez deklaratzeko duen eskubidea erabiltzeak (jarri duen salaketa dela-eta abian jarritako prozesua eteteko) haien lana oztopatzen duela.
- Langile horien %25ek esan du bi aldeetako abokatu-laguntzak Ministerio Fiskalari jakinarazten ez dion informazioa izaten duela, eta horrek eguneroko lana oztopatzen duela.
- Azkenik, inkestatutako gainerako pertsonen %25ek uste du komunikabideek gehiegizko presioa eragiten dutela.


Epaiketa azkarreko kasuetan Fiskaltzak izaten dituen arazoak (%)

Epaiketa azkarreko kasuetan, Fiskaltzak bete beharreko funtzioa eraginkorra izan dadin haiek dituzten arazoak islatzen dira grafikoan (ehunekoen baturak ez du %100 ematen, erantzun anitzeko galdera baita).

- Kasuak prestatzeko denborarik eza (%29) eta kasua landu ahal izateko tokirik eza (%29) dira fiskalek gehien aipatu dituzten arazoak; eta honako hauek segidan: moteltasuna (%21), baliabiderik eza (%21) eta itxarongela oso egokia ez izatea (%14).



Biktima den emakumearekin aurrez aurre lan egiteko Fiskaltzak dituen arazoak (%)




Jarraian, biktima den emakumearekin aurrez aurre lan egiteko fiskalek hautemandako arazoak aztertuko ditugu.

- Fiskaltzako profesionalen %46k esan du biktimak salaketa kentzeak harekin aurrez aurre lan egitea oztopatzen duela.
- %27ren ustez, etxeko tratu txarren biktima den emakumeak informazioa ez emateak haien lana oztopatzen duela.
- Langileen %18k adierazi du emakumeak ez kolaboratzeak haien lana nekezago egiten duela.
- Eta azkenik, %9k uste du emakumearekin elkarriketa egiteko toki egokia eduki beharko lukeela.

Fiskaltzak hautemandako hobetze-arloak, etxeko tratu txarreko kasuetan lan egiteko (%)

Emakumeenganako etxeko tratu txarreko kasuetan lan egiteko Fiskaltzako langileek hauteman dituzten hobetze-arlo nagusiak adierazi ditugu grafikoan.

- Inkestatutakoen %33k adierazi du halako arazoak lantzeko instalazio egokiak behar direla.
- Langileen %25ek uste du, berriz, laguntza-baliabide berezi gehiago jarri beharko lirатеkeela.
- Horiezaz gain, psikologiaren arloa hobetzea eta zerbitzu sozialek gehiago esku-hartzea ere proposatu dute fiskalek.




C. PRESIO PROFESIONALA, ETXeko INDARKERIAKO KASUETAN

Zure ustez, emakumeenganako tratu txarren kasuetan izaten den presioa, beste kasu-mota batzuetakoa baino handiagoa da? (%)


Eragile Juridikoek emakumeenganako etxeko tratu txarren kasuetan beste kasu-mota batzuetan baino presio handiagoa sentitzen duten ikus daiteke grafikoan.

- Inkestatutako langileen %70ek esan du ez duela presio handiagoa sentitzen; langileen %23k, ordea, halako kasuetan presio handiagoa sentitzen duela adierazi du.
- Halako kasuetan presio handiagoa sentitzen dutela adierazi duten pertsonen arrazoi hauek eman dituzte: kasu horiek izaten duten presa, presio soziala, komunikabideen presioa eta egoera horiek eragiten duten arriskua.



D. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

Emakumezkoari buruzko informazioaren kudeaketa egokia da? (%)



Etxeko tratu txarren biktima den emakumezkoari buruzko informazioaren kudeaketa Eragile Juridikoek egokitzen hartzen duten aztertuko dugu atal honetan.

- Eragile Juridikoen erdiak uste du informazioaren kudeaketa egokia dela; langileen %26k, berriz, ez dela egokia uste du.

E. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

- A. Baliabideen arteko koordinazioari eta lankidetzari buruzko balorazioa
- B. Baliabideen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako hobetze-arloak

A. BALIABIDEEN ARTEKO KOORDINAZIOARI ETA LANKIDETZARI BURUZKO BALORAZIOA

Baliabideen arteko koordinazioari eta lankidetzari buruzko balorazioa (%)

	Eragileekiko koordinazioari eta lankidetzari buruzko balorazioa (%)			
	Handia	Eskasa	Nulua	Ed/Ede
Ofiziozko abokatuak	76	12	6	6
Osasun-zentroak/Ospitaleak	36	43	18	3
Ertzaintza	70	7	19	4
Epaitegiko Talde Psikosozialak	63	22	11	4
Fiskalak	33	33	25	9
Auzitegiko medikuak	94	0	6	0
Justiziako funtzionarioak	72	7	17	4
AMEE	40	28	32	0
Epaileak	71	15	11	3
Laguntzen diren emakumezkoak	71	29	0	0
Udaltzaingoa	64	11	17	8
Auzitegi-tako idazkariak	61	14	17	8

Emakumeenganako etxeko tratu txarren kasuetan, eragile juridikoen eta polizia-eragileen artean duten koordinazioa eta lankidetzaz aztertuko dugu jarraian. Adierazi behar da, Eragile Juridikoek prozesuan parte hartzen duten eragile guztiei buruzko balorazioa egin dutela, baina ez dutela beren buruari buruzko balorazioa egin.

- Erantsi dugun taulan ikus daiteke prozesuan parte hartzen duten eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzaz, eragile juridikoen zein polizia-eragileen artekoa, egokitzen baloratu dutela, oro har; izan ere, haien ustez, beren arteko koordinazioa handia edo nahikoa da.
- Emakumezkoen kolaborazioari dagokionez, pertsona bakar batek ere ez du nulutzat hartu laguntza eskaintzen zaien emakumezkoen kolaborazioa.

Parte hartzen duten beste eragile batzuekiko koordinazioa eskasa edo nulua dela esan duten pertsonak adierazi dute protokoloa dela arrazoi edo protokoloaren unean hauteman dutela koordinaziorik eza.


- Hona hemen eragileen arteko koordinazioa eskasa edo nulua izatearen arrazoi nagusia: beren arteko lankidetzaz ez da ohikoa izaten, arazo jakinetarako bakarrik behar izaten baitute elkarren arteko laguntza.

B. BALIABIDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO ETA LANKIDETZARAKO HOBETZE-ARLOAK

Baliabideen arteko koordinazioa hobetzeko nahitaezko neurriak (%)

Beste eragile juridiko eta polizia-eragile batzuekiko koordinazio-mailari buruzko balorazioa egiteaz gain, inkestatutako langileek nahitaezko neurri batzuk proposatu dituzte, eragileen arteko koordinazioa hobea izan dadin.

- Langileen %42k estamentuen arteko komunikazioa hobetzea proposatu du, eta hori baliabideen arteko komunikazioa handiagoa izateak eragingo du.
- Eragile Juridikoen %16k uste du koordinazioa eraginkorra izateko, arlo horretan lanean aritzen diren pertsonen eta erakundeen zeregina zein den jakitea beharrezkoa dela.
- Denborarik eza da baliabideen arteko koordinazioa oztopatzen duen faktorea (%16).




F. ZERBITZUAREN NORAINOKOTASUNA

A. Giza Baliabideak

B. Baliabide Materialak

A. GIZA BALIABIDEAK

Behar adina profesional badago tratu txarren biktimari laguntzeko zerbitzuan? (%)



Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren kasuetarako beren zerbitzuan dauden profesional-kopuruari buruz Eragile Juridikoek duten pertzepzioa aztertuko dugu atal honetan.


- Langileen erdiak baino gehiagok (%55) uste du beren zerbitzuan profesional gehiago behar dela. Langileen %34k, berriz, uste du nahikoa profesional badela beren zerbitzuan halako kasuetarako.
- Profesional gehiago behar dela adierazi duten pertsona askok uste du psikologiaren arloko profesionalak behar direla beren zerbitzuan.

B. BALIABIDE MATERIALAK


Bereziki egoera ahulenean dauden tratu txarren emakumezko biktimei laguntzeko baliabide bereziak (%)

Eragile Juridikoek eskaintzen dituzten zerbitzuetan egoera bereziki ahulean dauden emakumezkoek laguntzeko baliabide berezirik dituzten aztertuko dugu. Besteak beste, emakumezko hauei laguntzeko: immigranteak, ijitoak, aniztasun funtzionalen bat dutenak, toxikomanoak, gaixotasun fisiko edo mentalak dituztenak, adingabeak...

- Eragile Juridiko guztien %32k adierazi du badituztela baliabide bereziak; langileen %42k, ordea, ez duela esan du.



Tratu txarren biktimari laguntzeko ez dauden baliabideak eta nahitaezkoak direnak (%)




Eragile Juridiko horietako bakoitzak eskaintzen duen zerbitzua bermatzeko, nahitaezkoak diren baliabideak eta ez daudenak adierazten dira grafikoa.

- Inkestatutako pertsonen %42k uste du nahitaezkoa litzatekeela kulturen arteko bitartekotzarako baliabideren bat izatea.
- Inkestatutakoen %22k adierazi du zeinu-mintzairaren interpreteak behar direla.
- Eta azkenik, %6k uste du zerbitzura iristeko arrapala nahitaezkoa dela.


Lesio fisikoei buruzko balorazioak egiteko baliabide material egokiak (%)

Lesio fisikoei buruzko balorazioak egiteko baliabide material egokiak dituzten galdetu diegu AMEEko medikuei. (Lesio fisikoei buruzko balorazioak egiten dituen Eragile bakarra da).

- Medikuen %76k esan du baliabide material egokiak dituztela, etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoen lesio fisikoei buruzko balorazioak egiteko.



Lesio psikologikoei buruzko balorazioak egiteko baliabide material eta tekniko egokiak (%)




AMEE eta TPSJ arduratzen dira lesio psikologikoei buruzko balorazioak egiteaz. Mota horretako balorazioak egiteko baliabide material eta tekniko egokiak dituzten galdetu diegu bi erakunde horietako langileei.

- Inkestatutako langileen %42k uste du baliabide egokiak dituztela; eta %27k, berriz, ez direla egokiak.
- Baliabide materialak eta teknikoak egokiak ez direla esan duten AMEEko langileen iritziz, prestakuntza akademikoa hobetu beharko litzateke batetik, eta zerbitzuan psikologo bat edukitzea beharrezkoa da bestetik. Bestalde, egokiak ez direla esan duten TPSJko langileen ustez, teknika aproposagoak behar dituzte beren lana egiteko.

Biktima diren emakumezkoen informazioa idatziz emateko material osagarriaren beharra (%)


Emakumezkoari informazioa idatziz emateko Eragile Juridikoek material osagarria behar duten adierazten da ondoko grafikoan.

- Eragile Juridikoen %54k esan du ez duela material osagarririk behar emakumezkoari informazioa emateko; langileen %34k, berriz, material hori beharrezkoa dela adierazi du.
- Material osagarri hori beharrezkoa dela adierazi duten pertsonen artean, gehienek esan dute biktimak eskura dituen beste laguntza-baliabide batzuei buruzko informazioa emateko dela beharrezkoa. Hain zuzen ere, Fiskaltza-arloari dagokionez, salaketa bat jartzeak zer ondorio dituen argi eta garbi azaltzeko balioko luke.



C. ETXEKO TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEZKOEI EMANDAKO LAGUNTZAREN ERAGINA

Arazorik baduzu etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoen intimitatea bermatzeko? (%)



Etxeko tratu txarreko kasuetan zaila izan daiteke biktima diren emakumezkoen intimitatea bermatzea. Ondoan dagoen grafikoan, intimitatea bermatzeko Eragile Juridikoek arazoak izaten dituzten adierazten da.

- Inkestatutako langile gehienek (%63) esan dute etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoen intimitatea bermatzea ez zaiela zaila egiten; langileen %23k, ordea, horri buruzko arazoak izaten dituztela esan du.
- Emakumezkoen intimitatea bermatzeko zailtasunak dituztela esan duten pertsonak aho batez esan dute, halaber, konfidentzialtasunarekin zerikusia duen arazoa dela gehienbat; izan ere, eragile askok egin behar dituzte haien txostenei buruzko balorazioa.

I. ATALA – EBALUAZIOAREN HELBURUAK, EBALUAZIO-EREDUA, EBALUAZIO-METODOLOGIA ETA TERMINOLOGIA

I.1. Ebaluazioaren helburuak

Ebaluazio honen helburua da hobeto eta sakonago ezagutzea nola funtzionatzen duten eremu judizialeko baliabide eta programek emakumeen aurkako indarkeria kasuetan, eta, hartara, baliabide eta programa horien hobekuntza-prozesuan laguntzea.

Ebaluazioaren helburuak lau ardatz hauen inguruan egituratu dira:

1. Emakumeen aurkako indarkeria kasuetan abokatu-laguntzak eta zerbitzu judizialek nola funtzionatzen duten ezagutzea.
2. Zerbitzuen kalitatea eta nolakotasuna ebaluatzea.
3. Zerbitzu horiek erabiltzen dituzten emakumeen asebetetze-maila ebaluatzea.
4. Hobetu behar diren alderdiak identifikatzea.

Eremu judizialaren esku dago –eremu judizialaren jurisdikzio-ahalmenaren esparruan, alegia– justizia administratzea eta hainbat izaeratako gatazkak bideratzea. Ebaluazio hau gauzatzeko, kontuan hartu da hainbat zerbitzu eta organo judizialek osatzen dutela eremu judiziala. Aintzat hartu dira, batez ere, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak, fiskaltza, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea, Talde Psikosozial Judizialak eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak. Zerbitzu eta organo horiek guztiak bereziki aztertu dira baliabide judizialak ebaluatzearen.

Abokatu-laguntza ere justizia-administrazioaren atal bat izan arren, komeni da zerbitzu hori aparatu judiziala osatzen duten gainerako organoen jardueratik bereiztea, abokatu-laguntzak funtsezko zeregina baitu egungo sistema legalak genero-indarkeriari eta etxeko-indarkeriari ematen dion erantzunean. Beraz, hirugarren eremu bat bereizi da: etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txanda. Eremu horren barnean, aintzat hartu dira, halaber, laguntza juridikoa emateko hainbat baliabide (prozesu aurreko baliabideak), gizarte-zerbitzuen alorrean sartzen direnak eskuarki.


Eremu bakoitzaren analisia eta eremu horietan erabiltzen diren baliabideen azterketa osatzearen, etxeko tratu txarrak jasan eta prozesu legaletan parte hartu edo prozesu horiekin nolabaiteko lotura izan duten emakumeen testigantzak jaso dira zuzen-zuzenean, eta adierazpen horiek emandako informazioa jaso eta txostena egin da.

I.2. Ebaluazio-eredua

Emakumeen aurkako etxeko indarkeria kasuetan ematen diren gizarte-zerbitzuak ebaluatzeko Emakundek 2006an erabili zuen eskemari jarraituz, European Foundation for Quality Management (EFQM) erakundearen erabateko kalitatearen eredua aplikatu da alorreko baliabide polizialak eta judizialak ebaluatzearen. Erabateko kalitatearen eredua, kasu bakoitzaren berezitasunen arabera egokitua, erakundearen egitura eta funtzionamendua aztertzeko erabili da, hiru arlo aintzat hartuz:

- Egituren ebaluazioa: lidergoa, politika eta estrategia, pertsonak, baliabideak eta aliantzak.
- Funtzionamendu-prozesuen ebaluazioa.
- Emaizen ebaluazioa.

EFQM eredua, etxeko tratu txarrei aurre egitearren jarritako baliabide judizialak eta abokatu- laguntza ebaluatzeko egokitua



Etxeko tratu txarren kasuan, baliabide polizialen eta judizialen kalitatea ebaluatzeko, aintzat hartu behar dira, batetik, jarduera-eremu bakoitzari dagozkion printzipio arautzaileak – gehienetan legez ezarriak– eta, bestetik, edozein erakundetan aplikatu beharreko kalitatearen kudeaketarako printzipioak.

I.3. Ebaluazio-metodologia

Txosten hau egiteko erabili den metodologiak estrategia multimetodoa du oinarri. Teknika kuantitatiboak erabili dira, informazioa lortzeko metodo kualitatiboekin konbinaturik.

A. *Analisi dokumentala:* Informazio dokumentalaren analisia oso baliagarria da baliabide judizialen ebaluazio-lana egiteko, baliabideon bereizgarri nagusiak ezagutzeko aukera ematen baitu.

Hainbat erakundek (Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza, eta abar) emandako oinarrizko dokumentazioa –zerbitzu-gidak, txostenak eta memoriak– bildu eta aztertu da. Halaber, emakumeen aurkako etxeko indarkeria kasuetan erakunde horiek izandako jarduera erregulatzen duen araudia ikertu da.

Dokumentu horiek guztiek –gidak, memoriak, arauak, eta abar– hainbat erakunderen baliabideak, funtzionamendu-prozesuak eta haien jardueraren emaitzen balorazioak aztertzeko aukera ematen dute (besteak beste, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, fiskaltza, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea, Talde Psikosozial Judizialak, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila, abokatu-elkargoak, eta abar).

B. *Zerbitzua ematen eta antolatzen diharduten pertsonetikiko elkarrizketak:* Elkarrizketa sakonak dira, erdi-egituratuak, ikerketa-taldeko pertsonen eta aztergai diren erakundeetako profesionalen artekoak.

Elkarrizketa horiei esker, zenbait helburu lortu da:

1. Eskaintzen diren zerbitzu eta baliabideak ezagutzea. Horretarako, eskura dagoen dokumentazio guztia bildu da.
2. Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren kasuan erakunde horiek zer egiten duten jakitea.
3. Tratu txarrak edota sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeekin lan egiten duten pertsonen iritzia jakitea: zein gabezia eta arazo hauteman duten, baliabide-premiak zein diren, eta abar.

Baliabide bakoitzari buruzko gidoia prestatu da berariaz, eta 29 elkarrizketa egin dira alorreko profesionalekin. Elkarrizketak honela banatu dira:

Elkarriketen banaketa

A. ERAGILE JURIDIKOAK	
EPAILETZA	
Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak	3
Epaitegi mistoak	2
Zigor-arloko epaitegiak	8
Instrukzio-epaitegiak	1
Probintzia-azuzitegiak	3
Eusko Jaurilaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza	1
Eusko Jaurilaritzako Giza Baliabideen Zuzendaritza	1
FISKALTZA	
Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko atala	3
AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL ERAKUNDEA	
Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Zuzendaritza	1
BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK	
Eusko Jaurilaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza	2
TALDE PSIKOSOSIAL JUDIZIALAK	
Talde Psikosozial Judizialen koordinazioa	1
B- ABOKATU-LAGUNTZA	
Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandaren arduradunak	3

C. Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako galdera-sortak: Bikotekideak edota bikotekide ohiak emandako tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek emandako informazioek ikerketaren funtsezko zati bat osatzen dute. Informazio horiei esker jakin dezakegu zenbaterainoko eraginkortasuna duten erakundeek emandako erantzunak indarkeria-egoerak konpontzeko. Jasotako datuak, halaber, baliagarriak dira jakiteko zenbateko balioa ematen dioten emakume horiek justiziaren jarduerari eta zerbitzuei. Bildutako informazioa, betiere, egungo baliabideak hobetzeko baliagarria izan dadin antolatu eta landu da.

50 galdera-sortaren erantzunak biltzea zen hasierako helburua, baina, hainbat elkarte eta erakunderen laguntzari esker¹, helburu hori gainditu eta 61 erantzun lortu dira.

¹ Basauriko emakumeentzako informazio-zentroa, Caritas Bizkaia, Galarazi elkarte, Gakoa elkarte, Auzolan modulua, San Ignazio Deustu modulua, Margotu, Zutitu Araba, Zutitu Bizkaia, Aizan eta Donostiako Udala.

D. Inplikaturako erakundeentzako galdera-sortak: Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta ematen dieten erakundeentzako hainbat galdera-sorta prestatu dira. Askotariko eragileek osatu dute ikerketaren unibertsoa, eta galdera-sorta bana bidali zaio eragile horietako bakoitzari (etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta ematen dieten profesionalai, alegia). Hainbat eragile juridikotako 58 profesionalak erantzun diete galdera-sortei. Horren arabera, lagin-errorearen estimazioa +/- %10 da %95eko konfiantza-mailarako.

Lagina proportzionalki geruzatu da, baliabide bakoitzak populazio osoan duen eragina irizpide izanik. Eragile juridikoak (Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak, fiskaltza eta Talde Psikosozial Judizialak) kontuan hartu dira laginaren diseinua egiteko. Jasotako erantzunen proportzioa desberdina izan denez kolektibo bakoitzean, haztapen-indizea kalkulatu behar izan da, geruza bakoitza egoki ordezkatu eta lagina orekatzeko.

Galdera-sortetako zenbait itemi emandako erantzunen analisia egiteko, laginari beste 29 galdera-sorta gehitu zaizkio, kontuan hartu baitira etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandan parte hartzen duten abokatuen erantzunak ere.

E. Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandako langileekiko eztabaida-taldeak: Hiru eztabaida-talde osatu dira: lurralde historiko bakoitzean, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandan parte hartzen duten zazpi abokatuk osatutako eztabaida-talde bana.

I.4. Terminologia

Ebaluazio-prozesuan, erakunde arteko hitzarmenaren jarraipen-batzordeak proposatutako terminologia erabili da². **Emakumeen aurkako etxeko tratu txarrak** terminoa honako egoera honetan erabiltzen da: familiaren baitan edota egungo edo iraganeko harreman afektibo baten testuinguruan emakumearen aurkako indarkeria fisikoa, psikikoa, sexuala edo beste nolabaitekoa behin eta berriro erabiltzen denean, emakumea menderatzeko eta harremanaren baitan autoritatea eta boterea mantentzeko, eta indarkeria horrek emakumeari oinazea eta kalte fisiko edo psikikoa eragiten dionean (edo eragin diezaiokeenean).

² “Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak”. Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko hitzarmenaren jarraipen-batzordea.

Eremu polizial eta judizialean, **genero-indarkeria** terminoa erabiltzen da 1/2004 Lege Organikoa onartu zenetik. Ebaluazio-lan honetan ere agertzen da kontzeptu hori, betiere bikote batean (edo bikote ohi batean) gizonak emakumearen aurka eragiten duen indarkeria adierazteko. **Etxeko indarkeria** terminoa, berriz, familiaren baitan eragindako edozein indarkeria adierazteko erabiltzen da.

II. ATALA – GENERO-INDARKERIAREN ETA ETXEKO TRATU TXARREN ALORREKO JARDUERA JUDIZIALAREN TESTUINGURUA

II.1. Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide judizialen eta abokatu-laguntzaren lege-eremua eta antolaketa

A- Araudi orokorra

Hainbat eragilek ematen dituzten askotariko zerbitzuek osatzen dituzte baliabide judizialak. Eragile horietako bakoitzak funtzio jakinak ditu (bakoitzari dagokion estatutuan biltzen dira funtzio horiek). **Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan** zehaztu dira erakunde bakoitzak, bere eskuduntzen eremuan, bere gain hartu behar dituen genero-indarkeriaren alorreko funtzioak.

Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legeak ere, VII. atalean, eskuduntza duten administrazio publikoen zereginak arautu ditu:

- Biktimei doako eta berehalako aholkularitza juridiko espezializatua, lortzen erraza eta integrala bermatzea.
- Biktimei premiazko eta doako laguntza psikologiko espezializatua, deszentralizatua eta lortzen erraza bermatzea.
- EAE osorako jardunbide homogeneo eta bateratuak koordinatzea, eta maila lokalean eta foralean lankidetzat-hitzarmenak eta protokoloak sustatzea.

2002an eta 2003an biktimentzako babes-aginduak eta epaiketa azkarrak ezarri zirenean, aldaketa handiak izan ziren eremu judizialean, genero-indarkeriari eta etxeko indarkeriari dagokienez. Harrezkero, gai zibilak eta penalak egoitza judizial bakar batean biltzen dira. Gainera, eraso gehienak delitutzat hartzen dira (ez dira hutsegitetzat hartzen), eta, ondorioz, zigor handiagoak ezartzen dizkiete erasotzaileei. Lege-aldaketa ugari egin zen 2002an eta 2003an, sisteman ikusitako akatsak zuzentzearen. Aipamena merezi dute, bereziki, honako hauek:

- **Delitu eta hutsegite jakin batzuen epaiketa azkarra bideratzeko 38/2002 Legea.** Lege horren ildotik, **3/2003 Instrukzioa** sortu zen, zigorrak ezartzeko arauen eta etxeko indarkeriaren datuak biltzen dituen erregistro informatikoari buruzkoa. Etxeko indarkeriari aurre egiteko gida praktikoa ezarritako irizpideak gauzatzea eta prozesu

penal eraginkorrak lortzea da instrukzio horren helburua.

- **Uztailaren 31ko 27/2003 Legea, etxeko indarkeria jasaten dutenentzako babes-aginduak arautzen dituena.** Lege horrek kautela-neurri penal eta zibilak modu azkar eta eraginkorrean antolatze baliabide bat izatea ekarri zuen gure sistema juridikora. Gainera, indarkeriaren biktimei babes eraginkorra ematearren, laguntza sozial eta terapeutikoa bideratzen du lege horrek, etxeko indarkeriaren arazoari ikuspegi global batetik heltzeko. Beraz, biktimari babes osoa emateko baliabide azkar eta xumea da babes-agindua, instrukzio-epaitegian hasten dena eta kautela-ekintza guztiak –zibilak nahiz penalak– bateratzen dituena.
- **11/2003 Lege Organikoa, hainbat alorretan neurri zehatzak ezartzen dituena: hiritarren segurtasunean, etxeko indarkeriaren alorrean eta atzerritarren gizarte-integrazioan.** Lege horrek ezarritakoaren arabera, etxekoei eragindako lesioak ez dira hutsegitez hartuko, baizik eta delitutzat, eta halakoengatik kartzela-zigorra ezartzeko aukera ere ematen du legeak.
- **Urriaren 24ko 13/2003 Lege Organikoa.** Prozedura Kriminalaren Legea erreformatzen du, behin-behineko espetxealdiak aldatzeko.
- **Azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoa.** Zigor Kodean egindako erreformak ordenatzea du helburu. Etxeko tratu txarren alorrean ere badu eragina lege horrek.

Prozesu azkarrak bermatzeko helburuz egindako auzibide- eta zigor-erreformei dagokienez, gogoangarriak dira bi lege hauek: batetik, **urriaren 24ko 38/2002 Legea, Prozedura Kriminalaren Legea partzialki erreformatzen duena.** Delitu eta hutsegite jakin batzuk azkar epaitzea eta prozedura azkarra aldatzea ekarri zuen lege horrek. Bestetik, **Urriaren 24ko 13/2003 Lege Organikoa**, aurrekoaren osagarri dena.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa indarrean sartzeak eragin handia izan du Justizia Administrazioak etxeko indarkeriari eta genero-indarkeriari ematen dion tratamenduan. Lege horrek genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriak ezartzen ditu, eta, hari esker, jurisdikzio espezializatu bat sortu da bikotearen baitan emakumearen aurka izaten den indarkeria kasuak aztertzeke.

1/2004 Lege Organikoa zera adierazten du: emakumeen aurkako etxeko indarkeria arazo oso konplexua izanik, konplexutasun horren xehetasunak kontuan hartu behar ditu erantzun judizialak. Horretarako, pixkanakako egokitze-prozesu bati ekin behar zaio, gaiari modu integralean heltzeko. Helburu horrekin, 1/2004 Lege Organikoa xedatzen du auzitegi-barruti bakoitzean instrukzio-epaitegi espezializatu bat sortzea, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko kasuak aztertzeke. Epaitegi hori arduratuko da, ikerketa-fasean, biktimaren

bikotekideak (edo bikotekide ohiak) egindako delituengatik irekitzen diren prozesu penalak aurrera eramateaz.

1/2004 Lege Organikoaren 44. artikulua honela definitzen ditu **emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegien** eskuduntzak:

1. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiek, betiere Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitako prozedura eta baliabideak erabiliz, honako kasu hauek aztertuko dituzte:

- a) Erantzukizun penala eskatzeko prozesuen instrukzioa, Zigor Kodean zehaztutako hainbat delituengatik: hilketa, abortua, lesioak, fetuari eragindako lesioak, askatasunaren aurkako delituak, osotasun moralaren aurkako delituak, sexu-askatasunaren aurkakoak, sexu-osasunaren aurkakoak edota indarkeria edo larderia erabiliz egindako delituak. Delitu horiek aztertuko dira baldin eta emaztearen edo bikotekidearen (edo bikotekide ohiaren) aurka eginak badira, nahiz eta elkarrekin ez bizi. Aztergai izango dira, halaber, norberaren, edo emazte nahiz bikotekidearen seme-alaben aurka, edo norberarekin bizi diren adingabeen edo gutxitasunen bat dutenen aurka, edo emazte nahiz bikotekidearen guraso-agintepEAN, tutoretzapEAN, zaintzapEAN, harrerapEAN edo izatezko ardurapEAN daudenen aurka egindako delituak, baldin eta erasotzaileak, aldi berean, genero-indarkeriaren alorreko beste delituen bat egin badu.*
- b) Familia-eskubide eta -betebeharren aurkako delituengatik erantzukizun penala eskatzeko prozesuen instrukzioa, baldin eta biktima atal honetako a) letran zehaztutako pertsonetako bat bada.*
- c) Biktimentzako babes-aginduak ezartzea, guardiako epailearen eskuduntzak kaltetu gabe.*
- d) Zigor Kodeko III. liburuko I. eta II. tituluetan zehaztutako hutsegiteak aztertzea eta epaiak ematea, baldin eta biktima atal honetako a) letran zehaztutako pertsonetako bat bada.*

2. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiek, betiere Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitako prozedura eta baliabideak erabiliz, arlo zibileko honako gai hauek azter ditzakete:

- a) Seme-alabatasunari, amatasunari eta aitatasunari buruzkoak.*
- b) Ezkontza deuseztatzea, banantzea eta dibortzioa.*
- c) Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak.*
- d) Familian eragin handia duten neurriak hartzea edo aldatzea.*

- e) *Soilik adingabeko seme-alaben zaintzari eta babespeari buruzkoak, edota guraso batek besteari adingabeko seme-alaben izenean eskatzen dizkion janariei buruzkoak.*
- f) *Adopziorako baimenei buruzkoak.*
- g) *Adingabeak babesteko ebazpen administratiboen aurka egiteari buruzkoak.*

3. *Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiek eskuduntza dute, modu eskusibo eta baztertzailan, honako baldintza guzti hauek aldi berean betetzen direnean:*

- a) *Artikulu honen bigarren ataleko gaietako bat helburu duen prozesu zibila izatea.*
- b) *Prozesu zibileko aldeetako bat artikulu honen 1.a atalean aipatzen diren genero-indarkeria ekintzen biktima izatea.*
- c) *Prozesu zibileko aldeetako bati egozteko genero-indarkeria ekintzen egile, eragile edo ezinbesteko laguntzaile izatea.*
- d) *Emakumeen aurkako indarkeria-ekintza baten ondorioz, delitu edo hutsegite horregatik emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epailearen aurrean ekintza penalak hasi izana; edota babes-agindua eman izana genero-indarkeriaren biktima babesteko.*

Araudian egindako aldaketez gain, koordinazio-lanetan ere aurrerapenak egin dira. Nabarmenezkoa da Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak sustatu eta koordinatu duen akordioan parte hartu duela EAEko Justizia Administrazioak: ***“Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko hitzarmena”***³. 2001ean sinatutako akordio horren helburua da etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei bermatzea ahalik eta laguntza integral eta koordinatuen arlo sanitarioan, polizialean, judizialean eta sozialean. Horretarako, esku hartzen duten profesionalek jarraitu beharreko irizpideak ezarri ditu akordioak, eta parte hartzen duten erakundeen arteko lankidetzak sustatzeko bideak jorratu. Akordio horren ildotik, hain zuzen, beste protokolo sektorial batzuk garatu dira indarrean dagoen araudia egoki aplikatu dadin.

EAEan, asko aurreratu da emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko esku-hartze sozial eta instituzionalean. Aurrerapen horien testuingurua honako hau da:

- ❖ **Emakumeen aldeko Ekintza Positiborako hiru planak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana**, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak antolatuak eta Eusko Jaurlaritzak onartuak.

³ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Fiskaltzak, hiru lurralde historikoetako Foru Aldundiek, Eudel-Euskadiko Udalen Elkartek, Legelarien Euskal Kontseiluak eta Medikuen Euskal Kontseiluak sinatua.

- ❖ Gainera, berariaz egin dira hainbat protokolo sektorial, hala nola **genero-indarkeriaren aurkako babes-neurrien legea eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio-protokoloa**. Honako erakunde hauek sinatu zuten, 2007an: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia, fiskaltza, gobernu-idazkaria, probintzia-azitegiak, dekanok, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegietak magistratuak, Herrizaingo Saila, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea, abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, udaltzaingoak, Gizarte Zerbitzua eta Justizia Saila. Protokolo hori oso baliagarria da legearen alderdi garrantzitsuenak sistematizatzeko eta inplikaturako erakunde guztien arteko koordinazio eraginkorra bultzatzeko.

Justiziaren alorrean, antolaketa judiziala konplexua da, hainbat organo, baliabide eta zerbitzu baitaude beraren egituraren. Ebaluazio hau egiteko, elementu horiek guztiak aztertu dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, botere judiziala espainiar estatuari dagokio, eta jurisdikzio-batasunaren printzipioan oinarritzen du beraren jardura lurralde osoan. Euskal Autonomia Erkidegoak ez du justizia-administrazio propioarik, eta estatuko Justizia Administrazioan parte hartzen du, haren eskuduntza administratiboen kudeaketan lagunduz.

Lehenik eta behin, jurisdikzio-ahalmenaz baliatuz, botere judiziala osatzen duten epaitegi eta auzitegiak dira helburu, bereziki **emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegi espezializatuak**, baina baita espezializatu gabeak ere, eskuduntza baitute emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegi espezializaturik ez duten auzitegi-barrutietan:

- Instrukzioko epaitegiak (auzi penalak)
- Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegi mistoak (auzi penalak eta zibilak, populazio gutxiko auzitegi-barrutietan)
- Zigor-arloko epaitegiak (garrantzi handiagoa duten auzi penalak)
- Probintzia-azitegiak (atal espezializatuak): probintzia bakoitzeko organo judizial nagusiak dira. Auzi zibil nahiz penalak aztertu eta epaitzak ematen dituzte. Apelazio-errekurtsoez arduratzen dira eta, auzi penetan, delitu larriez ere bai.

Hainbat epaitegik esku hartzen dute genero-indarkeriaren eta etxeko tratu txarren alorrean, halakoa baita lurralde-antolaketa. Inpartzialtasuna bermatzearren, salbuespenak salbuespen, auzien instrukzioa jurisdikzio-organoren batean egiten da, eta epaia beste organo batek ematen du. Gainera, eskuduntzen banaketa hierarkikoa dela eta, errekurtsoak apelazio-azitegietan ebazten dira. Salbuespen dira epaieketa azkarrak eta hutsegiteei buruzko epaieketak, organo bakar batean gauzatzen baitira horiek.

B- Eragile juridikoak

Epaitegi bakoitzak osatzen duen unitatea **Bulego Judiziala** da. Bulegootako titularrak epaileak dira, eta beste pertsona batzuek ere lan egiten dute Bulego Judizialaren funtzionamendua egokia izan dadin, hala nola:

- **Idazkaritza judiziala:** Fede publiko judiziala dute, eta prozesuko egintzen berri emateaz arduratzen dira. Beste hainbat eginkizun ere badute: langile-zuzendaritza, prozeduren dokumentazioa, auziak banatzea, eta abar.
- **Administrazio-langileak:** Ofizialak, laguntzaileak eta agenteak. Gestio eta izapide administratibo eta prozesalaz arduratzen dira, eta baita laguntza judiziala emateaz ere.
- **Erakunde laguntzaileak: Polizia judizialak** arlo penalean ikertzeko ardura du, eta **Auzitegi Medikuntzan** jarduten duten profesionalek, berriz, laguntza teknikoa ematen dute epaitegietan, eta, prozesu judizialean parte hartzen dutenean, aditu-txostenak egin eta mediku-irizpenak ematen dituzte.
- **Fiskaltza:** Gizartearen interesen ordezkaria da. Botere judizialean integraturik dago, baina ez da haren partaide. Justizia Ministerioaren mendean dago, eta jurisdikzio-organoei atxikitako fiskaltzetan antolatuta dago, lurraldeen eta espezializazioen arabera banaturik.

Ebaluazio hau gauzatzeko, epaitegietako (edota probintzia-auzitegietako atal nahiz auzigelako) titularrez gain, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea eta fiskaltza izan dira helburu.

Botere Judizialaren Lege Organikoak arautzen du Bulego Judiziala. Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak, hain zuzen, garrantzi handiko aldaketak ekarri ditu. Aldaketa horiek helburu jakin batzuk dituzte: erakundearen antolaketa hobetzea, teknologia berriak txertatzea, hiritarrei zerbitzu hobea eskaintzea, administrazioen artean eskuduntzak banatzea eta giza baliabideak arrazionalizatzea. Euskal Autonomia Erkidegoan justizia-administrazioaz arduratzen den sailak ahalegin handia egiten du helburu horiek diseinatzeko eta ezartzeko, zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea bermatzearren.

Bulego Judizialaz gain, **Administrazio Atalak** ere arautzen ditu Botere Judizialaren Lege Organikoak. Administrazio Atalak ez daude Bulego Judizialean integraturik; Justizia Administrazioaren antolaketa-eremuan eratzen dira, hainbat helburu lortzeko. Ebaluazio hau egiteko, honako hauek hartu dira kontuan:

- Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak.

- Talde Psikosozial Judizialak. Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearekin batera, 1/2004 Lege Organikoak xedatutako balorazio integralerako unitateak eratzen ari dira.
- Itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak.

B.1. Fiskaltza

Fiskaltzaren helburua da justiziaren jarduera sustatzea, legeria, hiritarren eskubideak, eta legeen babespeko interes publikoa defendatzeko helburuz. Eginkizun hori betetzen du fiskaltzak, ofizioz edo interesatuen eskaerei erantzunez. Auzitegien independentzia ere babestu behar du fiskaltzak, eta, haien aurrean, interes sozialei erantzuten ahalegindu behar du. Halaber, figura berri bat sortu du 1/2004 Lege Organikoak: emakumeen aurkako indarkeriaz arduratzen den fiskala. Fiskaltzaren lana gainbegiratzeko eta koordinatzeko fiskal horrek, etxeko indarkeriaren alorreko auzietan. Gainera, atal baliokideak sortu dira Auzitegi Nagusietako eta probintzia-azuztegiakotako fiskaltza bakoitzean, eta alorrean espezializatutako fiskalak atxikiko zaizkie atal horiei. Delitu edo hutsegiteen ondorioz irekitako prozedura penaletan parte hartzen dute fiskal horiek, baldin eta eskuduntza emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiei badagokie. Gainera, beste prozesu zibil batzuetan ere parte hartzen dute: ezkontza deuseztatzea, banantzea edo dibortzioa; eta baita adingabeko seme-alaben zaintza eta babestea auzitan dagoenean ere, baldin eta bikotekideari edo seme-alabei tratu txarrak ematea auzitan jarri bada.

Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriak ezartzen dituen Lege Organikoaren **70. artikulua**ren arabera, honako hauek dira emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko sortutako fiskaltzak dituen funtzioak:

- 1. **Fiskaltzaren estatutu organikoaren 5. artikuluan** zehaztutako eginbideak aurrera eramatea, eta zuzenean parte hartzea estatuko fiskal nagusiaren iritziz garrantzi handia duten prozesu penaletan; alegia, **Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87. artikuluan (ter.1)** zehaztutako genero-indarkeriaren alorreko delituei buruzko prozesuetan.*
- 2. Estatuko fiskal nagusiak delegaturik, **Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87. artikuluan (ter.2)** zehaztutako prozesu zibiletan parte hartzea.*
- 3. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko atalak gainbegiratzeko eta koordinatzeko, txostenak eskatzea, eta dagokion fiskaltzako fiskal nagusiari txosten horien berri ematea.*

4. Genero-indarkeriaren alorreko fiskaltzen ekintza-irizpideak koordinatzea. Horretarako, estatuko fiskal nagusiari proposa diezaioke dagozkion instrukzioak ematea.

5. Genero-indarkeriaren alorrean fiskaltzak egindako prozedurak eta jarduerak biltzen dituen txostena egitea, sei hilez behin. Estatuko fiskal nagusiari aurkeztu behar zaio txosten hori, gero Auzitegi Goreneko fiskalen bilkurari eta kontseilu fiskalari bidaltzeko.

72. artikuluan, buruzagitzako ordezkariaren figura sortzea xedatzen da. Genero-indarkeriaren alorreko arau-hausteeekin zerikusia duten gaietan zuzendaritza- eta koordinazio-lanak egiten ditu buruzagitzako ordezkariak.

Aipatutako legeak, halaber, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko atala sortu du, bai Audientzia Nazionaleko fiskaltzan, bai Auzitegi Nagusietako fiskaltza bakoitzean, bai eta probintzia-azuztegiakotako fiskaltza bakoitzean ere. Atal horrek funtzio hauek hartu ditu bere gain:

- 1. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegien eskuduntzako delitu edo hutsegiteen prozedura penalean esku hartzea.*
- 2. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegien eskuduntzako prozedura zibiletan zuzenean esku hartzea.*

B.2. Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE)

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea organo teknikoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren mendean dago. Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoaren arabera, Auzitegi Medikuntzako institutuak organo teknikoak dira, eta organo horien zeregina da froga mediku-perizialak, tanatologikoak eta laborategikoak egitea. Irakaskuntza eskaintzeko aukera ere badute, eta baita ikerketa-arloa jorratzekoa ere. 107/1996 Dekretuak Eusko Jaurlaritzak justiziaren arloan dituen eskumenak jasotzen ditu, EAEn Justizia Administrazioaren funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabide material eta ekonomikoak hornitzeari dagokionez. Dekretu horretan bertan jasotzen da Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea sortzeko eta antolatzeko aukera.

328/1998 dekretuaren bitartez, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE) sortu du Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eskutik.

EAEko epaileei, magistratuei, epaitegiei eta fiskaltzari laguntza emateko organoa da Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea, eta haiek eskatutako aditu-txostenak egitea da beraren zeregina.

1/2004 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriak jarduera-protokoloei buruz adierazten duenez, gobernuak eta justiziaren alorreko eskuduntza duten autonomia-erkidegoek antolatu behar dituzte, bakoitzak bere esparruan, auzitegi-medikuntzako zerbitzuak. Balorazio integralerako unitateak antolatu behar dituzte, eta unitate horiek arduratuko dira genero-indarkeria kasuetan jarraitu beharreko jarduera-protokolo global eta integralak diseinatzeaz.

Emakumeen aurkako indarkeria kasuetan, biktimak aztertu eta miaketa psikiatriko eta psikologikoa egiten die Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak. Tratu txarrak jasan dituzten haurrak ere aztertzen dituzte, baita erasotzaileak ere. Miatu ostean, tratu txarrak jasaten dituen emakumearen arazo psikiko eta fisikoak zehazten dituzte. Epaileak aditu-txosten hori erabiltzen du emakumeen aurkako indarkeria kasuetan. Beraz, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea laguntza-erakundea da; izan ere, aditu-txostenak egiteaz gain, epaiketetan hala eskatuz gero, txosten horien edukia epailearen aurrean berresteaz eta azaltzeaz arduratzen da.

Garrantzi handiko zeregin horretan dihardute, elkarlanean, psikiatrian adituak diren auzitegi-medikuek eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren mendeko Talde Psikosozial Judizialek.

B.3. Talde Psikosozial Judizialak (TPSJ)

Talde Psikosozial Judiziala organo teknikoa da, eta Justizia Sailburuordetzaren mendean dago. Talde horren zeregina da dagokien espezializazio alorrean laguntzea eta aholkularitza teknikoa eskaintzea jurisdikzio guztietako epaitegi, auzitegi eta fiskaltzei, batez ere zigor arloko eta familiako jurisdikzioetako. Psikologoek, gizarte-laguntzaileek, hezitzaileek eta administrazio-langileek osatzen dute Talde Psikosozial Judiziala, eta lurralde-koordinatzaileen eta koordinatzaile nagusi baten ardurapean daude guztiak ere.

Talde Psikosozial Judizialak talde bana dauka lurralde historiko bakoitzean: Bizkaian, Bilboko eta Barakaldoko eraikin judizialetan dauzka egoitzak; Gipuzkoan, Donostiako eraikin judizialean; eta Araban, Gasteizkoan.

Talde Psikosozial Judizial bakoitzak bere eremuan dituen zereginak honako hauek dira:

- Organo judizial eta fiskalek hala eskatuta, aditu-txosten psikologiko, soziofamiliar eta gizarte-hezkuntzakoak egitea, eta txosten horiek epaiketetan defendatzea.
- Adingabeen Erantzukizun Penaleko Legeak ezartzen duenari jarraituz, "talde teknikoak" egin beharreko eginkizunak betetzea.
- Adingabeen onurarako diren prozesuetako froga eta egintzetan epaile eta fiskalei laguntzea.
- Legeak berariaz ezarritako beste esku-hartze batzuk.

Peritu-eginkizunetan, Talde Psikosozial Judizialak aditu-izaera du honako arlo hauetan:

- Adingabeei dagozkien gaitan: adingabeen erantzukizun penala (aholkularitza, laguntza teknikoa eta bitartekotza), adingabeak babestea, erasoak, sexu-abusuak eta haur-testigantza.
- Familia-zuzenbideko prozedurak.
- Ebaluazio psikologiko eta soziofamiliarak, batez ere sexu-delituen eta etxeko indarkeriako biktimen kasuetan, eta testigantza eta salaketak baloratzea.
- Nortasun- eta psikometria-azterketa osagarriak, egozgarritasun-balorazioetan eta ustezko ezintasun-egoeretan.

Organo judizialek eta fiskaltzek aditu-txosten edo parte-hartze teknikoak eska diezazkiokete Talde Psikosozial Judizialari, zuzenean edota koordinatzaileari postaz zein faxez bidalita. Biktimei buruzko peritu-txostenen kasuetan, koordinazioa errazteko eta biktimak eragozpenik izan ez dezan, Talde Psikosozial Judizialaren eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen arteko barne-protokolo bat osatu da. Protokolo horren arabera, bakoitzaren funtzioak direnak direla ere, biktima adindun bati dagozkion txostenak Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Zuzendariordetzei eskatuko zaizkie, eta adingabeei dagozkienak, berriz, Talde Psikosozial Judizialari; biok koordinatuta jardungo dute, eta bi arloei dagozkien txostenak bidaliko dizkiote eskatzaileari.

B.4. Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ)

Doan ematen diren zerbitzuak dira, eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren mende daude.

Zerbitzu horien bidez, batez ere informazioa eta laguntza ematen zaie delituen biktimei. Zerbitzuotako langileek eragile juridikoekin elkarlanean dihardute. Bilbon eta Donostian, Euskadiko Birgizarteratze Institutuak (EBI) kudeatzen ditu Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak,

eta Gasteizen, berriz, Clara Campoamor elkarteak. Hiriburu bakoitzean, arlo juridikoan, psikologian eta gizarte-lanean adituak diren langileak dituzte.

Honako zerbitzu hauek ematen dituzte:

- **Biktimei** beren eskubide eta prozedura legalei buruzko **informazioa eman**, prozedura horiek amaitzen diren arte.
- **Hasierako arreta zehatza**: beharrezko izapideak egiaztatu, arazoari buruzko informazio zehatza eman, biktima sare sozio-sanitariora bidali, familiarekin harremanetan jarri eta berehalako laguntza psikologikoa eman.
- **Etengabeko arreta**. Biktimari salaketaren izapideei buruzko informazioa ematen diote etengabe. Jasandako ekintzaren ondorioz izandako bilakaera sozio-emozionala aztertzen da, eta dagokion zerbitzura bidaltzen da biktima, baina betiere Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari dagokio kasuaren jarraipena egitea. Gainera, beste zerbitzu batzuk ere ematen dira: laguntza psikologikoa, gizarte-laguntza zerbitzuetara bidaltzea, eta epaiketetara eta aitortzetara laguntzea.
- **Gizarte-ingurunean lagundu**, erakundeen arteko elkarlanaren bitartez. Helburua da biktimaren segurtasun-falta eta isolamendua murriztea, eta, bizi izandako egoeraz baliatuz, ingurunearekiko harremanak hobetzea: familia, bizilagunak, eta abar.
- **Babes-agindua duten biktimei lagundu**: organo judizialen eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioan lagundu, biktimaren beharrak ezagutu, epaitegiari informazioa eman etengabe.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuek **1/2004 Lege Organikoan** zehaztutako eskubideak bermatzen dituzte: **18.1 artikulua** xedatzen du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek badutela informazio-eskubidea; **19.2 artikulua**, berriz, jakinarazten du arreta integralak diziplinartekoa izan behar duela: informazio juridikoa, arreta psikologikoa, gizarte-laguntza, eta abar.

Gainera, Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak, orain arte, **babes-aginduen koordinazio-zentro** izan dira, *etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio-protokoloak* xedatu bezala. Koordinazio-zentro horiek Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen egoitzetan daude, eta egoitza horietan ohiko zerbitzuak ematen jarraitzen dute: orientabide juridikoa, psikologikoa eta soziala eman delituen biktimei, eta, batez ere, 35/1995 Legean xedatzen diren indarkeria-delituen eta sexu-erasoen biktimentzako laguntzei buruzko informazioa eman.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Gobernu Kontseiluak 2003ko abenduaren 9an hartutako erabakiaren ostean, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen egoitzetan kokatu dira lurralde-koordinaziorako zentroak, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren alorrean jarduteko.

Zehazki, babes-aginduei dagokienez, koordinazio-zentroen edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen helburu nagusiak hauek dira:

- **Laguntza eta gizarte-babesa emateko neurriak koordinatzea.** Horretarako, jurisdikzio-organismoek emandako babes-aginduak jaso behar dituzte, eta berehala bidali eskuduntza duten erakundeetara, adostutako laguntzak bideratzeko.
- **Biktimari informazioa ematea, eta biktima gizarte-laguntza zerbitzuetara bidaltzea.** Biktimak koordinazio-zentroan edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan eskatutako laguntzen arabera, erakunde batera edo bestera bidali behar da agindua. Beraz, babes-agindu bat iristen denean, zerbitzua biktimarekin harremanetan jartzen da, eskura dituen laguntza eta gizarte-babesari buruzko informazioa emateko, eta haren beharrak ezagutzeko. Horren ostean, babes-agindua eskuduntza duten erakundeetara bidaltzen dute, biktimak eskatutako laguntzak bideratzearren.
- **Biktimari etengabe ematea inputatuaren prozesu-egoerari buruzko informazioa,** eta baita kautela-neurrien irismen eta iraunaldiari buruzkoa ere. Babes-agindua ematen duen epaitegiak idazkia bidali behar dio koordinazio-zentroari edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari; batetik, agindua eman dela jakinarazteko, eta, bestetik, inputatua zein prozesu-egoeratan dagoen azaltzeko, baita zigorra betetzen ari denean ere.
- **Estatistika egitea,** jasotako babes-aginduen kopurua eta hartu diren neurriak azalduz.

C- Abokatu-laguntza

Azkenik, abokatuak dira beste baliabide judizial bat. Abokatuak garrantzi berezia dute etxeko tratu txarren alorrean.

Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txanda aurrez aipatutako erakunde arteko akordioaren ("Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko hitzarmena", 2001eko urria)⁴ emaitza

⁴ Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak sustatua eta koordinatua, eta honako erakunde hauek sinatua: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Fiskaltza, hiru lurralde historikoetako Foru Aldundiak, Eudel-Euskadiko Udalen Elkarteak, Legelarien Euskal Kontseilua eta Medikuen Euskal Kontseilua.

da. Akordio hura garatzearren, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, eta Abokatuen Euskal Kontseiluak, hitzarmena sinatu zuten biktimentzako berehalako abokatu-laguntza jartzeko, 24 orduko txanden bitartez. Eusko Jaurlaritzak biktimentzako laguntza integrala eskatzen du hitzarmen horretan, eta abokatuei, berriz, berariazko prestakuntza eskatzen die; aldi berean, txandak ordaintzeko konpromisoa hartzen du. Dena den, abokatu-elkargoen berezitasunak direla eta, elkargo bakoitzari dagokio berariazko txanda hori antolatzea, bere barne-araudiaren arabera.

Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko Lege Organikoaren 20. artikulua garatzeko, abenduaren 2ko **1455/2005 Errege Dekretuak** aldaketak ezarri zituen doako laguntza juridikoaren erregelamenduan: ofiziozko abokatuak beren funtzioak modu eraginkor eta errealean betetzeko ardura hartu behar dute, prozedura amaitu arte; emakumeari abokatu-laguntza bermatu behar zaio, eskatzen duen unetik hasita; eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen defentsarako berariazko txandak antolatu behar dira, emakume horiei orientabide juridikoa, defentsa eta abokatu-laguntza ematearren.

2007ko otsailaren 26an, hitzarmen berria sinatu zuten Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, eta Abokatuen Euskal Kontseiluak. Hitzarmen berriak hobekuntzak erantsi dizkio etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko ofiziozko txanda ezartzearen 2002an sinatu zuten dokumentuari.

Lehenengo hitzarmenean, laguntza juridikoa hamabi abokaturen esku uztea adostu zuten. Akordio berrian, berriz, abokatuen etengabeko prestakuntza bermatzeaz gain, beste hiru abokatu jartzea adostu dute. Guztira, hamabost abokatu izango dira (zortzi titular txandak egiteko, eta beste zazpi zerbitzua indartzeko): hiru Araban, zazpi Bizkaian eta bost Gipuzkoan.

Akordioak adierazten du doan izango direla 24 orduko txandetan egiten diren eginbide polizial eta judizial guztiak, baita epaiketa azkarra ere, txanda-epean edo ondorengo egunetan egiten bada.

Zerbitzu horren bidez, genero-indarkeriaren biktimen eskubidea betetzen da: laguntza juridiko espezializatua eta berehalakoa –baita doakoa ere, auzitan jarduteko dirurik ez dutenentzat– genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko legean zehaztutako indarkeriarekin, zuzenean edo zeharka, zerikusia duten prozesu eta administrazio-prozedura guztietan.

Txanda horren bidez, arreta ematen zaie familiaren baitan, senar-emazteen artean, elkarrekin bizi diren bikoteetan –edo bikotea hautsi denean– tratu txar fisikoak, psikikoak edo hitzezkoak, edota sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei.

Txanda horretan parte hartzea borondatezkoa da. Parte hartzeko, ezinbestekoa da **1997ko ekainaren 3ko Ministerio Aginduan** zehaztutako baldintzak betetzea eta atxilotuari laguntza emateko txandan alta emanda egotea, baita familiakoan eta penalekoan ere. Txandan sartzeko, gainera, gutxienez gaiari buruzko ikastaro bat egin behar da, eta dagoeneko zerbitzuan daudenek etengabeko prestakuntzan parte hartu behar dute, EAEko elkargo bakoitzean antolatzen diren urteroko ikastaroen bidez.

Etxeko indarkeria eta sexu-erasoen berariazko txanda baliabide profesionala da, biktimei beharrezkoa duten laguntza emateko: aholkularitza legala, informazio juridikoa, polizia-etxera joateko laguntza, salaketaren izapidea egiteko eta babes-agindua eskatzeko laguntza, eta ondorengo prozesuetan biktimaren izenean parte hartzea.

Abokatutza lanbide liberala da, abokatuek dihardute zeregin horretan, eta lurralde bakoitzeko abokatu-elkargoa arduratzen da antolaketa korporatiboaz. Berariazko txandaren finantziazio publikoaren ondorioz, kolektibo hori emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko ahalegin publikoaren sisteman sartzen da. Abokatu-laguntzaren zeregin profesionala indarkeriaren biktima den emakumearen banakako interesak defendatzea da, baina, aldi berean, jarduerak berezko izaera du, gizarteak gaitzesten dituen erasoak jasaten dituzten biktimak defendatzea baitu helburu.

Abokatu-laguntzak zuzenbidezko estatua bermatzen du, hiritarren eskubideak babesten ditu boterearen aurrean, eta banakako pertsona horien interes partikularrak defendatzen ditu.

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima direnei laguntza emateko berariazko txandan aritzearen ondorioz, beste rol sozial bat hartzen dute abokatuek, pertsona jakin batzuen defentsaz arduratzeaz gain, beste helburu batzuk dituztelako: balio eta printzipio konstituzionaletan oinarritutako justizia soziala eta gizarte-eraldaketa.

II.2. Emakumeen aurkako etxeko tratu txarrak Euskal Autonomia Erkidegoan eta estatuan

Estatistikek oso datu adierazgarriak ematen dituzte baliabideen premia ulertzeko, bai kantitatearen aldetik, eta baita kalitatearen aldetik ere. Urte hauetan estatistikak lantzeko modua aldatu denez, zaila da konparatzea; baina, hala ere, emaitza batzuek fenomenoaren joera orokorra zein den adierazten dute. Aipatzekoa da, azkenik, “genero-indarkeria” epigrafepean biltzen direla gizon batek emakume bati egindako erasoak, bikotearen baitan, edota bikotekide ohien artean; “etxeko indarkeria” epigrafepean, berriz, familiaren baitan gertatutako beste erasoak sartzen dira.

1/2004 Lege Organikoaren aplikazioa estatuan: bi urtetako bilakaeraren balantzea (2005eko ekaina – 2007ko ekaina)

Legea erabat indarrean jarri zutenetik, 306.682 prozedura penal eta 24.634 prozedura zibil hasi dituzte emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegietan.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ALORREKO EPAITEGIETAN HASITAKO PROZEDURA PENALEN KOPURU OSOA (hiruhilekotan)

2005-III	2005-IV	2006-I	2006-II	2006-III	2006-IV	2007-I	2007-II	GUZTIRA
034.477	35.732	35.704	37.265	41.144	41.729	41.267	39.364	306.682

Epe horretan, estatuan, 71.381 babes-agindu eskatu dituzte eta, haietatik, %75,5 onartu dituzte (53.994). EAEn onartu dituzten babes-aginduen ehunekoa txikiagoa da (%67).

BABES-AGINDUAK (2005eko HIRUGARREN HIRUHILEKOTIK 2007ko BIGARREN HIRUHILEKORA ARTE)

	Hasitakoak	Onartutakoak	Ukatutakoak	Ebatzi gabe azken hiruhilekoaren amaieran
Andaluzia	11.186	9.109	1.956	54
Aragoi	1.701	1.435	263	3
Asturias	1.426	954	459	0
Balearrak	2.132	1.533	501	64
Errioxa	388	346	42	0
Euskadi	2.269	1.513 (67%)	708	45
Extremadura	1.312	901	374	21
Galizia	2.816	2.230	543	43
Gaztela eta Leon	2.820	2.281	501	33
Gaztela-Mantxa	2.917	2.478	416	23
Kanariak	5.853	4.365	1.388	0
Kantabria	734	561	171	0
Katalunia	12.359	8.592	3.516	122
Madril	10.410	7.104	3.168	134
Murtzia	3.456	2.840	563	0
Nafarroa	690	568	120	2
Valentzia	8.912	7.184	1.579	34
ESTATUAN	71.381	53.994 (76%)	16.268	578

Atzerriko emakumeei gero eta babes-agindu behiago ematen dizkiete: 2007an, babes-agindu guztien %35 (bost puntu igo da bi urtetan).

ATZERRIKO BIKTIMEN EHUNEKOA BABES-AGINDUETAN

2005-III	2005-IV	2006-I	2006-II	2006-III	2006-IV	2007-I	2007-II
%30,2	%29,4	%30,3	%31,9	%32,3	%31,1	%32,4	%35,3

Atzerriko inputatuen portzentajea ere %30etik %35era igo da.

ATZERRIKO INPUTATUEN EHUNEKOA BABES-AGINDUETAN

2005-III	2005-IV	2006-I	2006-II	2006-III	2006-IV	2007-I	2007-II
%30,2	%29,3	%30,0	%31,9	%32,1	%31,6	%32,6	%35,4

Epe horretan, epaileek tratu txarren alorreko 56.000 kasu artxibatu dituzte behin-behinean. Emakumeen %11 inguruk salaketa kentzen dute, beldurragatik edo mendekotasun emozionalagatik, edota ez dute senarraren aurka deklaritzen, Prozedura Kriminalaren Legean onartzen den lekapearen babesean. Emakume horien testigantza da, sarritan, kargua egozteko froga bakarra, eta, testigantza hori gabe, akusazioak ez du aurrera egiten.

2007an JASOTAKO SALAKETAK⁵

SALAKETAK GUZTIRA	Biktimek aurkeztutakoak ⁶	Familiartekoek aurkeztutakoak	Atestatu polizialak ⁷	Lesio-agiriak	Laguntza-zerbitzuak Bitartekoak
126.293	14.166	463	97.637	13.321	706
	%11,22	%0,37	%77,31	%10,55	%0,56

PROZESUARI UKO EGITEAK (2007)

PROZESUARI UKO EGITEAK	UKO EGITEAK/SALAKETAK (RATIOA) ⁸
12.705	%10,06

⁵ Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegietak (40 epaitegi urte hasieran, eta 54 epaitegi ekainaren 30etik aurrera) eta alor horretako nahiz beste alorretako auziak dituzten epaitegietak (410 epaitegi) datuak.

⁶ Epaitegian zuzenean aurkeztutakoak.

⁷ Kontuan hartu dira biktimek aurkeztutako salaketengatik hasitako prozedurak (83.601), familiartekoek aurkeztutako salaketengatik hasitakoak (964) eta poliziaren esku hartze zuzenagatik hasitakoak (13.072).

⁸ Biktimek salaketen bideratze-prozesuan dituzten jarrerak islatzen dira datuetan, baina jarrera horiek ez dute eraginik salaketa ikertzeko eginbidean.

EAEko egoerari buruzko datuak

2007ko salaketei buruzko datuak aztertuz, EAEko egoera honako hau da: 3.444 salaketa jaso dira, kopuru horren ia erdia Bizkaian. Salaketen ehuneko handienak hiriburuetan egiten dira (EAEko salaketa guztien %61). Salaketa jarri arren, biktimen %12k uko egiten diote prozesuari. Uko-egite gehienak Gipuzkoan izan dira (%40), batez ere Irungo auzitegi-barrutian (%28). Gehienbat hiriburuetan uko egin diote prozesuari (uko-egite guztien %64).

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko salaketak (2007)

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

	Jasotako salaketak	Jasotako salaketak (%)	Jasotako salaketak (lurralde historik.%)	Prozesuari uko egiteak	Prozesuari uko egiteak (lurralde historik.%)	Uko-egiteak/ Salaketak (ratioa)
AMURRIO	39	%1	%21	6	%24	%15
GASTEIZ	691	%20		90		%13
TOLOSA	132	%4	%30	7	%40	%5
AZPEITIA	41	%1		6		%15
BERGARA	70	%2		12		%17
EIBAR	53	%2		11		%21
DONOSTIA	677	%20		107		%16
IRUN	65	%2		18		%28
DURANGO	90	%3	%49	0	%36	%0
BARAKALDO	351	%10		51		%15
GERNIKA-LUMO	100	%3		8		%8
BILBO	734	%21		63		%9
BALMASEDA	57	%2		0		%0
GETXO	344	%10		25		%7
GUZTIRA/ BATEZ BESTE	3.444	%100		404		%12
EHUNEKOAK	%100					

Biktimen jatorriari dagokionez, 2006ko babes-aginduen datuek adierazten dute atzerriko emakumeek egin dituztela eskaeren %23. 2006an eskatutako babes-aginduen %60 baino gehiago Bizkaian eskatu dituzte. Hiru hiriburuetan eta Barakaldon eskatutako babes-neurriak batuz gero, eskaeren %70 osatzen dute.

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko salaketak (2007)

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

	Jasotako salaketak	Biktimek zuzenean aurkeztutakoak	Familiartekoek zuzenean aurkeztutakoak	Atestatu polizialak			Lesio-agiriak	Laguntza-zerbitzuak Bitartekoak oro har	Prozesuari uko egiteak	Uko-egiteak/ Salaketak (ratioa)
				Biktimek salatuta	Familiartekoek salatuta	Poliziaren esku-hartze zuzena				
AMURRIO	39	13	0	19	0	7	0	0	6	%15
GASTEIZ	691	87	5	462	12	60	26	39	90	%13
TOLOSA	132	0	0	132	0	0	0	0	7	%5
AZPEITIA	41	0	0	41	0	0	0	0	6	%15
BERGARA	70	5	0	54	0	4	5	2	12	%17
EIBAR	53	10	0	31	1	11	0	0	11	%21
DONOSTIA	677	43	1	473	13	34	66	47	107	%16
IRUN	65	17	0	37	2	8	1	0	18	%28
DURANGO	90	9	2	56	9	11	2	1	0	%0
BARAKALDO	351	13	3	283	10	17	25	0	51	%15
GERNIKA-LUMO	100	0	0	94	0	6	0	0	8	%8
BILBO	734	51	2	477	2	103	99	0	63	%9
BALMAEDA	57	0	0	57	0	0	0	0	0	%0
GETXO	344	53	0	225	0	53	13	0	25	%7
GUZTIRA/ BATEZ BESTE	3.444	301	13	2.441	49	314	237	89	404	%12
EHUNEKOAK	%100	%9	%0	%71	%1	%9	%7	%3		

Babes-aginduak (2006). Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

	Jasotako salaketak	Babes-aginduak (%)	Babes-aginduak (lurralde historik.%)	Biktima: Emakume espainiarra, adinduna	Biktima: Emakume espainiarra, adingabea	Biktima: Atzerriko emakumea, adinduna	Biktima: Atzerriko emakumea, adingabea
AMURRIO	15	%1	%10	13	0	2	0
GASTEIZ	96	%9		71	3	22	0
TOLOSA	40	%4	%29	30	0	10	0
AZPEITIA	18	%2		10	1	7	0
BERGARA	24	%2		17	0	7	0
EIBAR	22	%2		13	0	9	0
DONOSTIA	190	%17		132	2	56	0
IRUN	33	%3		26	0	7	0
DURANGO	47	%4	%61	39	0	8	0
BARAKALDO	257	%23		218	5	34	0
GERNIKA-LUMO	39	%4		26	0	13	0
BILBO	234	%21		166	0	46	22
BALMAEDA	11	%1		9	0	2	0
GETXO	84	%8		55	0	29	0
GUZTIRA/ BATEZ BESTE	1.110	%100		825	11	252	22
EHUNEKOAK	%100			%74	%1	%23	%2

EAEn babes-aginduen eta hasitako prozesu penalen kopuruek izan duten bilakaerak adierazten du gero eta auzi gehiago dagoela dagokigun alorrean. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak 2005eko ekainaren 29an jarri zituzten indarrean, eta, horrenbestez, 2005eko datuak ez dira hain adierazgarriak. Horregatik, 2006tik 2007ra bitarteko eboluzioari erreparatu diogu: prozesu penal gehiago hasi (%13 gehiago) eta babes-agindu gehiago eskatu dituzte (%8 gehiago).

Babes-aginduak. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

	Hasitakoak	Igoera (%)	Ebatzitakoak	Ukatutakoak	Ebatzi gabe
2005	593		437	153	0
2006	1.110	%87	725	374	11
2007	1.200	%8	783	394	79
GUZTIRA/ BATEZ BESTE	2.903		1.945	921	90
EHUNEKOAK			%67	%32	%3

Hasitako prozesu penalak eta eskatutako babes-aginduak (bilakaera).

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

	Hasitako prozesu penalak	Babes-aginduak
2005	1.958	593
2006	4.606	1.110
2007	5.215	1.200
GUZTIRA/ IGOERA 2006tik 2007ra (%)	11.779 (13%)	2.903 (8%)

III. ATALA – BALIABIDEEN AHALMENA

III.1. ERAGILE JURIDIKOAK

A- Eragile juridikoek emandako zerbitzuak

A.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak

EAEn, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko lau epaitegi daude gaur egun: bat Gasteizen, beste bat Donostian, eta bi Bilboko auzitegi-barrutian. Bilboko 2. epaitegia 2007. urtearen hasieran ireki zuten, prozesu asko eta asko abiarazi baitzituzten emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko Bilboko epaitegian (1.765 kasu 2006an); prozesuak egoki bideratzearen, beste epaitegi bat sortzea erabaki zuten. Ebaluazio honek 2006ko jardura du aztergai, eta epe horretan emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko hiru epaitegietan –hirurak ere 2005ean abian jarriak– izandako jardueraren berri ematen dute datuek.

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak 2005eko ekainaren 29an jarri ziren abian, genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriak ezartzen dituen 1/2004 Lege Organikoa indarrean jartzearen ondorioz.

Lege horrek agintzen du *auzitegi-barruti bakoitzean **emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegi** bat edo gehiago egon behar duela. Epaitegi hori auzitegi-barrutiko hiriburuan egongo da, eta jurisdikzioa izango du bere lurralde-eremu osoan. Auzitegi-barrutian lan-karga handia dagoenean, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak eratu daitezke*. Ohiz kanpoko kasuetan, probintzia bereko bi barruti edo gehiagotan jurisdikzioa duen emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegia egotea onartuko da.

Lan-karga gutxi duten auzitegi-barrutietan beste epaitegirik irekitzeko premiarik ez dagoela iritziz gero, **emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegi bihurtu daitezke** jardunean ari diren instrukzio-epaitegi, eta lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegi jakin batzuk.

Halaber, lan-karga eskasa duten auzitegi-barrutietan berariazko organo judiziala sortzeko premiarik ez dagoela iritziz gero, erabaki behar da (auzitegi-barrutian epaitegi bat baino gehiago dagoenean) zein instrukzio-epaitegi edota lehen auzialdiko eta instrukzioko zein epaitegi arduratuko den emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko

auzi guztiak aztertzeaz, jurisdikzio penal edo zibileko beste auziak ere aztertzen dituen aldi berean. Epaitegi horiei **epaitegi bateragarriak** esaten zaie.

A.2. Eragile juridikoen jarduera

Justiziak estatuan bizi duen egoerari buruz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ikuskaritza-zerbitzuak egindako azterlanean ageri diren jarduera-datuak (2006) EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegietan 2006an aztertutako auzien berri ematen dute: EAEn, 3.263 auzi penal eta 420 auzi zibil hasi dituzte. Auzi penalen %81,3 eta auzi zibilen %77,6 ebatzi dituzte, eta, urte amaieran, 610 auzi penal eta 94 auzi zibil geratu dira ebatzi gabe. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko EAEko epaitegietako epaileek 2,4 hilabete behar dute, batez beste, auzi penalak ebazteko. Auzi zibilen kasuan, berriz, ia bi halako behar dute (batez beste 4,2 hilabete). Taula honetan laburbildu dira datuak:

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegien jarduera EAEn (2006)

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak EAEn	Hasitako auziak	Urte amaieran ebatzi gabe geratutakoak	Ebazteko batez besteko epea* *Hilabeteak.	Ebatzitako auziak (%)
Penalak	3.263	610	2,4	%81,3
Zibilak	420	94	4,2	%77,6

Justiziak estatuan bizi duen egoerari buruz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ikuskaritza-zerbitzuak egindako azterketaren datuekin (2006) egindako taula.

Lurraldeei erreparatuz, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko Bilboko epaitegian luzatu dira batez ere auziak, bai auzi zibilak, bai auzi penalak; eta, auzi zibilen kasuan, batez beste, sei hilabete baino gehiago behar izan dituzte auziak ebazteko. Auzi penalei dagokienez, Gasteizko epaitegiak ebatzi du auzien ehuneko handiena 2006an (%84,3), eta Donostiako epaitegia da azkarrena, hilabetea baino zertxobait luzeagoa baita kasuak ebazteko batez beste behar duen denbora. Auzi zibiletan ere, Donostiako epaitegia da azkarrena, eta han ebatzi da auzi zibilen proportziorik handiena.

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegien jardura EAEn (2006)

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak EAEn		Ebatzitako auziak	Urte amaieran ebatzi gabe geratutakoak	Ebazteko batez besteko epea* *Hilabeteak.	Ebatzitako auziak (%)
Gasteizko epaitegia	Penalak	665	123	2,03	%84,3
	Zibilak	69	21	3,35	%76,6
Bilboko epaitegia	Penalak	1.149	377	3,61	%75,3
	Zibilak	94	57	6,67	%60,6
Donostiako epaitegia	Penalak	839	110	1,44	%62,2
	Zibilak	66	16	2,67	%80,5
Guztira	Penalak	2.653	610	2,36	%81,3
	Zibilak	326	94	4,23	%77,6

Justiziak estatuan bizi duen egoerari buruz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ikuskaritza-zerbitzuak egindako azterketaren datuekin (2006) egindako taula.

Ondorengo taulan ikusten da EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegien jardura estatuko epaitegiarena baino hobea dela, bai auziak ebazteko batez beste behar izan den denboragatik, bai ebatzitako auzien proportzioagatik.

Alderaketa: Ebazpenak EAEn eta estatuan (2006)

		Ebazteko batez besteko epea	Ebatzitako auziak (%)
EAEko berariazko epaitegiak	Penalak	2,36	%84,3
	Zibilak	4,23	%76,6
Estatuko berariazko epaitegiak*	Penalak	3,17	%79,2
	Zibilak	7,68	%60,7

*2006an emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko jardunean ari ziren estatuko epaitegi guztiei buruzko datu orokorrak.

Justiziak estatuan bizi duen egoerari buruz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ikuskaritza-zerbitzuak egindako azterketaren datuekin (2006) egindako taula.

Ondorengo taulan ageri dira EAEko auzitegi-barrutietan emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko prozesu guztiak (esklusiboki edota beste alorretako auziekin batera) aztertzen dituzten epaitegietan hasitako prozesuei buruzko datuak. Amurrioko, Irungo eta Barakaldoko epaitegiak dira probintzia bakoitzean kasu gehien aztertzen duten auzitegi bateragarriak.

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko EAEko epaitegietan hasitako auziak (2006)

	Emakumeen aurkako indarkeria (PENALA)	Emakumeen aurkako indarkeria (ZIBILA)
Amurrio	39	8
ARABA	39	8
Tolosa	112	5
Azpeitia	23	3
Bergara	76	13
Eibar	52	0
Irun	163	15
GIPUZKOA	426	36
Durango	91	5
Barakaldo	619	62
Gernika	88	20
Balmaseda	33	0
Getxo	214	4
BIZKAIA	1.045	91
GUZTIRA	1.510	135

Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak emandako datuekin egindako taula.

Epaitegi bateragarriek eta berriazko epaitegiek aztertu dituzten auziei erreparatuz, auzitegi bateragarrietan aztertu dituzte emakumeen aurkako indarkeria kasuen %30,9.

Jarduera-banaketa EAEko epaitegi mota ezberdinen arabera (2006)

	EAE	Berriazkoak	Bateragarriak
Penalak	4.773	%68,36	%31,64
Zibilak	555	%75,68	%24,32
Guztira	5.328	%69,13	%30,87

Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak emandako datuekin egindako taula.

A.3. Zerbitzu judizialen eta baliabide materialen mapa

Ondorengo tauletan, epaitegi bakoitzaren zerbitzu judizialak eta baliabide materialak zehaztu dira. Lehenik, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko berariazko epaitegiei buruzko informazioa ageri da, eta, horren ondoren, emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean eskuduntza duten epaitegi bateragarriei buruzko xehetasunak (lurralde historikoen arabera banatuta). Epaitegi bateragarrietan zerbitzu judizialen eta baliabide materialen eskasia dagoela adierazten dute informazio horiek. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko berariazko epaitegiak hobeto hornituta daude, eta badituzte beharrezko zerbitzu guztiak (salbu genero-indarkeriaren biktima edo lekukoentzako berariazko itxarote-gela eta etxeko tratu txarren biktimantzako aparteko sarbidea).

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko berariazko epaitegiak

	Gasteizko epaitegia	Bilboko epaitegia	Donostiako epaitegia
Biktimari arreta emateko bulegoa	√	√	√
Orientabide juridikoko zerbitzua	√	√	√
Prokuradorei jakinarazteko zerbitzua	√	√	√
Idazkiak eta dokumentuak lekualdatzeko zerbitzua	√	√	√
Fiskaltza: Adskripzio iraunkorra, egoitza udalerrian bertan	√	√	√
Genero-indarkeriaren biktimei abokatu-laguntza emateko berariazko txanda	√	√	√
Genero-indarkeriaren alorreko delituak leporatzen zaizkien inputatuei abokatu-laguntza emateko berariazko txanda	√	√	√
Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE)	√	√	√
Ondasunak ikertzeko bulegoa egoitza judizialean	√	√	√
Peritutz-bulegoa	√	√	√
Interprete-zerbitzua	√	√	√
Talde psikosozialak egoitza judizialean	√	√	√
Familiak biltzeko guneak auzitegi-barrutian	√	√	√
Lekuko babestuentzako itxarote-gela	√	✗	✗
Genero-indarkeriaren biktima edo lekukoentzako berariazko itxarote-gela	✗	✗	✗
Bideokonferentzia-sistema	√	√	√
Epaiketa-aretoak	√	√	√
Genero-indarkeriaren biktimantzako aparteko sarbidea	✗	✗	✗
Prozesu-kudeaketarako aplikazio informatikoa: bulego judiziala	√	√	√
Artxibo judizialak	√	√	√

Justiziak estatuan bizi duen egoerari buruz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ikuskaritza-zerbitzuak egindako azterketan (2006) adierazitako datuekin egindako taula.

Epaitegi bateragarriak: Araba

	Amurrio
Biktimari arretea emateko bulegoa	✗
Orientabideo juridikoko zerbitzua	✗
Prokuradoreei jakinarazteko zerbitzua	✓
Idazkiak eta dokumentuak lekualdatzeko zerbitzua	✓
Fiskaltza: Adskripzio iraunkorra, egoitza udalerrian bertan	✗
Genero-indarkeriaren biktimei abokatu-laguntza emateko berariazko txanda	✓
Genero-indarkeriaren alorreko delituak leporatzen zaizkien inputatuei abokatu-laguntza emateko berariazko txanda	✗
Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE)	✗
Ondasunak ikertzeko bulegoa egoitza judizialean	✗
Peritutzak-bulegoa	✗
Interprete-zerbitzua	✗
Talde psikosozialak egoitza judizialean	✗
Familiak biltzeko guneak auzitegi-barrutian	✗
Lekuko babestuentzako itxarote-gela	✗
Genero-indarkeriaren biktimei edo lekukoentzako berariazko itxarote-gela	✗
Bideokonferentzia-sistema	✓
Epaiketa-aretoak	✓
Genero-indarkeriaren biktimentzako aparteko sarbidea	✗
Prozesu-kudeaketarako aplikazio informatikoa: bulego judiziala	✓
Artxibo judizialak	✓

Justiziak estatuan bizi duen egoerari buruz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ikuskaritza-zerbitzuak egindako azterketan (2006) adierazitako datuekin egindako taula.

Epaitegi bateragarriak: Bizkaia

	Balmaseda	Barakaldo	Durango	Gernika	Getxo
Biktimari arretea emateko bulegoa	✗	✓	✗	✗	✗
Orientabide juridikoko zerbitzua	✗	✗	✗	✗	✗
Prokuradoreei jakinarazteko zerbitzua	✗	✓	✓	✓	✓
Idazkiak eta dokumentuak lekualdatzeko zerbitzua	✗	✓	✓	✓	✗
Fiskaltza: Adskripzio iraunkorra, egoitza udalerrian bertan	✗	✓	✗	✗	✗
Genero-indarkeriaren biktimei abokatu-laguntza emateko berariazko txanda	✗	✗	✗	✗	✗
Genero-indarkeriaren alorreko delituak leporatzen zaizkien inputatuei abokatu-laguntza emateko berariazko txanda	✗	✗	✗	✗	✗
Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE) eraturik	✗	✗	✗	✗	✗
Ondasunak ikertzeko bulegoa egoitza judizialean	✗	✗	✗	✗	✗
Peritutz-bulegoa	✗	✗	✗	✗	✗
Interprete-zerbitzua	✗	✓	✗	✗	✗
Talde psikosozialak egoitza judizialean	✗	✓	✗	✗	✗
Familiak biltzeko guneak auzitegi-barrutian	✗	✓	✗	✗	✗
Lekuko babestuentzako itxarote-gela	✗	✓	✗	✗	✗
Genero-indarkeriaren biktime edo lekukoentzako berariazko itxarote-gela	✗	✗	✗	✗	✗
Bideokonferentzia-sistema	✓	✓	✓	✓	✓
Epaiketa-aretoak	✓	✓	✓	✓	✓
Genero-indarkeriaren biktimentzako aparteko sarbidea	✗	✗	✗	✗	✗
Prozesu-kudeaketarako aplikazio informatikoa: bulego judiziala	✓	✓	✓	✓	✓
Artxibo judizialak	✓	✓	✓	✓	✓

Justiziak estatuan bizi duen egoerari buruz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ikuskaritza-zerbitzuak egindako azterketan (2006) adierazitako datuekin egindako taula.

Epaitegi bateragarriak: Gipuzkoa

	Azpeitia	Bergara	Eibar	Irun	Tolosa
Biktimari arreta emateko bulegoa	✗	✗	✗	✗	✗
Orientabide juridikoko zerbitzua	✗	✗	✗	✗	✗
Prokuradoreei jakinarazteko zerbitzua	✓	✓	✓	✓	✓
Idazkiak eta dokumentuak lekualdatzeko zerbitzua	✓	✓	✓	✓	✓
Fiskaltza: Adskripzio iraunkorra, egoitza udalerrian bertan	✗	✗	✗	✗	✗
Genero-indarkeriaren biktimei abokatu-laguntza emateko berariazko txanda	✓	✓	✓	✓	✓
Genero-indarkeriaren alorreko delituak leporatzen zaizkien inputatuei abokatu-laguntza emateko berariazko txanda	✗	✗	✗	✗	✗
Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE) eraturik	✗	✗	✗	✗	✗
Ondasunak ikertzeko bulegoa egoitza judizialean	✗	✗	✗	✗	✗
Peritutzak-bulegoa	✗	✗	✗	✗	✗
Interprete-zerbitzua	✗	✗	✗	✗	✗
Talde psikosozialak egoitza judizialean	✗	✗	✗	✗	✗
Familiak biltzeko guneak auzitegi-barrutian	✗	✗	✗	✓	✗
Lekuko babestuentzako itxarote-gela	✗	✗	✓	✗	✗
Genero-indarkeriaren biktimei edo lekukoentzako berariazko itxarote-gela	✗	✗	✓	✗	✗
Bideokonferentzia-sistema	✓	✓	✓	✓	✓
Epaiketa-aretoak	✓	✓	✓	✓	✓
Genero-indarkeriaren biktimentzako aparteko sarbidea	✗	✗	✗	✗	✗
Prozesu-kudeaketarako aplikazio informatikoa: bulego judiziala	✓	✓	✓	✓	✓
Artxibo judizialak	✓	✓	✓	✓	✓

Justiziak estatuan bizi duen egoerari buruz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ikuskaritza-zerbitzuak egindako azterketan (2006) adierazitako datuekin egindako taula.

III.2. ABOKATU-LAGUNTZA

A.- Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandaren bidezko abokatu-laguntza

Abokatuen Euskal Kontseiluak bermatzen du, EAEko hiru abokatu-elkargoen bidez, premiazko laguntza juridikoa doan izatea, bai atxiloketa-zentroetan, bai guardiako epaitegietan, salaketa jartzeko eta babes-agindua eskatzeko. Ondorengo prozedura judizialak (etxeko tratu txarren edota sexu-erasoen ondorioz egiten diren epaiketa azkarrak) aurrera eramateko ere abokatu-laguntza ematen du Abokatuen Euskal Kontseiluak.

Guardiako abokatuek, biktimari laguntza eta babes legal osoa ematea bermatzearren, prestasun osoa izan behar dute, eta erraz aurkitzeko moduan izan. Horretarako, dagokion abokatu-elkargoak emandako telefono mugikorra erabili behar dute.

Nabarmendu behar da laguntza juridiko espezializatua doakoa dela, eta hainbat zerbitzu ematen dituela: aldez aurreko aholkularitza (aurrez aurre), salaketa egiteko laguntza eta babes-agindua eskatzeko nahiz epaiketa azkarra egiteko agerraldiak. Ondorengo beste laguntza juridikoetan (epaiketa penalak, banantzeko edo dibortziazteko izapideak, eta abar) doako justizia nahi izanez gero, biktimak egiaztatu egin behar du baliabide ekonomikorik ez duela. Kasu horietan, dagokion elkargoak lehentasuna emango dio espedientearen izapideari, eta doako laguntza juridikoaren probintzia-batzordera bidaliko du ahalik eta azkarren. Elkargoak ahaleginak egingo ditu biktimaren eskubide hori onartu edo ukatuko duen ebazpena ahozko epaiketaren data baino lehenago eman dezaten.

Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandaz gain, Arabako Abokatuen Elkargoak EAEn aitzindari den laguntza- eta ikuskaritza-zerbitzua ere ematen du: biktimari laguntzeko zerbitzu integrala da, eta txanda berezian parte hartzen duten abokatuek eskaintzen dute zerbitzu hori, tratu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta koordinatua emateko.

Laguntza- eta ikuskaritza-zerbitzua ematen duen taldeak honako funtzio nagusi hauek betetzen ditu:

- Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandarekin koordinazio-lana egitea, eta etxeko tratu txarren alorreko guardiako abokatuekin elkarlanean aritzea.
- Biktimari aholkularitza juridiko espezializatua ematea, telefonoz edo aurrez aurre, auzi zibiletan eta penaletan. Prozedura juridikoen jarraipena egitea, eta biktimari laguntza ematea: salaketa jarri baino lehen hasi eta prozedura guztia amaitu arte. Informazioa ematea etxeko tratu txarren ofiziozko txandari buruz eta doako justiziaren onurari buruz.
- Tratu txarrak jasan dituzten biktimei beste zerbitzu espezializatueta jotzeko orientabidea ematea (gizarte-baliabideak, arreta sanitarioa eta poliziala, eta abar) eta zerbitzu horiekiko koordinazioaz arduratzea.
- Genero-indarkeriaren alorreko prozedurei buruzko informazioa zentralizatzea eta koordinatzea.
- Lan-txanda bakoitzean izandako auziei buruzko informazioa egunero biltzea, gero datu horiek aztertu eta estatistikak egiteko.
- Txostenak egitea, txosten horiek baitira erakundeen arteko komunikazio-bide nagusi.
- Epaitegiek eta auzitegiek emandako epaiei buruzko informazioa eta nabarmentzekoa den jurisprudenzia biltzea.
- Tratu txarren alorrean espezializatutako abokatuentzako ikastaroak eta etengabeko prestakuntza jardunaldiak antolatzea.

Horretaz gain, beste erakundeekiko koordinazioaz arduratzen dira, eta, kanpoko hainbat ekintzaren bidez, prebentzioa eta kontzientziazio soziala sustatzen dute:

- Inplikaturako erakundeekiko harreman iraunkorrak: fiskaltza, epaitegi dekanoa, biktimei laguntzeko zerbitzuak eta guardiako epaitegia.
- Zenbait erakunderekiko erlazioa eta koordinazioa: Gasteizko Udaleko oinarritzko zentroak eta larrialdietarako udal-zerbitzua, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.
- Polizia-erakundeekiko koordinazioa: Ertzaintza, Udaltzaingoa, Polizia Nazionalea, etab.
- Profesionalen elkargoekiko topaketak: psikologoak, gizarte-langileak, medikuak, eta abar.

B.- Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandako abokatu-laguntzaren jarduera

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2.181 esku-hartze izan dira 2004an (%190eko igoera 2003ko datuekin alderatuz gero). Etxeko tratu txarren biktimentzako babes-aginduak arautzen dituen 27/2003 Legea da igoera horren arrazoi nagusietako bat. Legealdaketaren eraginez, 2004ko uztailan erreformatu egin behar izan zuten 2003an jarritako zerbitzua, orduan zituzten baliabideak urriegiak baitziren zerbitzu eraginkorra emateko. Beraz, zerbitzua berrantolatu egin zuten lurralde historiko bakoitzean: guardiako abokatuen kopurua handitu eta zerbitzua hiritarrengana hurbildu zuten, eta zerbitzuak egoki funtzionatzeko aurrerapauso bat izan zen.

Abokatu-elkargoek, abokatuen berariazko txandaren bidez, hainbat emakumeri eman diete arreta 2005 eta 2006 urteetan:

Laguntza jaso duten emakumeak (2005-2006)

	2005	2006
Araba	418	329
Bizkaia	1.257	1.374
Gipuzkoa	734	824
GUZTIRA	2.409	2.527

Urte batetik bestera, %5 igo da esku-hartzeen kopurua. Nabarmentzekoa da emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko EAEko epaitegietan hasitako prozesuen %30ek abokatu pribatuen aholkularitza jaso dutela, eta ez etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandaren bidez ematen den ofiziozko abokatu-laguntza.

Doako laguntza juridikoa auzitegi-barrutien arabera eratuta dagoen arren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko berariazko txandaren bidez ematen den ofiziozko abokatu-laguntza eskualdeka antolatuta dago:

Txandako abokatu-laguntzaren egitura eta lurralde-antolaketa (2006)

Zerbitzua	Eskualdeak	Profesionalak
Araba	Gasteiz eta Amurrio	180
Bizkaia	Bilbo, Balmaseda, Getxo, Barakaldo, Durango eta Gernika	262
Gipuzkoa	Tolosa, Azpeitia, Bergara, Eibar, Donostia eta Irun	125

III.3. BALIABIDE JUDIZIALEN ETA ABOKATU-LAGUNTZAREN AHALMENARI BURUZKO BALORAZIOA

Baliabideen irismena ezagutzeko, erakunde bakoitzak bere eskuduntzako zereginei aurre egiteko duen ahalmena aztertu behar da, bai kantitatearen eta bai kalitatearen aldetik. Baliabide pertsonalak eta materialak kontuan hartu behar dira; hain zuzen, baliabide materialen artean daude azpiegiturak, ekipamendua, tresneria... eta baita finantza-baliabideak ere, haiei esker kontratatzen baitira zenbait lan egiteko kanpoko zerbitzuak.

Txosten hau egiteko, erakunde bakoitzak dituen langileak aztertu dira. Langile nahikoa ba ote dagoen esatea zaila da, kasu gehienetan ez baitira soilik etxeko tratu txarren alorrean aritzen. Ebaluazioa egiteko kontuan izan diren adierazleak honako hauek dira: datuen bilakaera, ebazpena emateko behar izaten den denboraren balorazioa, eta datuok estatuko batez besteko datuekin alderatzea (informazio horiek eskuratu ahal izan direnean).

Langileen espezializazioa eta etxeko tratu txarren alorreko berariazko prestakuntza aintzat hartu dira, baliabide pertsonalen kualifikazioaren adierazle gisa. Instalazioak eta baliabide materialak ebaluatzeko, berriz, honako alderdi hauek hartu dira kontuan: lurralde-antolaketa, irisgarritasun fisikoa bermatzea, itzultzaile-zerbitzuak eta bitartekotza interkulturalerako zerbitzuak izatea, komunikazioen pribatutasuna bermatzea eta adingabeentzat egokitutako itxarote-gelak izatea. Azkenik, zerbitzua azpikontratatu denean, kontratazio horretara bideratutako aurrekontuen zenbatekoa aintzat hartu da.

Baliabideen kalitatea ebaluatzeko, galdera-sortak erabili dira, eta elkarrizketa pertsonalak egin dira. Erabiltzaileen iritzia jaso dira, bai eta beste kolektibo batzuetan eta bitarteko zerbitzuetan parte hartzen duten pertsonena ere; izan ere, sistemaren elementu guztien egituratze- eta koordinatze-lanak baditu ondorioak pertsona horiengan, eta, azken batean, sistemak eragindako onurak edo kalteak ezagutzen dituzte.

BALIABIDE JUDIZIALEN ETA ABOKATU-LAGUNTZAREN ANALISIA

- a) Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak: epailetza eta fiskaltza
- b) Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE) eta Talde Psikosozial Judizialak (TPSJ)
- c) Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ)
- d) Etxeko tratu txarren alorreko berariazko txanda
- e) Balantze orokorra

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ALORREKO EPAITEGIAK: EPAILETZA ETA FISKALTZA

Langileei, jarduerari, itzulpen-zerbitzuari eta prestakuntzari buruzko datuak

LANGILEAK

Epaitegia	Titularrak	Idazk. judiziala	Kudeaketa prozesala	Izapide prozesala	Laguntza prozesala	Guztira
Araba	1	1	3	3	1	9
Bi	Bilbo ⁹	2	6	12	2	24
	Barakaldo ¹⁰	1	3	5	1	11
Gipuzkoa	1	1	3	4	1	10
GUZTIRA	5	5	15	24	5	54

Alderaketa: Ebazpenak EAEn eta estatuan (2006)

		Ebazteko batez besteko epea	Ebatzitako auziak (%)
EAEko epaitegiak	Penalak	2,36	%84,3
	Zibilak	4,23	%76,6
Estatuko epaitegiak*	Penalak	3,17	%79,2
	Zibilak	7,68	%60,7

LANGILEAK¹¹

FISKALTZA	Probintzia Fiskaltza	Fiskal-buruak	Fiskalburu-ordeak	Fiskalak	Abokatu fiskalak	Guztira
Araba	1	1	1	6	3	11
Bi	Bilbo	1	1	23	14	42
	Barakaldo			5	3	8
Gipuzkoa	1	1	1			27
Fiskal nagusia						1
GUZTIRA	3	3	3	34	20	89

Fiskaltzaren JARDUERA

Lurralde historikoa	2005	2006
Araba	314	543
Bizkaia	2.049	1.083
Gipuzkoa	1.373	2.305
Guztira	3.736	3.931

PRESTAKUNTZA (2006)

KOLEKTIBOA	IKAS-TAROA	PER-TSONAK
Epailetza eta fiskaltza	19	573
Justizia Administ. langileak	14	132
Fiskaltza (2005)	1	30

- Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko estatuko epaitegiekin alderatuta, EAEkoek (2005ean eratuak) ebazpen-proportzio handiagoa dute auzi penal nahiz zibiletan (%84 eta %77 EAEkoek, %79 eta %60 estatukoek), eta azkarrago ematen dituzte ebazpenak.
- Epaitzaren eraketa osatzeko dago. Fiskaltzak legea garatu du, eta pertsonal espezializatua izendatu.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak langileen errotazioa handia denez, arreta handia jarri behar da etengabeko prestakuntza bideetan.
- Fiskalek hiriburuetatik kanpo ere lan egiten dute, txandaka, eta, leku batetik baino gehiagotik aldi berean deitzen badiete, ezin dira agertu.

⁹ Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko bi epaitegi daude Bilbon.

¹⁰ Instrukzioko 4. epaitegia arduratzen da emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko auzi guztiak bideratzeaz.

¹¹ 1/2004 Lege Organikoaren 72. artikulua emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko izendatzeak arautzen ditu, zuzendaritza- eta koordinazio-lanak egiteko (alorreko auzietan bakarrik edo beste alorreko auziei buruzko ardurarekin bateratuz). Artikulu horretan xedatutakoari erantzunez, 2005ean, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko ataleko burutza hiru fiskal delegatu izendatu zituzten (probintzia-fiskaltza bakoitzerako bat).

AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL ERAKUNDEA ETA TALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALAK

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea: langileei eta jarduerari buruzko datuak						Talde Psikosozial Judizialak: langileak			
AMEE (Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea)						TPSJ (etxeko tratu txarren eta genero-indarkeriaren alorreko berariazko langileak)			
Lurralde historikoak	Psikiatria	Trauma	Patologia	Orokorra	Guztira	Lurralde h.	Psikologia	Gizarte-lana	Guztira
Araba	1	1	1	3	6	Araba	5	1	6
Bizkaia	1	2	2	9	14	Bizkaia	2 ¹²	0	2
Gipuzkoa	1	2	2	9	14	Gipuzkoa	2 ¹³	0	2
Guztira	3	5	5	21	34	Guztira	9	5	10
AMEEren jardura						Kontsulta arrunterako itxaron beharreko denbora (AMEE)			
Lurralde historikoak	2005	2006	2007			Lurralde h.	2005	2006	2007
Araba	230	271	289			Álava	21	20	23
Bizkaia	1.071	1.096	969			Bizkaia	22	23	24
Gipuzkoa	420	594	744			Gipuzkoa	20	20	22
Guztira	1.721	1.961	2.002			Batez beste	21	21	23
</									

¹² Bizkaian, TPSJk eta AMEEk espazio fisiko berean lan egiten dute; psikologoetako bat Bilboko epaitegietan egoten da, eta bestea, berriz, Barakaldoko epaitegietan.

¹³ Errefortzua behar izanez gero, beste bi psikologo ere badaude.

BLZ (BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK)

Langileei, jarduerari eta aurrekontuei buruzko datuak

Langileak

Lurralde h.	Admin.	Gizarte L	Juristak	Psikol.	Guztira
Araba	1	1	1	1	4
Bizkaia	1	2	1	3	6
Gipuzkoa	1	1	1	1	4
Guztira	3	4	3	5	14

BLZen jarduera

Lurralde h.	2005	2006
Araba	323	296
Bizkaia	618	787
Gipuzkoa	465	497
Guztira	1.406	1.580

Lagundutako kasuak (ebatzitako auzien %)

Urtea	%
2006	%36
2007	%35

Aurrekontuak

Urtea	Zenbatekoa
2005	456.200 €
2006	465.324 €
2007	479.284 €
2008	493.663 €

- Biktimari Laguntzeko Zerbitzuek EAEn ebatzen diren auzi penalen herena baino gehiagori ematen diete laguntza.
- Ematen duten zerbitzua borondatezkoa denez, ez zaie eskatzen tratu txarren biktima izan eta ebatzen judiziala edo babes-agindua duten emakume guztiei arreta ematea.
- Babes-aginduen koordinazio-lan guztiak eginkizun horretarako eratu den zentroak egiten ditu, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan denbora luzeagoz aritu daitezzen laguntza-lanetan.

ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-ERASOEN ALORREKO BERARIAZKO TXANDA

Langileei, jarduerari eta aurrekontuei buruzko datuak

Jarduera (2006)

Lurralde h.	2005	2006	2007
Araba	418	329	511
Bizkaia	1.257	1.374	1.675
Gipuzkoa	734	824	960
Guztira	2.409	2.527	3.146

Berariazko abokatu-txandaren antolaketa eta lurralde-egitura. 2007.

Lurralde h.	Eskualdeak	Abokatuak
Araba	Gasteiz eta Amurrio	180
Bizkaia	Bilbo, Balmaseda, Getxo, Barakaldo, Durango, Gernika	262
Gipuzkoa	Tolosa, Azpeitia, Bergara, Eibar, Donostia eta Irun	125
Guztira		567

Guardiako langileak

Lurralde h.	2006	2007
Araba	2	3
Bizkaia	6	7
Gipuzkoa	4	5
Guztira	12	15

Langile motak

Mota	2007
Titularrak	8
Errefortzukoak	7

Aurrekontuak – Laguntzaren kostua: 300 €

Kontzeptua	2006	2007 ¹⁴	2008 ¹⁵
EAEko aurrekontuaren zenbatekoa	432.692 €	590.400 €	2.184.112 €
Aurreikusitako esku-hartzeak ¹⁶	2.000	2.500	2.800
Benetako aurrekontua	432.692 €	675.000 €	983.293 €
--	%56	%46	

- Abokatuen Euskal Kontseiluaren eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren arteko hitzarmena berritu dute: aurrekontuak nabarmen handitu dira, eta arreta hobea eskaintzen dute.
- Urtero egiten dituzte prestakuntza-ikastaroak, 12 ordu edo gehiago irauten dutenak. Berariazko txandan sartzeko edo egoteko, ezinbestekoa da ikastaro horiek egitea.
- Sinatutako protokoloan hartutako konpromisoa da ordu eta erdi igaro baino lehen agertzea polizia-bulegoan, salaketa jartzen eta babes-agindua eskatzen laguntzeko.

¹⁴ 2007ko lehen sei hilekoan eta 2006ko bigarren sei hilekoan (EAEko aurrekontu orokorretan esleituak, 2007), 1.000.000 euroko aurrekontu mugarekin.

¹⁵ 2008ko lehen sei hilekoan eta 2007ko bigarren sei hilekoan (EAEko aurrekontu orokorretan esleituak, 2008).

¹⁶ Ekitaldi bakoitzeko memorietako aurrekontuetan zehaztuak.

BALANTZE OROKORRA

Jarduerari eta langileei buruzko datuak

Jarduera orokorra

	Ebatzitako auzi penalak	Eskatutako babes-aginduak	Emandako babes-aginduak	AMEE / TPSJ	BLZ	Txanda	Fiskaltza
2005	1.537	593	437	1.721	1.406	2.409	3.736
2006	4.433	1.110	725	1.961	1.580	2.527	3.931
2007	5.288	1.200	783	2.002	1.833		
GUZTIRA	11.258	2.903	1.945	5.684	4.818	4.936	7.667
Esku-hartzeak (ebatzitakoen %)				%51	%43	%44	%68

Langileak

	Epaitegi.	Fiskaltza	AMEE	TPSJ	BLZ	Txanda
ARABA	9	11	12	6	4	3
BIZKAIA	35	51	16	2	6	7
GIPUZKOA	10	27	16	2	4	5
GUZTIRA	54	88	44	10	14	15

- Etxeko tratu txarren eta genero-indarkeriaren alorreko jarduera hazten ari da; langile-kopurua, ordea, ez hainbeste, langile gehiago jartzeko ahaleginak, gehienetan, premiak sortu eta gero egiten baitira.
- Baliabideak, hala ere, nabarmen gehitu dira EAEn. 2005ean, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko hiru epaitegi eratu zituzten, eta, 2007an, beste bat (Bilboko 2. epaitegia). Barakaldon, berriz, epaitegi bateragarri bat jarri zuten emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko auziak eskusiboki aztertzeko. 2008an, Barakaldon eratuko da emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegi berria.
- Genero-indarkeria salatzen duten biktimen erdiak jotzen dute Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundera (%51), Biktimari Laguntzeko Zerbitzura (%43), eta etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen berariazko txandara (%44).
- Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegietan eta berariazko txandan jarduten duten langileen kopuruak gora egin du azken urtean.
- Zerbitzu gehienak gero eta espezializatuagoak dira, eta langileak berariazko prestakuntzaren bidez trebatzen dira. Hala ere, galdera-sortei emandako erantzunetan argi eta garbi adierazten da berariazko prestakuntza sendotzeko premia.
- Balorazio integralerako unitateak formalki eratzeko daude.

BALANTZE OROKORRA

Baliabideen alderaketa eta kalitate-adierazleak

Baliabide pertsonalak

	Udalaren zerbitzu juridikoak	AMEE / TPSJ	BLZ	Txanda	Fiskaltza	Epaiza
Espezializazioa	✓	X	✓	✓	✓	✓
Prestakuntza	X	✓	✓	✓	✓	X

- Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak eta Talde Psikosozial Judizialek balorazio integralerako unitateak eratzeko fasean dihardute elkarlanean.

Instalazioak

	Udalaren zerbitzu juridikoak	AMEE / TPSJ	BLZ	Txanda	Fiskaltza	Epaitegiak (JVSM)
Lurralde antolak.	X	X	X	✓	X	X
Irisgarritasuna	X	✓	✓	X	✓	✓
Itzulpen-zerbitzua	X	✓	✓	X	✓	✓
Bit. interkulturala	X	X	X	X	X	X
Pribatutasuna	✓	✓	✓	X		X
Adingabeentzako arreta	X	X	X	X		X

- Zerbitzuen instalazioak irisgarriak dira funtzionaltasuna mugatua duten pertsonentzat.
- Itzulpen-zerbitzuak eskura daude justizia-jauregietako bulegoetan, eskaintzen diren zerbitzu gehienetarako.
- Ez dago bitartekotza interkulturalaren alorreko zerbitzurik beste ezein kultura-inguruetako pertsonentzat.
- Elkarriketen pribatutasuna eta adingabeentzako leku egokiak ez dira beti bermatzen.
- Zerbitzuak ez dituzte berdin ematen leku guztietan. Zenbait zerbitzu lurralde historikoetako hiriburuetan bildu dituzte, eta, ondorioz, eskualdeetan txandakatu egiten dituzte.

BALIABIDEEN EBALUAZIO-TAULA			
ERAKUNDEA	ALDERDI POSITIBOAK		HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK
	LANGILEAK	AZPIEGITURAK	
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA		• Irisgarritasuna • Itzulpen-zerbitzua	• Bitartekotza interkulturala • Langileen errotazioa • Espezializazioa • Espazioak • Gardien antolaketa
EPAITZA			• Prestakuntza
FISKALTZA	• Espezializazioa eta gaiari buruzko ezagutza sakona	• Irisgarritasuna • Itzulpen-zerbitzua	• Guardiako txandetan hiriburuetatik kanpoko eskaerei ere erantzutea
AMEE		• Irisgarritasuna • Itzulpen-zerbitzua	• Balorazio integralerako unitateak sendotzea
TPSJ	• Langile espezializatuak	• Irisgarritasuna • Itzulpen-zerbitzua	• Prestakuntza
BLZ	• Langile espezializatu eta trebatuak	• Irisgarritasuna • Itzulpen-zerbitzua	• Berriazko prestakuntza migrazioaren alorrean
TXANDA	• Langile espezializatu eta trebatuak		• Itzulpen-zerbitzua (polizia-etxeetan edo epaitegietan ematen dituzten zerbitzuen osagarri) • Denbora antolatzea
UDALAREN ZERBITZU JURIDIKOAK	• Langile espezializatuak	• Pribatutasuna biktimekiko komunikazioan	• Zerbitzu homogeneoa lurralde guztian • Prestakuntza • Irisgarritasuna

V. KAPITULUA- ESKU-HARTZEAREN ERAGINKORTASUNAREN BALORAZIOA: EMAKUMEZKOEN IKUSPUNTUA.

Indarkeria-egoerei aurre egiteko erakundeek eskaintzen duten laguntza eraginkorra izan den jakiteko, etxeko indarkeriaren biktima diren emakumezkoek emandako informazioa bildu dugu; halaber, garrantzi berezia eman diogu etxeko indarkeria eta sexu-erasoen esparruan berariaz dauden eragile juridikoen eta ofiziozko abokatu-laguntzaren jarduerari eta zerbitzuei buruz egin duten balorazioari.

Emakumezko horiek emandako datuak xede diren emakume guztietara estrapolatu ezin badira ere¹, errealitatea hobeto ezagutzeko lagungarriak dira, bai eta jaso duten abokatu-laguntzari eta baliabide juridikoek eskainitako laguntzari buruz duten balorazioa, pertzepzioa eta haiekiko dituzten espektatibak zein diren jakiteko ere.

Jarraian, dauden baliabideak aztertu eta baloratuko ditugu, baina zerbitzu horiek erabiltzen dituztenen balorazio pertsonalaren ikuspegitik.

¹ Biztanleria osora estrapolatzeko datuak lortu ahal izateko, nahitaezkoa da etxeko indarkeriaren biktima diren emakumezko guztien errolda edukitzea eta horien lagin bati galdetegia egitea. Baina, egun, ditugun baliabideak direla-eta ezinezkoa da halakorik egitea.

ERAGINKORTASUNARI BURUZKO BALORAZIOAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA. ETXEKO TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEZKOEN IKUSPEGIA

- A. Prozesuari buruzko pertzepzioa
- B. Baliabideei buruzko balorazioa
 - 1. Eragile juridikoak
 - 2. Etxeko indarkeria eta sexu-erasoen alorreko berariazko ofiziozko abokatu-laguntza

A. PROZESUAREKIKO PERTZEPZIOA

Emandako informazioa ulertzeko emakumezkoek izan dituzten arazoak (%)

Transmititutako informazioa ulertzeko arazoak (%)		
	Eragile juridikoak	Abokatu-laguntza
Bai	28	36
Ez	68	64
Ed/Ede	4	0

Honako taula hauei esker jakin dezakegu inkesta bete duten emakumezkoek arazorik izan duten eman zaien informazioa ulertzeko, prozesuak iraun bitartean; horrezaz gain, baietz erantzun duten kasuetan, mezua ulertzeko arazoa zein baliabidetan izan duten eta zer arazo-mota izan duten ere jakin dezakegu.

- Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumezkoen %36k adierazi du abokatu-laguntza partikularrak emandako informazioa ulertzeko arazoak izan dituela. Emakumezkoen %28k izan ditu arazoak eragile juridikoei ulertzeko.
- Eragileekiko komunikazio-arazo motak aztertu ondoren, agerian geratu da hizkuntza teknika eta unean izandako presioa direla gehienek adierazitako arazoa.
- Eragile juridikoei dagokienez, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan (BLZ) izan duten arazo nagusia unean izandako presio pertsonala da; fiskaltzan eta epaitegian, berriz, erabilitako hizkuntza teknika.

Komunikazio-arazo motak (%)

	Komunikazio-arazo mota (%)						
	Informazioa eskuratzeko arazoak				Arazo pertsonalak		
	Hizkuntza teknikoa	Hizkuntza	Zeinu-mintzaira	Kulturala	Uneko presioa	Konfiantzarik ez solaskidearengan	Niregan ez zuela konfiantzarik sentitzen nuen
Eragile juridikoak							
Bai	79	7	0	7	40	21	27
Ez	21	93	100	93	60	79	73
Abokatu-laguntza							
Bai	54	8	0	8	61	23	23
Ez	46	92	100	92	39	77	77

Behartu egin zaituzte, nolabait, hauek egitera? (%)

	Behartu egin zaituzte, nolabait, hauek egitera?							
	Salatzera		Erasoitzailearen aurka testifikatzera		Erasotzailearekiko harremana haustera		Arazo intimoak kontatzera	
	Eragile juridikoak	Abokatu-laguntza	Eragile juridikoak	Abokatu-laguntza	Eragile juridikoak	Abokatu-laguntza	Eragile juridikoak	Abokatu-laguntza
Bai	7	2	2	2	0	2	17	10
Ez	93	93	96	93	100	93	81	85
Ed/Ede	0	5	2	5	0	5	2	5

Taulako datuei erreparatuz gero, ikus daiteke emakumezko gehienek adierazi dutela eragileek ez dituztela behartu (ez juridikoek, ez abokatu-laguntzakoek) erasotzailea salatzera, haren aurka testifikatzera, harekiko harremana haustera, ez eta arazo intimoak kontatzera ere.

- Emakumezko gehienek adierazi badute ere eragileek ez dituztela ekintza horietako bakar batera ere behartu, nabarmentzeko modukoa da biktima diren emakumezkoen %17k adierazi duela eragile juridikoek, nolabait edo neurri batean, behartu egin dituztela arazo intimoak kontatzera. Bestalde, emakumezkoen %10ek adierazi du gauza berbera abokatu-laguntzarekiko.
- Eragile juridikoei dagokienez, badira aldeak; horrela, bada, ekintza horietakoren bat egitera behartuta sentitu diren emakumezkoen artean, gehienek adierazi dute Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko (AMEE), Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetakoen (BLZ) eta epailearen aldetik sentitu direla nolabait behartuta arazo intimoak kontatzera, eta fiskaltzari dagokionez, salaketarekin aurrera egitera


Jasotako tratuari buruzko balorazioa (%)

	Jasotako tratuari buruzko balorazioa (%)				
	Eragile juridikoak				Abokatu-laguntza
	AMEE	BLZ	Fiskaltza	Epailea	
Ona	66	65	67	68	65
Erdipurdi	12	18	16	4	10
koa	22	13	7	28	22
Txarra	0	4	10	0	3
Ed/Ede					


Taulan eta grafikoetan, elkarrizketatu ditugun emakumezkoek jasotako tratuari buruz emandako balorazioak islatzen dira, eta halakoa izatea espero zuten ala ez ere bai.

- Emakumezkoen %68k adierazi du epailearen tratua ona izan dela, eta %28k, berriz, txarra izan dela.
- Inkestatutakoek %65ek adierazi du ez zuela halako traturik espero eragile juridikoen aldetik. Emakumezko horietatik %59rentzat ustekabea positiboa izan zen; %41entzat, berriz, ustekabea negatiboa izan zen. Berariazko ofiziozko abokatu-laguntzari dagokionez, %42k adierazi du jasotako tratuarekiko harrituta dagoela, eta horietatik %53rentzat uste baino hobea izan zen jasotako tratua.

Ezustean hartu zaitu jasotako tratuak? (%)



Ezuste-mota (%)



Konfiantza eman zizuten? (%)					
	Konfiantza eman zizuten? (%)				
	Eragile juridikoak				Abokatu-laguntza
	AMEE	BLZ	Fiskaltza	Epailea	
Bai	54	71	33	60	67
Ez	44	19	30	30	30
Ed/Ede	2	10	37	10	3

Profesional onak direla esango zenuke? (%)					
	Profesional onak direla esango zenuke? (%)				
	Eragile juridikoak				Abokatu-laguntza
	AMEE	BLZ	Fiskaltza	Epailea	
Bai	65	73	63	68	64
Ez	23	14	15	21	31
Ed/Ede	12	13	22	11	5

Intimitate ezagatik lotsatuta sentitu gara? (%)					
	Intimitate ezagatik lotsatuta sentitu gara? (%)				
Eragile juridikoak				Abokatu-laguntza	
AMEE	BLZ	Fiskaltza	Epailea		
Bai	63	12	12	69	16
Ez	37	88	88	31	82
Ed/Ede	0	0	0	0	2




Taula hauetan, emakumezkoek zenbait alderdiri buruz duten iritzia zein den ikus daiteke; hain zuzen, alderdi hauei buruzkoa: baliabideetakoek emandako konfiantzari buruzkoa, beren intimitatea errespetatua izan delako sentimenduari buruzkoa eta, azkenik, laguntza eskaini dieten pertsonen profesionaltasunari buruzkoa.

- Eragileek transmititutako konfiantzari dagokionez, emakumezko horien %71k adierazi du BLZk konfiantza transmititu ziela, eta %67k abokatu-laguntzak ere transmititu ziela. Balorazio kaskarren izan duen baliabidea Fiskaltza izan da, konfiantzari dagokionez.
- Baliabide gehienetan, emakumezkoak ez dira lotsatuta sentitu konfidentziasuna edo intimitatea ez edukitzeagatik. Hala ere, inkestatutakoen %69k adierazi du bere burua lotsatuta sentitu duela arrazoi horrengatik, eta %63k esan du gauza bera sentitu duela Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundean.
- Biktima izan diren emakumezko gehienek iritziz, laguntza eskaini dieten pertsonak profesional onak dira.

Baliabideekiko satisfazioa (%)						Zure ustez, profesional hauen eskuhartzeak lagundu dizu beharrei aurre egiten? (%)					
	Baliabideekiko satisfazioa (%)						Beharrei aurre egiteko eskaintako laguntza (%)				
	Eragile juridikoak				Abokatu-laguntza		Eragile juridikoak				Abokatu-laguntza
	AMEE	BLZ	Fiskaltza	Epailea			AMEE	BLZ	Fiskaltza	Epailea	
Gustura	66	76	65	62	67	Bai	55	50	39	56	68
Erdi-gustura	12	14	14	13	15	Ez	33	29	22	29	21
Ez gustura	17	5	7	23	18	Ed/Ede	12	21	39	15	11
Ed/Ede	5	5	14	2	0						

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezko elkarrizketatuek, halaber, eragileek egindako lanarekiko duten satisfazio-maila adierazi dute, eta haiengana joan direnean premiei erantzun dieten ere azaldu dute.

- Baliabideei dagokienez, elkarrizketatu ditugun emakumezko gehienek esan dute gustukoena BLZ izan dela (%76), beste emakume batzuentzat, abokatu-laguntza (%67) eta, azkenik, AMEE (%66).
- Emakumezkoen %68k adierazi du ofiziozko abokatu-laguntza beren beharrei aurre egiteko lagungarria izan dela.
- Eragile juridikoei dagokienez, beren beharrei aurre egiten nork lagundu dien galdetu diegu emakumezkoek, eta erdiak baino gehiagok esan du epaileak (%56), segidan AMEEk (%55) eta azkenik BLZ (%50). Bestalde, emakumezkoen %39k adierazi du fiskaltzaren esku-hartzeak lagundu diela, eta %22k, berriz, uste du ez diela lagundu.

B. BALIABIDEEI BURUZKO BALORAZIOA**B.1.Eragile juridikoak****1.1 Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea****Zure ustez, zein da AMEEren zeregina? (%)****Zure ustez, dagokion zeregina bete du? (%)****Zure ustez, AMEEK aurkeztutako frogak erabakigarriak izan ziren epaiketan? (%)**


- Inkestatutako emakumezkoen %74k uste du kalte psikologikoei buruzko balorazioa egitea, eta %60k uste du kalte fisikoei buruzko balorazioa egitea dela AMEEren zeregina. Horrezaz gain, inkesta bete dutenen erdiak uste du AMEEK eman behar diela epailei haiek jasaten dituzten kalteei buruzko informazioa. Emakumezkoen %53k uste du, ordea, ez dela AMEEren betebeharra lesioei buruzko informazioa ematea emakumezkoiei berei.

- Biktima diren emakumezkoen %62k uste du AMEEK bete duela dagokion zeregina, eta %21ek, berriz, ez du uste dagokion funtzioa bete duenik.

- Inkestatutako emakumezkoen erdiak baino pixka bat gehiagok (%53) uste du AMEEK aurkeztutako frogak erabakigarriak izan zirela epaiketarako; %22k, berriz, kontrako iritzia du. Nabarmentzeko moduko datua ere bada: %25ek erantzun du ez dakielako edo ez du galdera erantzun.


1.2. BLZ

Zure ustez, zein da BLZren zeregina? (%)




- Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumezkoen %58ren ustez, laguntza psikologikoa ematea da BLZk bete behar duen zeregina, eta emakumezkoen %50ek uste du orientazio juridikoa ematea dela zereginetako bat.
- Inkestatutako emakumezkoen erdiak uste du BLZk informatu egin behar duela (%50), eta ia beste erdiak uste du (%46) informatzea ez dela zerbitzuaren zereginetako bat.
- Inkestatutako emakumezkoen erdiak baino gehiagok (%58) uste du BLZk bete duela dagokion funtzioa, eta %17k kontrakoa pentsatzen du. Azpimarratzeko modukoa da galderari erantzuten jakin ez dutenen edo erantzun ez duten emakumezkoen kopurua (%25).


Zure ustez, dagokion zeregina bete du? (%)



1.3. Epaileak



Epaitegiaren baldintza fisikoei buruzko balorazioa (%)




Grafikoan ikus daitekeen bezala, Epaitegiaren baldintza fisikoei buruzko balorazioak ere egin dituzte biktima diren eta inkestatu ditugun emakumezkoek (kokapena, ordutegia, irisgarritasuna, segurtasuna eta erosotasuna).

- Kokapena (%88) eta irisgarritasuna (%88) dira ondoen baloratutako baldintzak, eta segidan segurtasuna (%74), ordutegia (%73) eta erosotasuna (%69).
- Inkestatutako emakumezkoen %17k erdipurdikotzat jo dute ordutegia eta erosotasuna. Emakumezkoen %12k, bestalde, erosotasuna txartzat dute, eta emakumezkoen %10ek segurtasuna txarra dela uste du.

B. 2. Etxeko indarkeria eta sexu-erasoentzako berariazko ofiziozko abokatu-laguntza


Alboan al zenuen berariazko ofiziozko abokatu salaketa jartzeko unean? (%)




Lehen ere esan dugu, biktima diren emakumezkoen artean, inkestatutakoen %67k jaso duela genero-indarkeriarako berariazko ofiziozko abokatu-laguntza. Emakumezko horiei galdera-sorta egin diegu, etxeko indarkeria eta sexu-erasoentzako berariazko ofiziozko abokatu-laguntzaren zerbitzuei buruzko ebaluazioa egin dezaten; hona hemen horiei buruzko azterketa.

- Inkestatutakoen %51k esan du berariazko ofiziozko abokatuarekin zegoela salaketa jartzeko unean; eta %49k, berriz, ez zuen abokatu alboan.
- Emakumezko horien %15ek lehendik ere jaso zituzten abokaturen baten zerbitzuak beste arrazoiren bat dela-eta; %85ek ez du zerbitzu horien premiarik izan.
- Biktima diren emakumezkoen %7k adierazi du arazoren bat izan zuela zerbitzu horiek eskatzeko; %93k, berriz, ez zuen inolako arazorik izan.


Jaso al duzu lehendik abokaturen baten zerbitzurik beste arrazoiren bat dela-eta? (%)



Izan al zenuen arazorik sexu-indarkeriako berariazko ofiziozko abokatuen zerbitzuak eskatzeko? (%)



Emakumezkoari bere kasuari buruz emandako informazioaren balorazioa (%)




Jarraian, ofiziozko abokatu-laguntzak etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoen eskainitako informazioarekin zerikusia duten zenbait alderdi aztertuko ditugu.


Emandako informazioari dagokionez, nahikoa izan den baloratu dute eta, horrezaz gain, prozesua doan izateko baldintzei buruzko informazioa jaso zuten galdetu diegu.

- Biktima diren emakumezkoen %70ek uste du, bere kasuari buruz emandako informazioa nahikoa izan dela.
- Emakumezko horien %74k adierazi du esan ziotela bere baliabideen arabera prozesu guztia erabat doan izan zitekeela; %26k esan du, ordea, ez ziotela horri buruzko informazioa eman.
- Prozesua erabat doan izan zitekeelako informazioa ez ziotela eman esan duten emakumezkoen artean, %56k esan du informazio horren berri ez izateak kalteren bat eragin diela.


Zure baliabideen arabera, prozesua erabat doan izan zitekeela jakinarazi zizuten? (%)




Informazio horren berri ez izateak kalterik eragin dizu? (%)




Zure ustez, zein da berariazko ofiziozko abokatuaren zeregina? (%)



Zure ustez, dagokion zeregina bete du? (%)



Abokatu-laguntza partikularren zerbitzari buruzko balorazioa (%)



- Inkestatutako emakumezkoen %52k uste du, biktima defendatzea dela berariazko ofiziozko abokatuaren zereginetako bat. Emakumezkoen %27k uste du, berriz, informatzea eta aholkuak ematea dela haren zeregina; eta %16k abokatuak prozesua tramitatu behar duela uste du.

- Biktima diren emakumezkoen %66ren iritziz, berariazko ofiziozko abokatuak bete du dagokion zeregina, eta %24ren iritziz, ordea, ez du dagokion zeregina bete.

- Oro har, abokatu-laguntzarekin zerikusia duten alderdiek balorazio positiboak izan dituzte. Abokatu-laguntzaren alderdietatik, ondoen baloratuak ahalegina (%64) eta epaiketaren prestaketa (%60) izan dira. Okerren baloratu diren alderdiak prestasuna eta epaiketaren defentsa izan dira; izan ere, %19k esan du prestasuna erdipurdikoa dela, eta %17k eskasa dela.

VI. KAPITULUA. ONDORIOAK ETA BALORAZIOAK

VI.1. ERAGILE JURIDIKOAK

Kapitulu honetan, Eragile Juridiko guztiek egindako azken ondorioak eta balorazioak biltzen dira, eragile juridikoei egindako inkestetatik bildutako informazioa eta epaitegietako langileei egindako elkarrizketatik bildutako informazioa barne.

Laguntzaren kalitatea adierazten duten zenbait irizpideren baitan antolatu dugu atala; hona hemen irizpideak:

- A- ARAZOAREN IKUSPEGIA
- B- PARTE-HARTZEA
- C- ESKU-HARTZEAREN PROZESUA
- D- PRESTAKUNTZA
- E- KOORDINAZIOA
- F- ZERBITZUAREN NORAINOKOTASUNA

Justizia Administrazioak gizarteari zerbitzu jakin bat eskaintzen dio; izan ere, hiritarren interesak eta eskubideak babesten ditu, eta legezkontasun-, eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioekin bateragarri egiten ditu. Horrela, bada, beren zerbitzuez baliatzen diren hiritarren beharrak asetze aldera eta espektatibak betetze aldera bideratu behar ditu prozesuak Justizia Administrazioak, eskura dauden baliabideak maximizatuta, lortu nahi diren helburuak lortzeko.

Zerbitzu publiko horren bidez, gizartea osatzen duten talde guztien interesak orekatuta daudela bermatu behar dira eta, horretarako, prozesuak diseinatu behar ditu. Horrezaz gain, giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala kudeatu behar ditu Justizia Administrazioak; hau da, eraginkortasuna eta efizientzia lortze aldera.

Botere Judizialak, Justizia Administrazioaren mendeko erakundea denez, ezin du epaitzen duen gizartean nagusitzen den errealitatetik aldendu eta, hortaz, gizartearekin eta eginkizun berarekin zerikusia duten erakundeekin harremanak izan behar ditu une oro. Izan ere, gizarteak zer behar duen jakitea da helburua eta, horrela, botere judiziala —zentzu zabalean— eta EAEko justizia-administrazioa osatzen duten erakundeak eta zerbitzuak bultzatu, berritu eta berregituratu.

A. ARAZOAREN IKUSPEGIA

A.1. Indarkeriaren kontzeptualizazioa

Emakumezkoaren aurkako etxeko indarkeriari buruzko indarkeria-kontzeptua, normalean erabiltzen dena, eta Eragile Juridikoen jardueretarako erreferentzia-esparru gisa balio duena, **kontzeptu argitzat** hartzen dute inkestatutako kolektibo gehienek. Kontzeptu hori argi izateak berebiziko garrantzia du, jarduera-irizpide egokiak eta homogeneoak ezartzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kontzeptuaz galdetzean, hau da, kontzeptuari buruzko ezagueraz eta argitasunaz galdetu diegunean epaileei, ia guztiek aipatu dute abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero Indarkeriaren aurka Babes Integralerako Neurriei buruzkoak, 1. artikuluan ematen duen definizioa:

“emakumeenganako diskriminazioa, desberdintasun-egoera eta botere-harremana gizonezkoen aldetik, ezkontideek edo ezkontide

izandakoek edo nahiz elkarrekin ez bizi emakumezkoarekin antzeko afektibitate-harremana dutenek erabiltzen dute”.

Hala ere, zenbait disfuntzio hauteman dira. Lehenik eta behin, 1/2004 Lege Organikoak oso gertaera desberdinak eta heterogeneoak berdin tratatzen ditu, eta bikote batean izaten diren eraso guztien oinarrian ez dago beti emakumearenganako genero-dominazioko harremana. Bigarrenik, 1/2004 Lege Organikoaren efektu kaltegarri bat hauteman da. Elkarriketatutako zenbait lagunek adierazi zuten lan-juridikoetan arazo handiak izaten dituztela Legea aplikatzerakoan, ez delako tratamendu bera ezartzen (gertaera berbera abiapuntu hartuta, emakumezko batek gizonezko bati eraginda, zigorra txikiagoa izango litzateke), eta legearen aurrean pertsona guztiak berdinak garelako konstituzioko berdintasun-printzipioa urratzen da¹.

Agerian geratu da, halaber, egungo lege-kulturak ez duela oso gustuko berdintasun-printzipioa urratzea, emakumeen alde. Oraindik ere nekeza egiten da ulertzea desberdintasunaren eta diskriminazioaren esparruan ezartzea genero-indarkeria. Oraindik ez gara konturatu zein den emakumezkoen egoera orokorrean; izan ere, oso bidezkoa ez den sistema sozial batean bizi dira eta botere-banaketak —eremu askotan eta egoera askotan emakumezkoa bigarren mailan uzten duenak— izugarri eragiten dion sistema sozial batean. Bestalde, zuzenbidea bera ere tresna diskriminatzailea dela ez gara denok jakitun; hau da, desberdintasuna islatzen eta bultzatzen duen tresna da, eta gizakiak sortutakoa eta produktu kulturala denez, *status quo*a, egungo sistema patriarkala defendatzen duten printzipioak eta balioak zigortzen ditu eta horiei eusten die, eta sistema hori da, hain zuzen ere, genero-indarkeria fenomenoaren beraren oinarrian dagoena.

Legearen aplikazioarekin zerikusia duten beste arazo handi batzuk lotura dute etxeko indarkeriaren biktimengana hurbiltzeko debekuaren zigorra nahitaez ezartzeko (Kode Penalaren 57. 2 artikulua), betearazteko fasean. Urruntzeko neurriak duen aginduzko izaera emakumezkoen borondatean interferentziatzat hartzen dute epaileek; izan ere,

¹ **AK (Osoko Bilkuren Aretoa), maiatzaren 14ko 59/2008 zenbakia duen epaia - LESIOAK:** Delituzko egitateak: etxeko indarkeria: noizbehinkako familia barruko tratu txarra: zigor-arloko tratu desberdina subjektu aktiboaren (gizonezkoa) eta pasiboaren (emakumezkoa) sexuaren arabera: ondorio ez-proportzionalak eragiten ez dituen arrazoizko desberdintasuna: bikotearen esparruan emakumezkoen osotasun fisiko, psikiko eta moralaren babesa handiagoa izatea du xede, portaera desberdinen larritasuna handiagoa delako arrazoizko egiaztatzea abiapuntu hartuta, eta kontuan hartzen duena haren eragin sozial objektiboa eta haren kalte berezia emakumezkoen segurtasun, askatasun eta duintasunerako: larrien tipifikatuta dagoen portaera kontzienteki egiteagatik zigorra: ez dira urratu berdintasun- eta erruduntasun-printzipioak.

zenbait emakumek, une jakin batean, berriz ere elkarrekin bizitzea erabakitzen dute, eta, hortaz, “adostasuneko urratze” deitutakoan erortzen dira.

Zenbaitetan, genero-indarkeriaren alorrean edozein zigor ezartzeak hurbiltzeko debekua berekin dakarrela jakiten dutenean, akusazioa atzera botatzea edo bertan behera uztea erabakitzen du biktimak eta, horretarako, ez deklaratzeko dispentsa erabiltzen du (Prozedura Kriminalaren Legearen 416. artikulua). Horren ondorioz, tratu txarrak izan direlako frogatzen bakarrik emakumezkoaren lekukotza duten kasu asko absoluzioa emanda amaitzen dira. Eta, hortaz, gerora berriz ere halakoren bat gertatuz gero, bertan behera utzitako aurreko ekintzak ez dira aurrekaritzat hartzen eta, ondorioz, ezin izango du legera jo erasotzaileak eskatzen badu zigorra bertan behera uzteko edo hura ordezkatzeko.

A.2. Justizia Administrazioaren konpromisoa etxeko tratu txarren alorrean

Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean zero tolerantzia lortzeko oso konpromiso handia duela agerian dago. Organo Judizialak kide diren pertsonak inplikaturik daude biktimei laguntza ematen eta prozesua eraginkorra izan dadin bultzatzen. Horrezaz gain, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak azken urteotan lehentasuna ematen dio gaiari. Hain zuzen, 2005. urteaz geroztik, euskal hiriburuetan emakumeen aurkako indarkeriako kasuetarako berariazko hiru epaitegi jarri ditu abian; eta 2007. urtearen hasieran, Bilboko bigarrena, indargarri gisa.

Elkarrizketatutako eragile juridikoak ere ohartu dira **konpromisoa** handia dela eta, emakumeen aurkako etxeko tratu txarren alorrean, Justizia Administrazioa behar adina ahalegin egiten ari delako iritzia orokorra da; elkarrizketatutako pertsonen artean, Justizia Administrazioan urte gehien daramatzatenek adierazi dute bereziki arazo horrekiko sentsibilizazioa sortu dela.

Bestalde, zenbait pertsonen, ikuspegi kritikoago batetik, nahiz eta onartzen duten asko aurreratu dela, ez daude ados konpromisoa handia delako iritziarekin; horien ustez, diskurtso-mila eta egindako ahalegina eta sortu diren baliabide berriak ez datoz bat, eta behar adina ahalegin egiten jarraitzeko eskatzen dute.

Alor horretan Justiziak funtzio garrantzitsua duela onartzen dute guztiek, baina gizarte osoaren inplikazioa beharrezkoa dela ere kontuan hartu behar, hainbeste biktima eragiten dituen desberdintasun-egoera errotik ezabatzeko.

Emakumeen aurkako tratu txarren arkako borrokan, gizarteak **lider** izateko eskatzen dielako sentimendua dute eragile juridikoek, eta horretarako gaitasuna ez dutela eta horretarako erabateko eskumena ez dutela adierazi dute; haien ustez, sistema penalak ez dio arazoari erabateko konponbidea emango, eta zigor-sistemak eskaintzen duen kontrol soziala ezartzen lagun dezakete bakarrik. Delitua egina dagoenean esku-hartzen du Justizia Administrazioak, eta indarkeria-portaerak prebenitzeko zeregina mugatua dute, haien oinarrizko funtzioa delitua gertatu ondoren horiek zigortzea baita.

B. PARTE-HARTZEA

B.1. Langileen parte-hartzea

Erakundeek ezartzen dituzten helburuak lortzeko eta funtzionamendua kalitate onekoa izateak zerikusia du langileen motibazioarekin eta parte-hartzearekin. Horrela, bada, emakumeen aurkako etxeko tratu txarren indarkeriaren alorrean Justizia Administrazioak ezarrita dituen helburuak lortzeko, nahitaezkoa da horretan lan egiten duten eragile juridikoen motibazioa eta laguntza, bai eta haiek egiten duten ahalegina eta lortzen dutena aintzat hartzea ere. Horretarako, ezarritako helburuak betetzera langileak bultzatzeaz eta laguntzeaz gain eta haiek egindako ahalegina aintzat hartzeaz gain, nahitaezkoa da langile horiek hobetze-ekintzetan parte hartzera bultzatzea eta laguntzea ere.

Horrenbestez, etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoei laguntzeko zerbitzuaren kudeaketan eragile juridikoek **zenbateraino parte hartzen duten** jakitea garrantzitsua iruditu zaigu.

Galdetegiko erantzunek adierazten dutenez, inkestatutako pertsonen %50ek parte hartu du. Bestalde, inkestatutako %85 inguruk agerian utzi du parte hartzen duten zerbitzua hobetze aldera dauden jardueretan laguntzeko prest dagoela. Hortaz, Justizia Administrazioa parte-hartzaileagoa izan daitekeela ikusten da, kontsulta-bide berriak antolatuta, hobetze-taldeak abian jarrita, esate baterako.

Eskaintzen duten zerbitzuan langileak inplikatuago egon daitezten lortzeko, zerbitzuaren funtzionamenduari eta kudeaketari buruzko **langileen satisfazioa** kontuan hartzea da aipatu den beste aldagaietako bat. Langile gehienek ustez, garrantzitsua da haien satisfazio-maila neurtzea; hala ere, lan egiten duten zerbitzuaren antolaketari buruz duten satisfazioaz inoiz galdetu dioten langilekopurua oso txikia da, %30 inguru baino ez.

Emakumezkoen aurkako etxeko indarkeriaren alorrean beren betebeharrak betetzeko langileek duten **motibazioari** dagokionez, kasu horietan izaten den presio soziala da motibazioa galtzeko hauteman den faktoreetako bat, emakumeen aurkako tratu txarrekin zerikusia duten zerbitzuetan lanean aritzeko aukeratzekoan, esparru juridikoaren barruan. Bestalde, puri-purian dagoen arazo sozial baten inguruan lan egiten badute ere, elkarriketatutako pertsonak adierazi dute ez dagoela elkarrekikotasunik eragin politiko eta komunikabideetako eraginaren eta gizarteak eta beste arlo batzuetako eragileek gaiari buruz duten **ezagueraren** artean.

B.2. Sentsibilitate publikoa eta hiritarrentzako zerbitzuaren orientazioa

Erabiltzaileen beharrak eta espektatibak kontuan hartutako kudeaketa gauzatuko dela bermatze aldera erabaki estrategikoak hartu ahal izateko, nahitaezkoa da espazio aproposa izatea, Justizia Administrazioaren alorrean hobekuntza-eremuak hautematen parte har dezaten.

Kexak eta hobetzeko iradokizunak biltzeko sistema antolatu bat edukitzea eta hura erabiltzea adierazle ona da, zerbitzuaren antolaketan eta hobekuntzan hiritarrek zenbateraino parte hartzen duten eta haien arteko komunikazioa nolakoa den jakiteko. EAEko Justizia Jauregietan hiritarrek iradokizun-postontzia dute eskura. Arretarako leihatiletan, bestalde, eskubide hori telematika-bidez erabiltzeko aukerari buruz informatzen duten liburuxkak ere badira. Dena dela, hauteman dugu, halaber, kexak eta iradokizunak biltzeko sistema hori hiritarren zerbitzura dagoen ez dakitela Eragile Juridiko guztiek.

C. LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Irizpide honen bidez, beren zerbitzua eskaintzen duten langileen potentziala Justizia Administrazioak nola garatzen duen eta hari ahalik eta etekin handien nola ateratzen dion aztertuko dugu. Horretarako, biktima diren emakumezkoen laguntzen aritzen diren

langileen gaitasuna nola bultzatzen duten aztertuko dugu; hau da, emakumeen aurkako etxeko tratu txarren alorrean berariazko prestakuntza egiten duten.

C.1. Prestakuntzaren bidez langileak espezializatzeko beharra.

Nahitaezkoa da erakundeak etengabe egokitzea, horien egiturek gero eta malguagoak izan behar baitute eta erakundea osatzen dutenen profilak egokitu egin behar direlako. Etengabeko lanbide-**prestakuntzari** dagokionez, erakundeek badute eskura nahitaezko tresna bat egokitze eta trebakuntza hori bultzatzeko eta, horrela, zerbitzu eraginkorragoa emateko eta laguntzaren kalitatean hobera egiteko.

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoen arazoarekin zerikusia duten kasuei aurre egitea oso konplexua denez, praktikaren bidez trebakuntza eskuratzeaz gain, ezinbestekoa da berariazko prestakuntza-moduluak egitea, eta prestakuntza horrek, halaber, Justizia Administrazioa osatzen duten estamentu horietako bakoitzean betetzen diren funtzioetara egokituta egon behar du, biolentziaren biktima diren emakumezkoen jarrerak eta errealitatea ulertzeko.

Tratu txarren biktima diren emakumezkoek laguntzen aritzen diren kolektibo profesionalen berariazko prestakuntzak berebiziko garrantzia du, emakumezkoa beste maila bateko biktima ez sentitzeko eta prozedura judiziala behar bezala garatzeko. Hori adierazten da **1/2004 Lege Organikoaren 47. artikuluan**; prestakuntzari dagokionez, artikulua dio Gobernuak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Autonomia Erkidegoek, nork bere eskumenen alorrean, bermatu egin behar dutela berariazko prestakuntza, berdintasunari buruz, sexu arrazoiengatik ez diskriminatzeari buruz eta genero-indarkeriari buruzko gaietan eta, horretarako, Epaileak eta Magistratuak, Fiskalak, Idazkari Judizialak, Segurtasun Indar eta Kidegoak eta Auzitegiko Medikak trebatu behar dira eta ikastaroak egin.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, **Genero Indarkeriaren aurka Babes Integralko Neurriei buruzko Lege Organikoaren 47. artikuluko** postulatuei jarraiki, urtero antolatzen ditu prestakuntza-jarduerak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin batera epaileentzat, eta bestetik, Justizia Administrazioako Azterlan Juridikoen Zentroarekin batera fiskalentzat eta idazkari judizialentzat. 2006. urtean, 19 ikastaro egin ziren guztira, eta aipatutako kolektibo horietako kide diren 573 lagunek parte hartu zuten.

Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzen diren langileak trebatzeko, 2006. urtearen joanean, 14 ikastaro eman dira eta 132 lagunek parte hartu zuten. Ikastaro horiek lege-erreformari buruzkoak izan ziren, batik bat Genero Indarkeriaren aurka Babes Integraleko Neurriei buruzko Lege Organikoari zegozkionak. Dokumentuen kudeaketa-sistema informatikoari eta izapidetze-sistema informatikoari buruzko ikastaroak izan dira arrakastatsuenak. Dena dela, etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoen laguntzeko alorrean aritzen diren eragile juridikoen %40 inguruk ez duela berariazko prestakuntzarik jaso hauteman dugu.

Bestalde, Bilboko epaitegi berrian —Emakumearen aurkako indarkeriaren arlokoa— lan egiten hasi behar zuten langileen aurretiazko prestakuntza beharrezkoa zela kontuan hartu zen. Hala ere, emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan titularrak izateari uzten dioten epaileen ordezkotzak egiteko, ez da beti kontuan hartzen aurretiko espezializazioa.

AMEEko profesionalek urtero izaten dute emakumeen aurkako indarkeriaren arazoarekin zerikusia duen prestakuntza. Zerbitzuak berak parte hartzen du langile aditu gisa, eta ikastaroak ematen ditu zerbitzutik kanpo.

BLZetan lan egiten duen talde profesionalak diziplina anitzeko taldea osatzen du, eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko etengabeko prestakuntza jasotzen dute. Urtero parte hartzen dute ikastaroetan eta, batzuetan, beste baliabide batzuetako langileei ematen dizkiete prestakuntza-ikastaroak. Horrezaz gain, migrazioaren arloko prestakuntza ere beharrezkotzat jo dute; izan ere, emakume etorkin askori lagundu behar izaten diete eta prestakuntza beharra dutela sumatu dute, haien kultura- eta gizarte-ikuspegiak ulertzeko eta, horrela, emakume horiekiko enpatia handiagoa izan dadin lortzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietako Justizia Administrazioko funtzionarioek betetzen dituzten lanpostuetan aldaketak egiteak —%80 dira bitartekoak—, oztopatu egiten du langileen espezializazioa bermatzea.

D. PROZESUA

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoek abian jarri behar izaten duten prozesua aztertzeko, hauek dira nabarmendu beharreko oinarritzko faktoreak: prozesuak iraun bitartean emakumezko horiek bete dezaketen zeregina, prozesuari buruz ematen zaien informazioa eta prozesuan parte hartzen duten eragileek hautematen dituzten arazoak.

D.1. Informazioa biktimari

Prozesu judiziala baino lehen, prozesuak iraun bitartean eta prozesuaren ondoren biktimak informatuta egon behar duela aho batez onartzen da². Hala ere, emakumezkoari ematen zaion informazioa epaitegian lanean aritzen den langile bakoitzaren borondatearen arabera da: epaileak, fiskaltza, idazkari judizialak, funtzionarioak... Abokatu-laguntza identifikatzen da biktima informatu behar duen eragiletzat, eta oso positibotzat hartu da Etxeko Indarkeriaren eta Sexu-erasoen Berriazko Ofiziozko txanda sortu izana, emakumezkoa abokaturen batekin joaten baita epaitegietara; izan ere, zerbitzu hori izan aurretik, zenbait emakumezko legeari buruzko inolako aholkurik ez zutela joaten zen epaitegietara, eta akusatuarekiko alde nabariak izatea eragiten zuen, hura abokaturen batekin bertaratzen baitzen.

D.2. Emakumezkoaren zeregina prozesuan

Prozesua arrakastatsua izan dadin, funtsezkoa da biktimak nahikoa informazioa izatea eta informazio hori egokia izatea. Emakumezkoen jabekuntza lortzea aurrerapen handia da indarkeria-egoerari aurre egiteko; izan ere, bizi izan dituzten indarkeriazko esperientziek egoera bereziki ahulean egotea, autoestimu gutxiago izatea eta bizitzarekiko kontrola galtzea eragiten die. Horri guztiari dagokionez, emakumezkoek beren prozesuan parte-hartze aktiboa izan dezaten lortze aldera bideratu behar da lana. Horretarako, ezinbestekoa da abian jarri duen prozesuak eragingo dizkion ondorioei buruzko informazioa ematea, bai eta eskura dituen gizarte-, polizia-baliabide eta baliabide juridikoei buruzko informazio argia ematea ere, indarkeriarik gabeko bizimodua lortzeko bideak eraiki ahal izateko.

² Informatzeko betebeharra abenduaren 11ko Indarkeriazko Delituen eta Sexu-askatasunaren Aurkako Delituen Biktimei Laguntzeko eta Sorosteko 35/1995 Legearen 15. artikuluan jasota dago.

Prozesu penalean, salaketa jarri duen pertsonaren lekukotza da, askotan, funtsezko frogak. Biktimek beren burua biktimatzat hartzea eragiten du horrek, eta haren inguruan betebeharrak inplizituak sorrarazten ditu, prozesuak amaitu arte bete beharko dituenak. Inplazituak dituen eskubideen ikuspegitik, arriskutsua da prozesua pertsona bakar baten lekukotzaren baitan ia-ia egotea.

Emakumezkoak ez dira beti psikologikoki bere onenean egoten, prozesuak eragiten dituen betebeharrak aurre egiteko. Salaketa jarri aurretik psikologikoki ondo egotea, eta ez alderantziz, lagungarria da prozedura luze bati aurre egiteko eta aurrera egiten ez duten salaketa asko egon ez daitezen. Larrialdiko kasuetan, alde aurretik horretarako prest eta gai izatea ia ezinezkoa da.

D.3. Eragile juridikoek hautemandako arazoak

AMEE

AMEEko auzitegi-medikuek ez dituzte arazoak izaten emakumeen aurkako tratu txarreatatik egiten dituzten mediku-azterketa berezietan. Denborarik ez izatea eta aurrekari buruzko informazioa lortzea dira arazoak eragiten dizkiena, ez baitira aurreko txostenak ematen askotan. Kasua dagokion auzitegi medikuari ematerakoan arazoak hauteman dira, eta adierazi dute arazo horren arrazoia dela epaitegiak ez duela txostenaren helburuari buruzko argibiderik ematen.

TPSJ

TPSJko langileek AMEEko langileek izaten dituzten antzeko arazoak dituzte. Adu-txosten psikologikoak eta psikologikoak egin behar dituztenean, txostenaren helburua behar bezala ez zehazteak eragiten dizkie arazoak. Lekukotzari eta salaketari buruzko balorazioak egiteko, profesionalek metodologia-arazoak izaten dituzte eta, horrezaz gain, balorazio horiek egitea nekeza egiten zaie aurretiko informazioa ez dutelako izaten.

BLZ

Babesteko Aginduak koordinatzeko faseak edo jarduera-eremuak eragiten ditu arazo gehien BLZn. Gizarte-laguntzarako eta gizarte-babeserako neurriak koordinatu behar dituztenean arazoak izaten dituzte, protokoloak ez direlako behar bezala betetzen eta laguntza soziala eta psikologikoa atzeratu egiten delako. Epaitegiak ematen dituen Babeserako Aginduak idatziz jasotzeko eta prozesu-aurreko egoerei buruzko informazioa jasotzeko arazoak izaten dituzte.

Horren guztiaren ondorioz, Babeserako Aginduei eta ezarritako neurriei buruzko estatistika egitea zaila egiten zaie, ez baitituzte beharrezko datu guztiak izaten. Administrazio Justiziak neurriak hartu ditu arazo horri aurre egiteko, eta Babeserako Aginduak Koordinatzeko zerbitzu zentralizatu bat jarri du, Biktimari Laguntzeko Zerbitzutik (BLZ) kanpo. Zentro horretan, batik bat, administrazio- eta estatistika-lanei buruzko betebeharrak gauzatuko dira, eta BLZk biktimari laguntzeko zerbitzuari dagozkion eskumenak izaten jarraituko du. Hona hemen beteko dituen funtzioak: tratu txarren gaineko kasuei buruzko informazioa biltzea, babeserako aginduak koordinatzea eta datuak ateratzea.

FISKALTZA

Barruti Judizial periferikoetan guardian egon behar izateak, askotan, probintzian guardia-lanak egin behar dituzten fiskalek aldi berean zenbait barruti judizialeko guardiako epaitegietan egon behar izatea eragiten du, aldi berean bi epaitegik behar izaten baitute haien presentzia. Guardiako epaitegian sartzen diren emakumezkoen aurkako indarkeria-kasuen ebazpena atzeratzea eragiten du horrek, babeserako aginduetarako bistan eta beste bista batzuetan nahitaezkoa baita fiskaltza han bertan egotea; horrek guztiak, hein hain batean, kalteak eragiten dizkie biktimei.

E. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Zenbait erakunde garrantzitsuren arteko koordinazioa, EAEko Justizia Administrazioa barne, Emakundek bultzatu eta koordinatu zuen ***“Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko erakundeen arteko akordioa”*** sinatu ondoren sortu zen. Protokolo hori 2001. urtean sinatu zuten, eta honako hauek, hain zuzen: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Fiskaltza, hiru lurralde historikoetako Foru Aldundiak, Eudel-Euskal Udalerrien Elkarteak, Abokatutzaren Euskal Kontseilua eta Sendagileen Euskal Kontseilua.

Gerora, Babes Agindua arautzen duen 27/2003 Legea eta Genero Indarkeriaren aurka Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa indarrean jarri ondoren, hiru Koordinazio Protokolo sinatu ziren, lurralde historiko bakoitzeko bana; honako erakunde hauek sinatu zuten: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza, Gobernu Idazkaria, Probintzia Auzitegiak, Emakumeen aurkako indarkeriaren auzitegietako dekanok eta magistratuak, Herrizaingo Saila, Emakunde,

Abokatuen eta Prokuradoreen elkargo profesionalak, Udaltzainak, Gizarte Zerbitzuak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saila bera.

Prozesu horretan parte hartzen duten eragile guztien arteko koordinazioa bermatzea xede duten tresnak dira protokolo horiek guztiak. Bilerak egiten dituzte, protokoloak etengabe berrikusteko, eta koordinazio horien maila eta uneak gero eta zehatzago eta errealitatearekiko gero eta egokiago ezartzen dira.

Protokolo horiei esker, Justizia Administrazioaren koordinazioa beste eragile batzuekiko, oro har, oso positibotzat baloratzen da. Erakundeen arteko koordinaziorako 1/2004 Lege Organikoak egindako bultzada eta ahalegina positibotzat hartzen da eta, elkarrizketatu ditugun pertsona askoren ustez, ezinbestekoa da diziplina anitzeko lan-praktika, komunikazio eta hausnarketa horiek beste maila bateko erantzukizunetara hedatzea.

Horrezaz gain, Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren esparruan, Genero Indarkeriaren Lan Talde bat sortu da, biktimei laguntzeko prozesu horretan hobekuntzak proposatze aldera garrantzitsutzat hartzen diren arazoei aurre egiteko. Koordinazio Protokoloa zela-eta lehen aipatu ditugun erakunde horiez gain, erakunde hauek ere parte hartzen dute: Arartekoa, Zuzenbide Fakultateak —Deustu, EHU—, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta AMEEa.

Funtsean, hiriburuetan ez dauden epaitegietako baliabideen arteko koordinazioa formalizatzea nahitaezkoa da. Baliabide guztiak ez dira eraikin berean egoten eta, askotan, lan bateratua ez da formala izaten eta parte hartzen duten pertsonen borondatearen baitan egoten da. Oraingoz, parte hartzen duten pertsonak gustura daude sistema horrekin; hala ere, jakin badakite beren kargua utziz gero, koordinazio-lan hori ez litzatekeela prozesu normalizatua izango eta berriz ere lanean hasten diren pertsonen borondatearen baitan geratuko litzateke.

Eragile Juridikoen koordinazioa beste eragile batzuekiko, oro har, egokia bada ere, koordinazioa hobea izan daitekeela uste dute, baliabideak elkar hobeto ezagutuko balira. Kasuak sakonago aztertzea eragozten dieten arrazoien artean, besteak beste, denbora falta eta gehiegizko lana direla adierazi dute.

F. ZERBITZUAREN NORAINOKOTASUNA

Atal honetan, biktimei laguntzeko epaitegiak egoki dauden aztertuko dugu; batetik, haien segurtasuna eta babesa bermatzen den epaitegi barruan; eta bestetik, laguntza integrala bermatzen den, behar dituzten baliabide espezializatuak emanda (AMEE, BLZ, TPSJ).

F.1. Komunikaziorako erraztasunak

Justizia Administrazioa ahalegin handia egiten ari da, epaileek zein gainerako eragile juridikoek, erabiltzen duten **hizkuntza** ulergarriagoa izan dadin; hau da, arau judizialetan zein ebazpen judizialetan, eta kudeaketa judizialak eta administratiboak eragiten duen gainerako informazioa ematen dutenean erabiltzen duten hizkuntza.

Konplexuegia ez den hizkuntza ez bada erabiltzen, herritarrentzat justizia eskuragarriago egongo da eta horrek ez du esan nahi prozesuari seriotasuna edo neutraltasuna kentzen zaionik. Aho batez onartzen da hizkuntza erraza erabiltzea, teknizismoak alde batera utzita, nahitaezkoa dela Justizia Administrazioa hiritarrengandik hurbilago egoteko. Bereziki, emakumearen aurkako etxeko indarkeriako kasuetan, delituaren ezaugarriak eta egoera psikologikoak nolakoak diren ikusita, babesik gabeko kolektibo berezietako kideztat hartzen da biktima eta, hortaz, arreta berezia jartzen da emakumezko horiekin aritzean.

EAEko Justizia Administrazioak agerian utzi du eragile juridikoekin, justizia erabiltzen duten pertsonekin eta hiritarrek oro har komunikatzeko bideak hobetzeaz arduratzen dela. Zenbait baliabide jarri ditu abian, besteak beste, e-administrazioa, Internet bidezko informazioa, informatizazioa, jarduerari buruzko datuak etengabe jakinarazteko ahaleginak, txostenak eta ebaluazioak; horiek guztiek agerian uzten dute arlo horretan dituen lehentasunak.

F.2. Egoera bereziki ahulean dauden emakumeentzako laguntza

Justizia Administrazioak laguntza teknikoko zerbitzuak ditu, baliabide espezializatuak emakumezkoen eskura daudela bermatzeko eta, batik bat, egoera bereziki ahulean dauden emakumezkoen eskura daudela bermatzeko; egoera bereziki ahulean egon

daitezke aniztasun funtzionalen bat dutelako edo inguruan erabiltzen duten hizkuntza ez dutelako ulertzen edo kultura ez dutelako ezagutzen.

Enpresa pribatu batekin aldian-aldian kontratu bat sinatzen da laguntza-bitarteko horiek eskaintzeko eta, horrela, hizkuntza guztiak itzultzen dituzte, baita zeinu-mintzaira ere. Immigranteak bertakotzen diren neurrian eta erakundeetara hurbiltzen hasten diren neurrian, emakumezko horiek gero eta erronka gehiagori egin behar diete aurre. Etxeko tratu txarren biktima diren atzerritarrek, askotan, aldi bereko diskriminazio- eta bazterketa-mekanismoek eragiten dituzten ondorioak jasan behar izaten dituzte. Indarkeriazko egoeraz gain, beste arazo batzuk ere izaten dituzte; besteak beste: sare sozialaren falta, bikotekide erasotzailearekiko dependentzia materiala eta psikologikoa, arauz kanpoko egoera eta kanpora bidaliko dutelako beldurra, ingurune konplexu batean bizitzeko arazoak...

Eskura ditugun datu ofizialek adierazten dutenez, zerbitzu normalizatuen erabilerari dagokionez —emakumezko horien aldetik—, hazkunde eutsia da. Egun, eragile juridikoek —Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren mendeko organoak, esaterako— Sailak duen itzulpen-taldera jotzen dute. Zerbitzu hori nahikoa dela eta eraginkorra dela adierazi dute ebaluazio hau egiten parte hartu duten pertsonak. Dena dela, etorkizunean jarraipena egitea eskatzen duen alderdietako bat da, gero eta gehiago azaleratzen ari den fenomeno baita eta, horrezaz gain, sor daitezkeen arazoei buruz informazioa ematen duten azterlanak ere badira dagoeneko.³

Traba arkitektonikoei dagokienez, behar adina egokitze-lan egin dira, mugitzeko arazoak dituzten pertsonak Justizia Jauregietara inolako trabarik gabe sartuko direla bermatzeko.

F.3. Biktima babesteko mekanismoak

Eragile guztien jarduerak eta biktima guztiak Guardiako Epaitegi berean bateratze aldera daude diseinatuta eraikuntza judizialak. Biktima eta erasotzailea epaitegietara sartzeko eta han bertan egoteko zonaldeak fisikoki bereizteko premiaren ondorioz, beste behar bat sortu zen eta kasurik gehienetan irtenbidea eman zaio, baina zenbait eraikuntzetan eta epaitegitan zailagoa da.

³ Amnistia Internacionala 2007, "Arrisku gehiago eta Babes gutxiago"

Biktimak epaiketari deklaratu behar duenean, akusatua ez duela inola ere ikusiko bermatuta dago epaitegietan; batzuetan bionboak jartzen dira, eta beste batzuetan bideokonferentzia bidez deklaratzeko dute, kasuaren arabera. Horrek lasaitasuna ematen dio emakumezkoari, babestuago sentitzen da eta, hortaz, deklarazioetan ez da hainbesteko tentsiorik izaten.

F.4. Baliabide espezializatuak

Distantziari eta denborari dagokionez, Administrazioak eskuragarri egon behar du; hau da, zerbitzu guztietan kalitate berbera eskainiko dela bermatu behar da, erabiltzailearen kokapen geografikoa eta zerbitzua erabiltzeko premiaren unea edozein dela. Hala ere, elkarrizketatu ditugun eragileek adierazi dute emakumeen aurkako tratatu txarren kasuek eragiten duten lanari erantzuteko, horretarako propio ez diren epaitegietan —Epaitegi Bateragarriak— dauden baliabideak ez direla nahikoak. Barakaldoko Epaitegian izan ezik, gainerako Epaitegi Bateragarrietan ez dago Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren bulegorik, ez eta Talde Psikosozialik ere.

VI. 2. OFIZIOZKO BERARIAZKO ABOKATU-LAGUNTZA

Jarraian, hiru eztabaida-taldeetan parte hartu duten abokatuek egindako balorazioak eta ekarpenak azalduko ditugu; talde horietan, etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoekin izandako praktika profesionalei buruz eztabaidatu zuten.

Laguntzaren kalitatea adierazten duten zenbait irizpideren baitan antolatu dugu atala; hona hemen irizpideak:

- A- ARAZOAREN IKUSPEGIA
- B- PARTE-HARTZEA
- C- ESKU-HARTZEAREN PROZESUA
- D- PRESTAKUNTZA
- E- KOORDINAZIOA
- F- ZERBITZUAREN NORAINOKOTASUNA

A. ARAZOAREN IKUSPEGIA

Abokatuen Elkargoak emakumezkoen aurkako etxeko tratu txarrek eragindako arazo sozialei aurre egiteko izandako aldaketetara **egokitu** direla agerian dago; izan ere, Etxeko Tratu Txarren eta Sexu-erasoen Berariazko Ofiziozko Txanda sortu da eta, horrezaz gain, hura osatzen duten profesionalek gaiari buruzko prestakuntza jaso dute.

A.1. Konpromisoa

Abokatutzaren euskal Kontseiluak bere gain hartu dituen konpromisoak, eta lehen aipatu dugun ***“Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumezkoen eskaintako laguntza hobetzeko erakundeen arteko akordioa”*** izenekoan islatzen direnak, hauek dira:

- Arazoarekin zerikusia duten delituen eta hutsegiteen inguruko prozedura penaletarako eta zibiletarako ofiziozko txanda berezia ezartzea, bertako profesionalek berariazko prestakuntza dutela.
- Lehenetasuna ematea doako justizia-espeditatearen izapidetzeari, Doako Laguntzaren Batzorde Probintzialak gerora eman beharreko ebazpenari kalterik eragin gabe.
- Abokatu berehala izendatzea, biktimarenganako laguntza integrala bermatzen dela; horretarako, prozedura penalerako zein prozedura zibilerako abokatu berbera izendatzeko bitartekoak jarri behar dira.

Izandako eztabaida-taldeetan adierazi dute hiru Abokatu Elkargoetan lan egin dutela eta lan egiten jarraitzen dutela, hartutako konpromisoak betetzeko. Laguntza integralarekin zerikusia duen disfuntzioren bat bakarrik hauteman da; izan ere, ezohiko kasuetan, biktimari eskaintzen zaion laguntza juridikoa profesional batek baino gehiagok ematen dio. Horri buruzko xehetasun gehiago aurrerago emango ditugu, elkargoen koordinazio-zereginari buruzko atalean.

A.2. Arazoaren kontzeptualizaioa

Erreferentzia-kontzeptua 1/2004 Lege Organikoan aipatzen dena da, eta nahikoa garbi dagoela adierazi dute.

Bestalde, hauteman dute arazoak babesik gabeko egoeran eta desberdintasun-egoeran egotea eragiten diela emakumezkoen eta, hortaz, erabat nahitaezkoa dela

Ofiziozko Berariazko Abokatu Laguntza eskaintzea, biktima diren emakumezkoen eskubideak prozesu judizial guztiak iraun bitartean defendatzen direla bermatzeko. Abokatuen ustez, arazoak berez dituen ezaugarriak direla-eta prozesua konplexu izatea eragiten du, neurri handi batean.

B. PARTE-HARTZEA

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoek abokatu-laguntza espezializatua eskaintzea helburu duen zerbitzuak haien beharretara eta espektatibetara bideratuta egon behar du, bai eta zerbitzuko baliabide materialak zein bertako langileen giza baliabideak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzera ere. Horretarako, nahitaezkoa da ofiziozko txandan lanean aritzen diren abokatu profesional guztiei hartutako bidearen berri ematea.

B.2. Profesionalen inplikazioa eta ongizatea

Eztabaida-taldeetan aritu diren zenbait lagunek adierazi dute halako arazoekin lan egiteak frustrazio-sentsazio handia eragiten diela eta, zenbaitetan, Etxeko Indarkeria eta Sexu-erasoen Ofiziozko Txandan aritzeari uztea ere pentsatu dutela. Beste batzuk, aitzitik, zerbitzu horretan oso esker oneko kasuak tratatzen dituztela adierazi dute, eta satisfazio-maila handia izatea eragiten diela. Batzuentzat zein besteentzat ezinbestekoa da kontzientziazio berezia izatea, ofiziozko txandakako lanak inplikazio pertsonala zein gizarte-konpromisoa eskatzen baitu.

Taldeetan parte hartu duten lagunek arrazoi hauek hauteman dituzte Etxeko Indarkeria eta Sexu-erasoetarako berariazko ofiziozko txandan parte hartzeko motibazioa gutxitzea eragiten dutenak:

- Inplikazio pertsonal handia.
- Komunikabideetan gehien aipatzen den Ofiziozko Laguntza da. Gainerako Ofiziozko Laguntzek baino oihartzun handiagoa dute komunikabideetan (atxiloketak, adingabeak, atzerritartasuna, espetxeratzeak), lantzen den arazo-mota dela eta.
- Guardiak egiten dituztenean, izango duten lan-kopurua aurreikusi ezina, eta lanaldi luzeak.

- Soldatak ez du kontuan hartzen, beste kasu batzuen aldean, askoz konplexuagoak direla eta dedikazio handiagoa eskatzen dutela⁴.

C. PROZESUA

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoek abokatuek eskaintzen dieten abokatu-laguntzaren prozesua aztertzerakoan, bi gai hauek hartzen dira nagusitatzat: emakumezkoek ematen zaien **informazioa** eta Abokatuen Elkargoek betetzen duten einkizunaren koordinatzaile gisa duten zeregina.

C.1. Biktima diren emakumezkoek ematen zaien informazioa

Zenbaitetan, emakumezkoak ez daki oso ondo edo ez du informazioa jaso salaketa abian jartzeak eragiten duen prozesuaz; horrek, askotan, izutzea edo atzera botatzea eragiten du, eta, beste askotan, epaia eman ondoren frustrazioa sentitzea, ez zelako espero zutena. Halakorik gerta ez dadin, abokatuen ustez oso garrantzitsua da estrategia bat ezartzea aldeztatik emakumezkoekin, eta laguntza psikologikoa ematea prozesu judizialari ekin baino lehen, bai eta prozesuan emakumezkoen autonomia bultzatzea ere.

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten lagunen iritziz, emakumezkoak ez du aurretik nahikoa informazio jasotzen, salaketa jarri ondoren abian jartzen den bide penalari ekiteko. Hauteman dute biktimari informazioa emateko denbora-testuingurua eta haren egoera psikologikoa ez direla egokiak, eman beharreko informazioaren xehetasunak transmititzeko. Une horretan, biktimaren helburu nagusia haren bizitzari irtenbide globala ematea da, eta abokatuak irtenbide penalak bakarrik eskaini diezazkioke. Horrela, bada, emakumezkoaren egoerari buruzko balorazioa egin ondoren, zer informazio emango zaion hautatzen da, hobe baita informazioa neurtzea errazago barnera dezan. Haien ustez, estrategiaren aldetik, batzuetan hobe da salaketa ez jartzea emakumezkoa horretarako prest egon arte.

Ohartu dira biktimari eskaintzen zaion laguntza ez datorrela bat emakumezkoen espektatibekin, sistema penaletik kanpoko irtenbidea eman nahi baitiote arazoari.

⁴ Guardia-egunak beste bi lanegun gehiago izatea eragiten die abokatuei, egun horretako kasuak direla-eta; dena dela, hiru egun horiek modulu bakarra izango balitz bezala ordaintzen zaie. Nabarmentzeko modukoak dira betearazpen zibilen kasua, prozedura zibil bakarra izango balitz bezala ordaintzen baitira kausa zibil guztiak. Bestalde, zerbitzu-ordainketaren maiztasunari dagokionez, sei hilean behin ordaintzen da eta zerbitzuaren ordainetan kobratu beharrekoa kobratzeko denbora gehiegi egon behar dela zain adierazi dute (gauza bera gertatzen da ofiziozko txanda guztietan).

Gaiari buruzko informazioa, askotan, desitxuratuta iristen da hiritarregana eta biktimek espektatibak edukitzea eragiten du; esaterako, epaileak ez duela inoiz zalantzan jarriko hark esaten duena. Ondorioz, abokatu-laguntzak halabeharrez lagundu behar dio biktima den emakumezkoari benetako espektatibak egiten, eta azaldu beharko dio prozesua gogorra dela, kostu pertsonal ikaragarria duela, eta, zenbaitetan, galdeketa egiten ari zaizkiela sentituko duela, deklaratzeko dutena zalantzan jarrita.

Halako kasuetan, Justiziaren jardura egokia dela uste badute ere, adierazi dute sistema ez zaiela erabat perfektua iruditzen eta garrantzi handiegia ematen diola salaketari. Horretaz gain, haien ustez, laguntza juridikoak erabat doakoa izan beharko luke, bestela, bidezkoak ez diren egoerak sortzen direla eta, zenbaitetan, emakumezkoak beste maila bateko biktima ere badela sentitzen duela. Haien ustez ez da bidezkoa ezta egokia ere prozesu azkarra bakarrik izatea doakoa, eta ez beste bide batzuetatik izapidetzen dena. Horrek nahasketa handiak eragiten ditu emakumezkoen artean, ez baitute ulertzen zein zati ordaindu behar duten eta zein ez, ezta zergatik den hori horrela ere.

Biktimak laguntza psikologikoa behar izateak denbora luze hartzen du. Emakumezkoa bere kabuz erabakiak hartzeko seguru sentitzen ez denez, abokatuarekin izaten duen kontsulta hartzen du erreferentziatzat, eta abokatu-laguntzaz gain, beste funtzio batzuk betetzea ere eskatzen dio. Emakumezkoekin desadostasunak izateko moduko gertaeratzat hartzen dute; izan ere, zenbaitetan, beren zeregina zein den argitu behar izaten diote emakumezkoari, eta horrek jasotako laguntzarekiko frustrazio-sentimendua izatea eragin diezaioke. Beharrezkotzat baloratu da beste edozein agentek esku hartu aurretik, doako laguntza psikologikoa eskaintzea biktimari (abokatu-laguntza eskaintzen zaion bezala), arazoei aurre egiteko modu bakarra ez baita bide penala.

Abokatuek, halaber, hauteman dute denbora luze pasatzen dela polizia-etxean emakumezkoari laguntza eskaintzen zaion arte eta, ondorioz, emakumezkoek uste izaten dutela nahikoa denborarekin jakinaraziko zaiela eta nahita atzeratzen direla. Hori da gainditu beharreko lehendabiziko traba, emakumezkoaren konfiantza izango dela ziurtatzeko.

C.2. Abokatuen Elkargoen zeregina zerbitzuaren koordinazio-lanetan

Abokatuen Elkargoek zerbitzua koordinatu behar dutenean, bi lanaldi bereizten dituzte: lanegunetako koordinazioa, eta jaiegunetako eta aste buruetako koordinazioa. Eztabaida-taldeetan parte hartu duten abokatuek, oro har, adierazi dute gustura daudela aste barruko koordinazioarekin; horrezaz gain, nabarmendu nahi izan dute zerbitzua ez dela inoiz hutsik geratzen, zerbitzua betetzeko arazoren bat dutenean, berehala ematen baitio irtenbidea dagokion elkargoak. Abokatu titularrak zein errefortzukoak okupatuta daudenean, ofiziozko beste abokatu bat izendatzen dute zerbitzua betetzeko. Hala ere, asteburuetan izaten dira arazoak, elkargoetako langileak ez baitira zerbitzua koordinatzeko lanetan aritzen eta, hortaz, guardiako abokatuek berek, ahal duten neurrian, beste lankideren bat bilatu behar izaten dute, hitzorduetara joan daitezen. Ondorioz, atzerapenak izaten dira eta gorabehera handiak eragiten dizkie biktimei eta horretan aritzen diren baliabideei.

D. BERARIAZKO PRESTAKUNTZA

1/2004 Lege Organikoari jarraiki, genero-indarkeriako biktimaren defentsak espezializatua izan behar du. Hala ere, horrek ez du esan nahi zerbitzuan lan egiten duten abokatuek berariazko prestakuntzarik izan behar dutenik, Abokatuen Elkargoek erabaki behar baitute hori, nork bere elkargoari dagokion erabakia da (1/2004 Lege Organikoaren 20. artikuluko 3. puntua). Euskal Autonomiako hiru elkargoak bat datoz abokatuek ofiziozko txandarako aukera izateko, berariazko prestakuntza izatea beharrezkoa dela eta, horrezaz gain, abokatu-lanetan esperientzia-maila jakin bat izatea (hiru urte), tratu txarren biktima direnei defentsa eraginkorra eskaintzeko. Abokatuei eskatzen zaien beste baldintzetako bat lurralde historikoan bertan bizitzea eta ezkontzako eta penaleko ofiziozko txandetan parte hartzea da.

Etxeko indarkeria eta sexu-erasoen berariazko ofiziozko txandako zerbitzuan lanean aritzen diren pertsonen lanbide liberala eta independentea dute, baina Abokatutzaren Elkargoen esparruan, abokatu orori eskaintzen dizkio nork bere elkargoak behar adina tresna zeregin profesionala betetzen laguntzeko; esate baterako, **prestakuntza**.

Genero Indarkeriaren aurka Babes Integraleko Neurriei buruzko Lege Organikoari jarraiki, eragile juridiko guztien prestakuntzan beharrezkoa da irizpide berberak erabiltzea, prestakuntza homogeneoa eta kalitate onekoa izan dadin. Laguntza juridikoari dagokionez, Abokatutzaren Elkargoen ardura pekoa da prestakuntza hori,

baldin eta berariazko ofiziozko txandan parte hartzeko ezinbesteko baldintza den. Eta hala da Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen Elkargoetan.

EAEn, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren artean hitzartutakoari jarraiki, hiru elkargo horietako bakoitzak genero-indarkeriari buruzko ikastaro bat egiten du urtero, gutxienez, eta bi egun irauten duen jardunaldiak izaten dira. Ikastaro horiek nahitaez egin behar dituzte ofiziozko berariazko txandan aritzen diren profesionalak, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak ordaintzen ditu.

Arabari dagokionez, 2006. urtean, derrigorreko 2 ikastaro egin ziren eta hautazko beste batzuk ere bai; esate baterako, SIAVek egindakoak. Gipuzkoan, prestakuntzako bi ikastaro egin ziren; bata ofiziozko txandan lehendabizikoz sartu ziren profesionalentzat, eta bestea denbora luze zeramatzen eta aurreko urteetan beste ikastaro batzuk egin dituzten profesionalentzat. Eta azkenik, Bizkaian, ezin izan zen urteroko derrigorreko ikastaroa egin eta, beraz, 2007. urtean bi egin ziren.

Prestakuntza jardueretan izaten diren topaketak oso positibotzat hartu zituzten profesionalak, abokatuen artean esperientziak eta praktika onak trukatzeko baitituzte.

Oso positibotzat baloratu da esperientzia-transferentziaren bidezko ikaskuntza, eta abokatu berrientzako prestakuntza- eta laguntza-ekimena nabarmendu dute —Arabako Elkargoak abian jarritako ekimena—, esperientzia handien duten ofiziozko txandako langileekin sei hilabetez aritzen baitira ikasten.

Etxeko tratu txarren biktimak diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko nahitaezkoa den prestakuntza-motari dagokionez, iritzi desberdinak daude. Batetik, ezaguera teknikoak eta juridikoak barneratzea nahikoa dela pentsatzen dutenak daude; horien ustez, eragile juridikoek ez dute zertan beren eskumenekoak ez diren beste funtzio batzuekin zerikusia duten bestelako prestakuntzarik jaso behar. Bestetik, ezaguera horiez gain, genero-ikuspegia kontuan hartutako prestakuntzaren bidez osa daitekeela pentsatzen dutenak daude; horien ustez, arazoa bideratzen eta ulertzen lagunduko luke, abokatu-laguntzaren eskumenekoa den laguntzaren eta funtzioen ikuspegia galdu gabe. Beste abokatu batzuk, bestalde, gizarte-trebetasunak lantzeko prestakuntza egokia litzatekeela uste dute, emakumezkoekin lanean aritu ondoren ikasi edo eskuratu dituzten jarrerak eta ohiturak egokiak diren jakiteko.

E. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Lehen ere esan dugu Abokatutzaren Euskal Kontseiluak parte hartu zuela **“Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko erakundeen arteko akordioan”**, Emakundek bultzatu eta koordinatutakoan.

Gerora, Justizia Administrazioak bezala, Babes Agindua arautzen duen 27/2003 Legea eta Genero Indarkeriaren aurka Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa indarrean jarri ondoren, hiru Koordinazio Protokolo sinatu ziren, lurralde historiko bakoitzeko bana⁵, eta hiru Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoek parte hartu zuten. Hona hemen protokolo horien izena: *“Genero-indarkeriaren aurka babes integraleko neurriei buruzko Legearen eraginkortasuna eta etxeko indarkeriaren biktima direnak babesteko aginduaren eraginkortasuna bultzatzeko koordinazio-protokoloak”*⁶

Beste baliabide batzuekiko koordinazioa eta lankidetza handiagoa den uneak badira, eta bi bereizten dira. Lehendabiziko unea: larrialdiko laguntza polizia-etxean; geroagoko unea: epaitegietan egiten den lana.

E.1. Polizia-etxean

Polizia-laguntza aipatzen denean, automatikoki Ertzaintzak eskainitako laguntzaren erreferentzia ematen dute. Oso gutxitan aipatzen dira udaltzainak. Horrela, bada, adieraziko ditugun emaitzak Ertzaintzarekiko koordinazioari buruzkoak dira.

Halako kasuetan, poliziaren lanari buruzko balorazioa positiboa dela adierazten badute ere, gaineratu dute ez direla beti koordinazio-protokoloak betetzen eta, zenbaitetan, salaketa jartzeari ekiten diotela abokatuak han ez dagoela. Salaketa berriz idatz daiteke, gertaera garrantzitsuren bat aipatu ez dela edo ez dela behar bezala jaso geratu uste badu abokatuak. Baina, zenbaitetan, abokatuak salaketa baldintzatzen dutelako sententzia duela poliziak hauteman dute eta, abokatuen ustez, beren lana betetzen dute, emakumezkoari aholku egokiak emateko.

⁵ Honako hauek sinatua: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza, Gobernu Idazkaria, Probintzia Auzitegiak, Emakumeen aurkako indarkeriaren auzitegi-tako dekanak eta magistratuak, Herrizaingo Saila, Emakunde, Udaltzainak, Gizarte Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saila.

⁶ Honako hauek sinatua: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia, Fiskaltza, Gobernu Idazkaria, Probintzia Auzitegiak, Emakumeen aurkako indarkeriaren auzitegi-tako dekanak eta magistratuak, Herrizaingo Saila, Emakunde, Abokatuen eta Prokuradoreen elkargo profesionalak, Udaltzainak, Gizarte Zerbitzuak eta Justizia Saila.

Haien ustez, laguntza telefono-bidez ematen denean, protokoloak ezarritako baldintzak betetzeko deitzen die poliziak, emakumezkoak behar bezalako aholkuak jasotzeko beharragatik baino.⁷

Atestatua normalean ondo egiten dela aitortu dute, batez ere lesioak dauden kasuetan. Hala ere, tratu txarra psikologikoa izan dela salatzen denean, arazo gehiago izaten dira, ez dutelako nahikoa tresna salaketan behar bezala islatzeko.

Biktimak deklarazioa abokaturaren aurrean egon gabe egiten badu, epaitegian arazoak edukitzea eragin dezake; izan ere, abokatuak gertaera gehiago gaineratu nahi izanez gero epaitegian, gerta daiteke horiek ez onartzea, salaketan kontuan hartu ez direlako. Horrek nahigabe handia eragiten die biktimei, baliabide batzuk jakinarazitakoaren eta beste batzuek esandakoaren artean kontraesanak daudela sentitzen baitute.

Salaketa behar bezala jartzeko poliziak abian jarritako ekimena praktika ona dela adierazi dute; izan ere, zenbaitetan, emakumezkoaren jarraipena egiten da haren egoerari erreparatuta eta, gerora, emakumezkoak hala nahi badu, salaketa jartzen da, gertaerei buruzko xehetasun gehiago dituztela.

Agindu judiziala izapidetzen den bitartean babesa beharrekoa dela uste da, eta aipatu da zenbait polizia-etxetan prozesua —agindu judiziala izapidetzen den arteko denbora-tartean biktimari babesa ematen zaion arte— makala dela; izan ere, poliziaren barruko protokoloari jarraiki, babesa abian jartzeko nahitaezkoa da arriskuari buruzko balorazioa egitea, eta prozesu horrek denbora luze eskatzen du.

E.2. Epaitegian

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten abokatuak adierazi dute antolaketa judiziala eta ofiziozkoa ez direla bateragarriak; agerian utzi dute ez dela posible haien presentzia eskatzen den toki guztietara desplazatzea. Batzuetan, berandutu egiten zaienean, merezi ez dituzten errietak egiten dizkiete, eskura dituzten bitarteko guztiak erabiltzen baitituzte esandako orduan iristeko.

⁷ "EAEn genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoaren biktimei berehala laguntza juridikoa emateko hitzarmena", 2007ko otsailean sinatu zen eta 2003ko apirilean sinatu zena ordezkatu zuen, hau da *"biktimei laguntza juridikoa modu presentzialean emango zaie polizia-etxean eta epaitegian"*

Nabarmendu nahi izan dute epaitegiak enpatia eza erakusten duela, abokatuen lanarekiko eta haiek bete behar duten zereginarekiko. Biktima den emakumearen bozeramailea eta ahotsa den arren, ez da nahikoa denbora ematen bista aurretik biktimarekin hitz egiteko, epaitegira garaiz iristeko arazoak izaten dituztenez, esku-hartzeko deitzen baitiete iritsi bezain pronto.

Alderantzizkoa ere gertatzen da; Epaitegi Mistoetan, biktimak dauden delituek lehentasuna badute ere, eta hori da etxeko tratu txarren kasua, zenbaitetan epaitegiak atzeratu egiten dira edo beste arazo batzuei ematen diete lehentasuna —droga-trafikoa edo ezarrita zeuden falta-epaiketak— eta denbora luze egon behar izaten da zain. Halakoak gertatzen direnean, biktimarekin hitz egiteko aprobetxatzen da; baina batzuetan, emakumezkoa ordurako nekatuta egoten da eta tentsioan, eta atzerapen horrek ahalegin gehiago egitea eragiten dio.

Epaitegiko zitazioen agendari dagokionez, koordinazio-arazoak hauteman dituzte poliziak eta epaitegiak erabiltzen dituzten agenden artean eta, zenbaitetan, hartu ezin daitekeen orduan ematen zaio hitzordua biktimari. Hona hemen hautemandako arazoa: Ertzaintzak agenda egiten duenean ez daki emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegian larrialdiko kasuren bat baduten. Ondorioz, batzuetan, bi eta hiru ordu egon behar izaten dute zain deklarazioa hartu arte.

Fiskaltzaren eskaeraren eta erabaki judizialaren arteko sintonia erabakigarria da. Zigorra aldatu behar bada edo onespena egokia bada, epaileen eta fiskalen artean aztertzen dituzte aukerak, eta biktimaren abokatuak inhibitzen da. Abokatuak ez daude ados ikuspegi horrekin, eta halakoak askotan gertatzen ez badira ere, adierazi dute, normalean, epailearen eta fiskalaren erabakietan erabiltzen diren irizpideen artean sintonia nabarmena dela. Oro har, kautelazko irizpideak dira, prozesuarekin ez jarraitzea erabaki duen emakumezkoaren iritzia kontuan hartzen ez den aldetik, egoerak eragin diezazkiokeen ondorioetatik babestu nahi baitu bere burua.

F. ZERBITZUAREN NORAINOKOTASUNA

Abokatu-laguntzaren zerbitzua bera berariazko baliabidea da, etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoek babes judiziala bermatzeko; horrela, bada, parte hartu duten abokatuak baliabide pertsonalei buruzko balorazioa egin dute, jakiteko nahikoak diren EAEn arazo hori duten emakumezkoek eskaintzen zaien laguntza bermatzeko.

Horrezaz gain, epaitegietan abokatuek eskura dituzten baliabideak emakumezkoei laguntza eskaintzeko egokiak diren ere baloratu da.

F.1. Abokatu-laguntza, baliabide espezializatua.

Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen berariazko ofiziozko txandan aritzen diren abokatu-kopuruak gora egin badu ere, barruti judizialetan ez daude nahikoa profesional; hau da, Doako Justiziaren Behatokiako adituen taldeak gomendatu adina profesional. Behatokiak proposatu zuen abokatu gehiago aritzea lanean, eta jardun behar zuten tokitik ahalik eta hurbilen egotea, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin. Izan ere, jakinarazi dute, zenbaitetan, abokatuak denboran atzeratu egiten denez, biktimak erabaki behar izaten duela —egoera pertsonal bereziki zailetan— polizia-etxeko bulegoan abokatuaren zain egon, edo agerraldia lehenbailehen bukatu han bertan.

F.2. Biktimentzako baliabideak

Emakumezko guztiek dute eskubidea abokatu-laguntza izateko, espezializatua, berehalakoa eta integrala, bai prozedura zibiletan, bai prozedura penaletan. Biktimei eskaintzen zaien laguntza juridikoa baliabide ekonomikoen baitan egon ez dadin, guardia barruko jarduera guztiak doakoak dira. Hala ere, abokatu-laguntzaren doakotasunari buruz zalantza handiak izaten direnez, komenigarria da jakinaraztea prozesu judizial zibilen eta penalen doakotasuna Doako Laguntzari buruzko Lege Organikoaren baitan dagoela, eta legeak dio ezin dela diru-sarrera kopuru jakin bat eta ahalmen ekonomiko jakin bat gainditu behar.

F.3. Egoera bereziki ahulean daudenentzako laguntza

Bada itzulpen-zerbitzu bat biktima diren emakume immigranteei prozedura zibiletan laguntzeko; hala ere, Abokatu Elkargoek ez dute itzulpen-zerbitzurik, eta horrek izugarri oztopatzen du abokatuen eta biktima diren emakumezkoen arteko komunikazioa, epaiketa-aretoetatik kanpo izaten dituzten elkarriketetan.

Bereziki adierazi dute epaiketa prestatzeko egin beharreko bulego-lanetarako, ez dituztela baliabideak emakume etorkinekin komunikatzeko. Gabezia horri aurre egiteko, biktimaren senideei edo ezagunei eskatzen diete laguntza. Hala ere, horrela ez da bermatzen biktimak mezua behar bezala jasoko duenik.

F.4. Azpiegiturak

Epaitegietako azpiegiturei dagokienez, agerian geratu da ez dela beti leku aproposik izaten biktimarekin batera lan egiteko behar bezalako baldintzetan. Haien ustez, komenigarria litzateke emakumezko eta abokatuentzako itxarongela eta bilera-gela bat egokitzea, eskainiko den laguntza intimoa izango dela bermatzeko.

Epaitegietan laguntza espezializatua duen adingabeei laguntzeko espazioen bat izateak, biktimekin batera etortzen diren adingabeei epaitegietara joateak eragiten dien inpaktua murriztuko luke eta, horrezaz gain, lagungarria izango litzateke emakumezkoak indar eta arreta guztia prozesuan jartzeko, beharrezkoa izaten baita halako prozesuetan.

VI.3. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK

A. PROZESUAREKIKO PERTZEPZIOA

- Informazioa eskuragarri jartzeari dagokionez, adierazi dute arazoak izaten dituztela laguntza eskaini dieten baliabidetakoek emandako informazioa ulertzeko. Eragileekin izandako komunikazioetan izan dituzten oztopo-motak aztertu ondoren, agerian geratu da hizkuntza teknikoa eta uneko presioa direla gehien aipatu dituzten oztopoak.
- Baliabide gehienetan, emakumezkoak ez dira lotsatuta sentitu, konfidentziasuna eta intimitatea ez edukitzeagatik. Hala ere, zenbait emakumek adierazi du uneren batean sentitu duela intimitatea ez dutela izan epailearekin aritu direnean edo AMEEen.
- Baliabideetako profesionalak profesional onak direla adierazi dute, eta egiten duten lanarekiko gustura daudela esan dute emakumezkoek.
- Emakumezko gehienek argi eta garbi dute zer funtzio betetzen dituzten baliabideetakoek eta, haien ustez, zuzen betetzen dituzte dagozkien funtzioak.

B- ERAGILE JURIDIKOAK

- Ebazpen judizialaren emaitza aldekoa izan edo ez izan, nabarmentzeko modukoa da emakumezko gutxi izan dela gai zehazteko zein epaitegitan epaitu den beren kausa.
- Epaitegietan galdera asko egiten direnez, emakumezko askok epaituak izan direlako sentimendua izan dute, ez dietela ulertu eta, askotan, ahalegin handia egin behar izaten dute haiek sinesteko, tratu txarren biktima izan direla egiaztatzeko.
- Eragile juridikoek erabiltzen duten hizkuntza teknikoa informazioa eskuragarri izateko oztopo da.
- Epaitegiaren baldintza fisikoei, ordutegiari, irisgarritasunari, segurtasunari eta erosotasunari buruzko balorazio positiboak egin dituzte inkestatu ditugun biktima diren emakumeek; baina zenbait kasutan, korridoreetan ustezko erasotzailearekin topo egin dutela ere adierazi dute, bistak izan aurretik zein ondoren.

C- OFIZIOZKO BERARIAZKO ABOKATU-LAGUNTZA

- Abokatu-laguntza eskatzeak Ez du arazo berezirik eragiten; hala ere, hauteman dugu, zenbaitetan, abokatu alboan izan gabe jartzen dutela salaketa, eta ondorio negatiboak eragin diezazkioke emakumezkoari; izan ere, baliteke prozesuak berekin dakartzan ondorioei buruz nahikoa informazio ez izatea, ez jakitea zer egin behar duen ondoren...
- Doako laguntza izateko eskubideak nahasketa handiak eragin ditu emakumezkoen artean, prozesu guztia doan dela uste baitute prozesuari ekiten diotenean, baliabide ekonomikoak izan edo ez izan. Horri buruzko informazio nahasia jasotzen dute emakumeek aldeztatik aurretik komunikabideen aldetik, eta beharrezkoa da salaketa jarri aurretik behar bezala argitzea; baina, lehen ere esan dugu, une horietan emakumeak informazio gehiegi barneratu behar du.
- Ofiziozko abokatu-laguntzak eskaintako laguntzaren alderdi guztiei buruzko balorazio positiboak egin dituzte. Nabarmentzeko modukoa da gehien eta ondoen baloratu duten alderdia: egin duten ahalegina; epaiketaren edo defentsaren prestaketa baino hobeto baloratu dute. Agerian geratu da emakumezkoak, prozesuan alboan norbait izateko premia sentitzen duenez, abokatu-laguntza eskaintzen dion pertsona hartzen duela erreferentziazat, prozesua amaitu arte hura baitago alboan.

I. Eranskina: BALIABIDEEN MAPA. BALIABIDE JUDIZIALAK (Aholkularitza juridikoa, BLZ, AMEE) ETA OFIZIOZKO BERARIAZKO ABOKATU LAGUNTZA, ETXEKO TRATU TXARREN ETA/EDO SEXU ERASOEN BIKTIMENTZAT

A- EREMU JUDIZIALEKO BALIABIDEAK EAE-N, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ALORREAN

1. AHOLKULARITZA JURIDIKOA EAE-KO UDALERRIETAN

1.1. AHOLKULARITZA JURIDIKOA TRATU TXARREKO EGOERAN DAUDEN EMAKUMEZKOEI, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

1.1.1 BIZKAIKO UDALERRIAK

1. Udalerria: **ABANTO-ZIERBENA**

Helbidea: Bizkaia plaza, z/g- 48500 Abanto-Zierbena

Telefonoa: 94 636 97 37

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Ongizateko Saila – Abanto- Zierbanako Udala.

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 20 ordu hileko.

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 5 emakume

2. Udalerria: **AMOREBIETA-ETXANO**

Helbidea: c/ Nafarroa, s/n 48340 Amorebieta

Telefonoa: 94 630 01 90

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Ongizateko Saila - Amorebieta-Etxanoko Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: Eskaeraren arabera

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 8 emakume

3. Udalerria: **ARRIGORRIAGA**

Helbidea: Plaza Argala, 2- Behea (48480 Arrigorriaga)

Telefonoa: 94 4020205

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Ekintza - Arrigorriagako Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Erakundeari azpikontratatua)

Orduak hileko: 14 ordu hileko.

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 4 emakume

4. Udalerria: **BALMASEDA**

Helbidea: Correría, 54 (48800 Balmaseda)

Telefonoa: 94 610 30 99 (Emakumearen Etxea)

Programaren erakunde arduraduna: Emakumearen Saila (Emakumearen Etxea) - Balmasedako Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 16 ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 2 emakume

5. Udalerria: **BARAKALDO**

Helbidea: Herriko Plaza, 1 (48901 Barakaldo)

Telefonoa: 94 478 94 35

Programaren erakunde arduraduna: Emakumearen Administrazio Unitatea - Barakaldoko Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Erakundeari azpikontratatua)

Orduak hileko: 32ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006):

6. Udalerria: **BASAURI**

Helbidea: Kareaga Goikoa, 52 (48970 Basauri)

Telefonoa: 94 466 63 00

Programaren erakunde arduraduna: Berdintasun Saila - Basauriko Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Basauriko Emakumeen Elkarteari azpikontratatua)

Orduak hileko: 80h/semana

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 79 emakume

7. Udalerria: **BERMEO**

Helbidea: Areilza, 4 (48370 Bermeo)

Telefonoa: 94 617 91 60

Programaren erakunde arduraduna: Osasun eta Gizarte ongizaterako udal patronatua – Bermeoko Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 16ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 4 emakume

8. Udalerria: **BILBAO**

Helbidea: Uribitarte, 18-4º (48001 Bilbao)

Telefonoa: 94 420 48 38

Programaren erakunde arduraduna: Emakume eta Garapenerako Lankidetzako Salia –Bilboko Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Hitzarmena, modulu psiko-sozialak)

Orduak hileko: 69ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 29 emakume

9. Udalerria: **ERMUA**

Helbidea: Emakumearen Etxea, Izelaieta, 12 (48260 Ermua)

Telefonoa: 94 317 10 30

Programaren erakunde arduraduna: Laguntza Psikologikakorako Udal Zerbitzua–
Ermuako Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 3 ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 4 emakume

10. Udalerria: **ETXEBARRI**

Helbidea: Santa Ana, 1 (48450 Etxebarri)

Telefonoa: 94 440 42 25

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Ongizateko Saila – Etxebarriko Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 8ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 16 emakume

11. Udalerria: **GALDAKAO**

Helbidea: Gurutzeko Emparantza, s/n (48960 Galdakao)

Telefonoa: 94 401 05 00

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Ongizateko Saila – Galdakaoko Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 14ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 15 emakume

12. Udalerria: **GETXO**

Helbidea: Fueros, 8 (48992 Getxo)

Telefonoa: 94 466 01 01

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Ongizateko Saila – Getxoko Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 6ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 4 emakume

13. Udalerria: **LEIOA**

Helbidea: Sabino Arana, 82 (48940 Leioa)

Telefonoa: 94 480 13 36

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Ongizateko Saila - Leioako.

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 20 ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 9 emakume

14. Udalerria: **MUSKIZ**

Helbidea: Barrio San Juan, 2 (48550 Muskiz)

Telefonoa: 94 670 99 36

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Ongizateko Saila – Muskizeko Udala.

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 8ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 8 emakume

15. Udalerria: **ORDUÑA**

Helbidea: Foru Plaza, 1 (48460 Orduña)

Telefonoa: 945 38 30 03

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Ongizateko Saila – Orduñako Udala.

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 8ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 47 emakume

16. Udalerria: **ORTUELLA**

Helbidea: Avda. del Minero,7 (48530 Ortuella)

Telefonoa: 94 632 10 35

Programaren erakunde arduraduna: Ortuellako Udala.

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 16ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 2 emakume

17. Udalerria: **SANTURTZI**

Helbidea: Avda. Murrieta. (48980 Santurtzi)

Telefonoa: 94 483 35 66

Programaren erakunde arduraduna: Emakumeari laguntzeko eta aholkularitza juridikoa emateko zerbitzua – Santurtziko Udala.

Kudeaketa-mota: Zuzena

Orduak hileko: 160ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 35 emakume

18. Udalerria: **ZALLA**

Helbidea: Plaza Madres Irlandes, 4 behe (48860 Zalla)

Telefonoa: 94 667 10 39

Programaren erakunde arduraduna: Emakume eta Herri Garapena Saila (Aukera Berdintasuneko Zentroa)- Zallako Udala

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 16ordu hileko (Asteartea 9:00 etatik 14:00 etara)

Oharrak: Enkerterri eskualdeko emakumeei eskaintzen die laguntza (Lanestosa, Carranza, Trucios, Arcenales, Sopuerta, Galdames, Güeñes, Gordexola, Zalla).

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 4 emakume

1.1.2 BIZKAIKO MANKOMUNITATEAK

1. Mankomunitatea: **BUSTURIALDEA**

Helbidea: Alhóndiga, 6 (48300 Gernika-Lumo)

Telefonoa: 94 625 51 22

Udalerriak: Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Errigoiti, Forua, Gaategiz de Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Sukarrieta.

Programaren erakunde arduraduna: Oinarrezko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (Busturialdea).

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 16ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 9 emakume

2. Mankomunitatea: **DURANGO**

Helbidea: Barrio Astola s/n Abadiño

Telefonoa: 946 818 116

Udalerriak: Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garay, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio, Zaldibar.

Programaren erakunde arduraduna: Oinarrezko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (Durango)

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 28ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 0 emakume

3. Mankomunitatea: **LEA-ARTIBAI**

Helbidea: Patrokua Jauregia Xemein Etorbidea, 13 (48270 Markina-Xemein)

Telefonoa: 94 616 90 68

Udalerriak: Ondarroa, Berriatua, Etxebarri, Ispaster, Lekeitio, Markina, Mendexa1, Gizaburuaga, Amoroto, Ziortza Bolívar.

Programaren erakunde arduraduna: Oinarrezko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (Lea-Artibai).

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 40ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 16 emakume.

4. Mankomunitatea: **LEA IBARRA**

Helbidea: Elizalde, 1 (48289 Gizaburuaga)

Telefonoa: 94 684 29 82

Udalerriak: Munitibar, Aulesti, Amoroto, Mendexa, Gizaburuaga.

Programaren erakunde arduraduna: Oinarrezko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (Lea Ibarra).

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 3ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 1 emakume

5. Mankomunitatea: **MUNGIALDE**

Helbidea: Aita Elorriaga, 4 behea (48100 Mungia)

Telefonoa: 94 615 55 51

Udalerriak: Laukiz, Gamiz-Fika, Bakio, Mungia, Meñaka, Arriteta, Fruiz.

Programaren erakunde arduraduna: Gizarte Zerbitzuen Patzuergoa - Mungialde

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Erakundeari azpikontratatua)

Orduak hileko: 4ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 4 emakume

6. Mankomunitatea: **URIBE-KOSTA**

Helbidea: Gatzarriñe, 2-4 (48600 Sopelana)

Telefonoa: 946 76 26 74

Udalerriak: Berango, Sopelana, Barrika, Gorniz, Urduliz, Plentzia, Lemoiz

Programaren erakunde arduraduna: Oinarrezko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (Uribe-Kosta)

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Orduak hileko: 12-15ordu hileko

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 10 emakume

1.2. AHOLKULARITZA JURIDIKOA TRATU TXARREKO EGOERAN DAUDEN EMAKUMEZKOEI, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN

1. UDALERRIA: AMURRIO

Helbidea: Plaza Juan de Urrutia, s/n Amurrio

Telefonoa: 945 891 161

Programaren erakunde arduraduna: Arabako Foru Aldundia eta Amurrioko Udala. Oinarrizko Gizarte Zerbitzua.

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Ordutegia: Hileko hirugarren astelehena, 16:00etatik 18:00etara

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 10 emakume

2. UDALERRIA: LLODIO-LAUDIO

Helbidea: Herriko Plaza,8 - 01400 Llodio

Telefonoa: 944 034 850

Programaren erakunde arduraduna: Arabako Foru Aldundia eta Laudioko Udala, Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Saila

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua).

Ordutegia: Hileko lehen astelehena, 16:00etatik 18:00etara.

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 11 emakume

3. UDALERRIA: VITORIA-GASTEIZ

Helbidea: Deba eraikina. Gamarrko atea 1-120 bulegoa

Telefonoa: 945 15 10 15

AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA

Programaren erakunde arduraduna: Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala.

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Ordutegia: astelehena, asteartea eta asteazkena - 16:00etatik 18:00etara.

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 191 emakume

PROZESU JURIDIKOEN JARRAIPENERAKO ZERBITZUA

Programaren erakunde arduraduna: Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala.
(Arabako lurralde historiko guztiko emakumeei eskaintzen die laguntza).

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Pertsona fisikoa kontratatua)

Ordutegia: Astelehena 8:00etatik 14:00etara (aurretik eskatu behar da txanda)

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 28 emakume

1. 3. AHOLKULARITZA JURIDIKOA TRATU TXARREKO EGOERAN DAUDEN EMAKUMEZKOEI, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN

1. UDALERRIA: ARRASATE-MONDRAGÓN

Helbidea: Plaza Nagusia z/g. 20500 Arrasate-Mondragón

Telefonoa: 943 252 000

Programaren erakunde arduraduna: Arrasateko Udala.

Kudeaketa-mota: Zuzena.

Ordutegia: asteazkena, 18:00etatik 20:00etara (aurretik txanda eskatu, Gizarte Zerbitzuen bidez)

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): -

2. DELITUAREN BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ)

1. ZERBITZUA: **BLZ - ARABA**

Helbidea: Avenida Gasteiz, 18 - 01008 Vitoria-Gasteiz

Telefonoa: **900 180 414 / 945 004 895**

Programaren erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Clara Campoamor Elkarteari esleitura)

Profesional-kopurua eta horien lana: Administrari 1, Gizarte-langile 1, Legelari 1 eta Psikologo 1.

Emakumezkoen ehunekoa zerbitzuan: %75

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 296

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2005): 323

2. ZERBITZUA: **BLZ BIZKAIA**

Helbidea: Ibáñez de Bilbao, n. 3 - Bilbao

Telefonoa: **944 016 487 / 900 400 028**

Programaren erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (IRSE enpresari esleitura)

Profesional-kopurua eta horien lana: Administrari 1, 2 Gizarte-langile, 2 Legelari eta 2 Psikologo.

Emakumezkoen ehunekoa zerbitzuan: %50

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 787

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2005): 618

3. ZERBITZUA: **BLZ GIPUZKOA**

Helbidea: Plaza Teresa de Calcuta, 1 - 20012 Donostia-San Sebastián

Telefonoa: 900 100 928 / 943 000 768

Programaren erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza

Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (IRSE enpresari esleitura)

Profesional-kopurua eta horien lana: Administrari 1, Gizarte-langile 2, Legelari 2 eta Psikologo 2.

% de emakume en el ZERBITZUA: 100%

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 497

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2005): 465

3. AUZITEGIKO MEDIKUEN EUSKAL ERAKUNDEA (AMEE)

1. ZERBITZUA: **AMEE- ARABA**

Helbidea: Avenida de Gasteiz, nº1. Vitoria - Gasteiz

Telefonoa: 945 00 48 92

Programaren erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila.

Profesional-kopurua eta horien lana: 7 auzitegiako mediku: psikiatrian aditu 1 (emakumeen aurkako indarkerian aditua), traumatologian aditu 1, patologian aditu 1; 3 mediku orokor; 2 autopsietako laguntzaile eta 3 administrari.

Emakumezkoen ehunekoa zerbitzuan: %50

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 271

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2005): 230

2. ZERBITZUA: AMEE BIZKAIA

Helbidea: c/ Buenos Aires, nº 6. Bilbao

Telefonoa: 94 401 67 31

Programaren erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila.

Profesional-kopurua eta horien lana: 28 auzitegiko mediku: 2 traumatologian aditu, 4 psikiatrian aditu (emakumeen aurkako indarkerian aditua), 5 patologian aditu, laborategiko buru 1; 16 mediku orokor; 7 autopsietako laguntzaile; 5 laborategiko teknikari eta 12 administrari.

Emakumezkoen ehunekoa zerbitzuan: %80

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 1096

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2005): 1071

3. ZERBITZUA: AMEE GIPUZKOA

Helbidea: c/ Teresa de Calcuta nº 1 de Donostia-San Sebastián

Telefonoa: 943 00 43 50

Programaren erakunde arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila

Profesional-kopurua eta horien lana: 14 auzitegiko mediku: 2 traumatologian aditu, psikiatrian aditu 1 (emakumeen aurkako indarkerian aditua), 2 patologian aditu eta 9 mediku orokor, 4 autopsietako laguntzaile, laborategiko teknikari 1 eta 6 administrari.

Emakumezkoen ehunekoa zerbitzuan: %66

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 501

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 420

4. ETXEKO INDARKERIAKO ETA/EDO SEXU ERASOETARAKO OFIZIOZKO BERARIAZKO ABOKATU LAGUNTZA

1. ZERBITZUA: **ÁLAVA**

Helbidea: Villa María, Paseo de Fray Francisco nº 4 behe. 01007 Vitoria-Gasteiz

Telefonoa: **945 232 221**

Programaren erakunde arduraduna: Euskal Abokatuen Elkarte.

Zerbitzu-emailea: Arabako Abokatuen Elkargoa

No. de profesionales: 86 abokatu

Emakumezkoen ehunekoa zerbitzuan: -

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 329

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2005): 418

2. ZERBITZUA: **BIZKAIA**

Helbidea: Rampas de Uribitarte, nº 3. 48001 Bilbao

Telefonoa: **902 103 908**

Programaren erakunde arduraduna: Euskal Abokatuen Elkarte.

Entidad prestadora del ZERBITZUA: Bizkaiako Abokatuen Elkargoa.

No. de profesionales: 262 abokatu

Emakumezkoen ehunekoa zerbitzuan: %60,69

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 1374

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2005): 1257

3. ZERBITZUA: **GIPUZKOA**

Helbidea: C/ Fuenterrabía, 1, 2º dcha. 20005 Donostia-San Sebastián

Telefonoa: **943 440 118**

Programaren erakunde arduraduna: Euskal Abokatuen Elkarte.

Entidad prestadora del ZERBITZUA: Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa

No. de profesionales: 125 abokatu

Emakumezkoen ehunekoa zerbitzuan: -

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 824

Tratu txarreko arazoak izan dituzten pertsonen kopurua (2006): 734

**2. eranskina- GALDETEGIEN GIDOIA, EMAKUMEEN AURKAKO ETXEKO TRATU
TXARREN ALORREKO BALIABIDE JUDIZIALETAN ARITZEN DIREN
LANGILEENTZAT**

PROFESIONALAREN PROFILA

- Datu sozio-demografikoak
- Esperientzia zerbitzuan
- Espezialitatea
- Lagundutako kasuen kopurua, emakumeen aurkako etxeko tratu txarrekoak

ESKU-HARTZEAREN PROZESUA

- Betetako funtzioak
 - o Lana egiteko arazoak eta oztopoak
 - o Hobetzeko dauden arloen proposamena

KOORDINAZIOA

- Erakunde barnekoa
 - o Zerbitzuaren antolaketa
 - o Barne-jarduerarako protokoloak
 - Ezaguera
 - o Hobetze-eremuen proposamena, erakunde barneko koordinaziorako
- Erakundeen artekoa
 - o Beste polizia-baliabide edo baliabide juridikoekiko koordinazioari buruzko balorazioa
 - o Erakundeen arteko jarduerarako protokoloak
 - Ezaguera
 - o Oztopoak koordinazioan eta lankidetzan
 - o Hobetze-eremuen proposamena, erakundeen arteko koordinaziorako

KONPROMISOA

- Etxeko tratu txarren alorrean erakundeak bere gain hartutako konpromisoari buruzko balorazioa
- Kontzeptualizazioa
 - o Kontzeptuaren esanahia
 - o Kontzeptuaren garrantzia

PARTE-HARTZEA

- Langileen parte-hartzea zerbitzuaren funtzionamenduaren diseinuan
- Zerbitzuko langileak parte-hartzeari buruzko egokitasuna
- Satisfazioari buruzko inkestak langileentzat
- Kexak eta iradokizunak biltzeko sistema antolatua, biktima diren emakumeek parte hartzeko.

BERARIAZKO PRESTAKUNTZA

- Berariazko prestakuntza
- Jasotako berariazko prestakuntzari buruzko balorazioa
- Prestakuntza-jarduerak hobetzeko proposamenak

PROFESIONALEK DUTEN PERTZEPZIOA BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN SATISFAZIOARI BURUZ

- Biktima diren emakumeek dituzten beharrei buruzko pertzepzioa
 - o Beharren asebetetzea
 - o Zerbitzuaren funtzioari buruz hautemandako beharren egokitasuna
- Biktima diren emakumeek dituzten espektatibei buruzko pertzepzioa
 - o Biktima diren emakumeek dituzten espektatiben asebetetzea
 - o Zerbitzuaren funtzioari buruz hautemandako espektatiben egokitasuna
- Biktima diren emakumeen balorazioak, jasotako laguntzaren kalitateari buruz
 - o Profesional onak
 - o Konfiantza
 - o Ondo baloratutako zerbitzua

ZERBITZUAREN NORAINOKOTASUNA

- Beharrei buruzko balorazioa
- Giza Baliabideak
- Baliabide Materialak
- Egoera bereziki ahulean daudenei laguntzeko tresna edo gailu bereziak (zerbitzura iristeko arrapala, zeinu-mintzairaren interpreteak, kulturen arteko bitartekariak...)

INFORMAZIOA

- Etxeko tratu txarren biktima diren emakumezkoen buruzko informazioaren kudeaketa
- Biktima diren emakumezkoek zerbitzuari buruz alde aurretik duten informazioa
- Emakumezkoen eskaintzen zaien informazioa
- Informaziorako material osagarriaren beharrari buruzko balorazioa

EMAKUMEEN AURKAKO TRATU TXARREN ARAZOARI BURUZKO BALORAZIOAK

- Tratu txarren eta berdintasunaren arteko lotura
- Biktima diren emakumeen autonomia
- Biktima diren emakumeen espektatibak
- Biktima diren emakumeekin lan egiteari buruzko irudia